

EUSKARAREN ETA EUSKARAZKO IRAKASKUNTZAREN ESKAINTZA

Epe luzeko programazioa 1. Zatia

Norabideak eta gauzatzea

2005 Urria

AURKIBIDEA

1. PARTEA.....	7
EUSKARAZKO IRAKASKUNTZA ESKAINTZAREN AZTERKETA ESKUALDEZ ESKUALDE.....	
1. HENDAIAKO ESKUALDEA.....	9
2. DONIBANE-LOHIZUNEKO ESKUALDEA.....	17
3. BIARRITZEKO ESKUALDEA.....	31
4. ANGELUKO ESKUALDEA.....	41
5. BAIONAKO ESKUALDEA.....	51
6. BIDAXUNEKO ESKUALDEA.....	65
7. HAZPARNEKO ESKUALDEA.....	71
8. KANBOKO ESKUALDEA.....	81
9. DONAPALEUKO ESKUALDEA.....	91
10. DONIBANE-GARAZIKO ESKUALDEA.....	103
11. BAIGORRIKO ESKUALDEA.....	113
12. MAULEKO ESKUALDEA.....	121
13. ATHARRATZEKO ESKUALDEA.....	131
2. PARTEA.....	139
EPE LUZEKO PROGRAMAZIOA - PROPOSAMENA :	
- ORIENTABIDEAK ETA AURREIKUSPENAK	
- ERAKUNDE PUBLIKOAREN JARDUERA PROGRAMA (2005 BUKAERA ETA 2006).....	
1. IRAKASKUNTZA PUBLIKOA.....	141
2. IRAKASKUNTZA GIRIXTINOA.....	155
3. SEASKA FEDERAZIOA.....	163

AITZINSOLASA

2004ko azaroaren 26an, Hezkuntza Nazionaleko Ministeritza eta Pirineo-Atlantikoetako Kontseilu Orokorra engaiatzen ziren, hitzarmen baten bitartez, euskararen eta euskarazko irakaskuntza eskaintzaren garatzeko eta egituratzeko hitzartze iraunkor bat helburu duen egitura amankomun batean. Hitzartze horretan sartzen dira partaide ezberdinek abiatu beharreko politikak, izan dadin Estatuak bere gain dituen gaitasun alorretan edo tokiko erakundeek dituztenetan, eta bien gain daudenetan ere bai. Hitzartze horrek kondutan hartzen ditu irakaskuntza eskaintzaren egokitzea, eskaintza horrekin beharrezkoak diren laguntza-jarraikitze neurriak eta pedagogia mailako animatze neurriak. Desmartxa hori sartzen da ikasturteen koherentzia, osotasuna eta jarraipena printzipioetan, eta kontutan hartzen du euskararen eta euskarazko irakaskuntza honek dauzkan hiru sareak (irakaskuntza publikoa, Irakaskuntza Girixtinoko Zuzendaritzaren peko den irakaskuntza pribatua, Seaska Federazioarean peko den irakaskuntza pribatua).

Izenpetzaileek Euskararen Erakunde Publikoari eman diote hitzartze horren obratzeko kargua.

Bi izenpetzaileek egitura obralari laguntzaile izendatuz geroz, Erakunde Publikoak bere gain du :

1. dagoen irakaskuntza eskaintzari buruzko informazioaren hedapenaren laguntzea ;
2. euskarari eta irakaskuntza elebidunari buruzko sentsibilisazio eta sustatze kanpainen antolatzea;
3. euskararen eta euskarazko irakaskuntza eskaeraren aztertzeko inkesten eta iritzi-ikerketen antolatzea ;
4. ikaslearen ikasturte ezberdinetan zehar koherentzia, osotasuna eta jarraipena segurtatuko duen irakaskuntza eskaintzari buruzko epe luzeko programazio baten sortzea eta proposatzea ;
5. oinarri horietatik abiatuz, epe luzeko programazioa gorpuzten duen irakaskuntzen karta baten proposatzea : irakaskuntza gunekopuruaren finkatzea eta gunekopuruaren kokatzearen hautatzea ;
6. epe luzeko programazioan finkatu gunekopuruaren idekitzearen prestatzea, lan hitzartu bat eramanez beharrezko altxari edo lur-erakin inbertsioetan inplikatuak diren tokiko erakundeekin, sentsibilisazio lan bat eginez familietan eta izen-emaite jardunbide egokiak zutik ezarriz ;
7. hitzartze esparru baten sortzea euskararen alorrean ari diren elkarteekin, bereziki irakaskuntza elebiduneko hiru sareetako buraso elkarteekin.

Bestalde, Erakunde Publikoak bere gain du irakaskuntzari doakion egitura berezi horren kari proposatu norabideen eta hizkuntza politikako beste gaien arteko koherentziaren zaintzea.

Alabaina, misio horren erdi-erdian kokatzen da irakaskuntza eskaintzari buruzko epe luzeko programazio baten zutik ezartzea. Lan alor horretan du Euskararen Erakunde Publikoak finkatu lehentasuna.

Bere misioa molde eraginkor eta objektibo batez eramaiteko gisan, Euskararen Erakunde Publikoak lehen pausu batean irakaskuntzaren egoeraren azterketa zehatz bat egin du bi helbururekin :

- egitura berri horren lanen abiatzeko mementoan, egoeraren azterketa zehatz baten ukaiteko ;
- hitzarmenaren izenpetzaileek eman misioaren obratzeko baitezpadakoa den tresnaren ukaiteko.

Azterketa honen emaitzak 2005ko Uztailaren 12ko Administrazio Kontseiluan aho batez onartuak izan dira, eta Uztailaren 21an, Aholku Batzordeko Irakaskuntza lan batzordeari aurkeztuak izan zaizkio. Gainera, zabalki hedatuak izan dira, bereziki irakaskuntza munduko eragile guzietan.

Irakaskuntza eskaintzaren azterketa honi esker, eta finkatua izan zen egutegiaren arabera, Euskararen Erakunde Publikoak epe luzeko programazio baten lehen proposamenaren obratzea abiatu du. Norabide nagusiak eta lehen lan ardatzak dokumentu honetan aurkeztuak dira.

Gauzatu lanari esker, irakasle postuen banaketari buruzko aurreikuspenak heldu diren urteentzat egin daitezke eta 2006 sartzetik goiti finka liteken programazio bat osatzen duen lan programa bat definitu daiteke.

Hurrengo urteei begira, neurri horiek hitzarmenaren beste lan ardatzen gauzatzea baldintzatuko dute ere (sentsibilizazio kanpainak, lurralde kolektibitateekin bitartekaritza lana egoitza eta materialari lotuak diren inbertsioen gaian), eta ber denboran, irakasleen formakuntza eta ikas-materialaren ekoizpenaren arloetan bultzatu behar diren politikei buruzko konzentrazioak antolatuak izango dira.

Neurri guzi horiek, irakaskuntzen garatze eta egituratze kualitatibo batek osatuko dituzte.

Horrengatik, egoeraren azterketaren lehen zatia, bakarrik kuantitatiboa dena, orain arte bururatuak ez diren azterketaren zatietaz osatua izanen da ; bere osotasunean, dokumentuak bost atal ikertuko ditu :

- 1/ 2004-2005ko ikasturtearen irakaskuntza eskaintzaren azterketa kuantitatiboa;
- 2/ euskararen eta euskarazko irakaskuntzari buruzko lege eta araudi ingurumena;
- 3/ 2004-2005an euskararen eta euskarazko irakaskuntzarentzat izendatu irakasleak;
- 4/ irakaskuntzan baliatu bi hizkuntzen arteko oren banatzeak: egoeraren deskribatzea sistema pedagogiko ezberdinen arabera ;
- 5/ euskarazko ikas-materiala.

Lehen epe luzeko programazio honen proposamena gauzatzeko, Erakunde Publikoak lehenik geografikoki zehaztu du irakaskuntza eskaintzaren egoeraren azterketa kuantitatiboa eskualdeka eta 3 irakaskuntza sailentzat finkatuak izan diren 13 eskualdeen barnean. Dokumentu honen lehen zatian aurkeztua den azterketa honetan oinarrituz, Erakunde Publikoak norabideak eta proposamenak egiten ditu irakaskuntza 3 sailentzat, horiek dokumentuaren bigarren zatian zehaztuak direlarik.

Administrazio Kontseiluko kideek (Estadoa, Akitania eskualdea, Departamendua, Euskal Kultura sustengatzen duen herrien arteko sindikata eta Euskal Herriko Hautetsien Kontseilua) dokumentua bere osotasunean aho batez onartu dute 2005ko Urriaren 20ko biltzarrean.

Aho batezko erabaki honek ez du kentzen urterako finkatuak diren aurrekontu obligazioek baldintzatzen dituztela Estadoaren eta lurralde kolektibitateen hautuak, epe luzeko programazio honen obratze fasean.

Hala ere, Hezkuntza arloean (podere publikoen konpetentziezko beste arlo batzutan bezala : kontrataziozko politikak,...) epe luzeko programazio baten obratzeak bere interes osoa atxikitzen du ; honi esker, denboran molda liratekeen norabideak eta helburuak finkatzen ahal dira.

Horretan oinarritzen da euskarazko irakaskuntzari dagokion jardunbidea, honen berezitasuna EEP-ren baitan Estadoa eta lurralde kolektibitateen arteko hitzartu eskema baten antolatzea delarik, Hezkunde Nazionala eta Pirineo Atlantikoetako Kontseilu Orokorraren arteko hitzarmen baten bitartez.

1. Partea

EUSKARAZKO IRAKASKUNTZA ESKAINTZAREN AZTERKETA ESKUALDEZ ESKUALDE

1. Hendaia eskualdea

I. TESTUINGURUA

I. 1. Antolakuntza administratiboa



- 2 herri
- Eskualdea Hendaia eta Biriatu herriez osatua da.
- Hendaia, Irun eta Hondarribi Gipuzkoako 2 herriekin batu da Bidasoa-Txingudi mugaz gaindiko kontsorzioa osatzeko.
- Eskualde hau osatzen duten 2 herriak, Ahetze, Ainhoa, Arbona, Azkaine, Ziburu, Getaria, Donibane Lohizune, Senpere, Sara eta Urruñarekin egituratzen ari den Hego Euskal Kosta Herri Elkargorako finkatua den eremuaren partaide dira.

I. 2. Egoera demografikoa

		1982	1990	1999
Biztanlegoa herrika	Hendaia	10572	11578	12596
	Biriatu	594	694	831
	Orotarat	11166	12272	13427

Hendaia eskualdeko biztanlegoaren bilakaera

Iturria : INSEE ; 1982, 1990 eta 1999 urteetako biztanle-zentsuetako datuak; biztanlegoa kondaketa bikoiztua kontutan hartu gabe



- Eskualde honetan, 11 166 biztanle baziren 1982an, 13 427 1999an, erran nahi baita 2 261 biztanle gehiago eta %20,3ko garapen tasa bat.
- Eskualdea osatzen duten 2 herrien biztanlegoa emendatu da 1982ko zentsuaz geroz.

I. 3. Lehen mailako ikasle kopurua

- 1 505 ikasle eskualdeko lehen mailako eskoletan eskolatuak

- ↳ Erran nahi baita Euskal Herriko ama eskola eta lehen mailan eskolatuak diren 24 226 ikasleatariko % 6a
- 1 505 ikasleetatik:
 - ↳ 1 033 eskola publikoetan, orohar %69 %69 Euskal Herri osorako
 - ↳ 308 Irakaskuntza Girixtinoan, orohar %20 %25 Euskal Herri osorako
 - ↳ 164 ikastoletan, orohar %11 %6 Euskal Herri osorako

I. 4. Kolegioetako ikasle kopurua

- 684 ikasle eskualdeko kolegioetan eskolatuak
 - ↳ orohar Euskal Herriko kolegioetan eskolatu 12 836 ikasleen %5
- 684 ikasleetatik :
 - ↳ 470 kolegio publikoetan, orohar %69
 - ↳ 214 irakaskuntza girixtinoan, orohar %31


I. 5. Lizeo orokor eta teknologikoetako ikasle kopurua

- Ez da irakaskuntza orokor eta teknologiko lizeorik eskualdean

I.6. Lizeo profesionaletako ikasle kopurua

- 225 ikasle eskualdeko lizeo bakarrean eskolatuak, Hendaiako lizeo profesional publikoan (bertan, eskualdetik kanpoko ikasleak sartzen dira)
 - ↳ orohar Euskal Herriko Lizeo Profesionaletan eskolatu 3 274 ikasleen %7

HENDAIAKO ESKUALDEA



II. IRAKASKUNTZA PUBLIKOA

II. 1. . Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren azterketa eskualdeko ikastetxe publikoetan

II.1.1. Lehen maila

- 2 herrietan :
 - ↳ Biriatuan, 2 eskola aurkitzen ditugu, ama eskola bat eta lehen mailako bat.
 - ↳ Hendaian 5 eskola dira eta bakoitza ama eskola eta lehen maila batez osatua da.

- ↳ orohar 6 eskola-multzo 12 ikastetxe administratiboz osatuak.
- ↳ orohar lehen mailako irakaskuntza ematen duten 6 gune
- 6 gune hauetan :
 - ↳ "parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza proposatua da :
 - Hendaia 5 ikastetxeetako 4tan (ama eskola eta lehen maila) : Hendaia *Hiri*, Hendaia *Geltoki*, Hendaia *Joncaux*, Hendaia *Lissardy*
 - Biriatuko ama eskolan (2005eko sartzean idekitzekotan)
 - ↳ "Lehen irakaskuntza" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza ez da proposatua eskualdeko eskola batetan ere
 - ↳ Hendaia *Hondartza* ikastetxea osatzen duten 2 eskoletan (ama eskola eta lehen maila) ez da euskararen irakaskuntzarik batere proposatzen
- Eskualdeko eskola publikoetan eskolatuak diren 1 033 ikasleetatik :
 - ↳ 475ek "parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza segitzen dute, orohar %46 (Euskal Herriko eskola publiko guzietako %18,5) :
 - ↳ Ez du batek ere "lehen irakaskuntza" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza segitzen (Euskal Herriko eskola publiko guzietako %7)
 - ↳ 558k ez du euskara ikasten, orohar %54 (Euskal Herriko eskola publiko guzietako %74)

II.1.2. Bigarren maila

a/ Kolegioa

- 470 ikasle eskolatuak dira eskualdeko kolegio publikoan (Hendaia Irandatz kolegioan)
- Bertan, euskararen irakaskuntza "parekotasun elebidun" eta "opziona" ereduaren arabera proposatua da
- Kolegioan eskolatu 470 ikasleetan :
 - ↳ 83k "parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza segitzen dute, orohar %18 (Euskal Herriko kolegio publiko guzietako %6), kopuru hau irakaskuntza mailaren arabera gutti aldatzen da :
 - 6.ean: 106 ikasleetatik 19k, orohar %18
 - 5.ean: 108 ikasleetatik 16k, orohar %15
 - 4.ean: 133 ikasleetatik 26k, orohar %19,5
 - 3.ean: 123 ikasleetatik 22k, orohar %18
 - ↳ 30 ikaslek "opziona" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza segitzen dute, orohar kolegioko ikasle kopuruaren %6 (Euskal Herriko kolegio publiko guzietako %8)
 - 6.ean: 106 ikasleetatik 2k, orohar %2
 - 5.ean: 108 ikasleetatik 7k, orohar %6,5

- 4.ean: 133 ikasleetatik 8k, orohar %6
 - 3.ean: 123 ikasleetatik 13k, orohar %10,5
- ↳ 357 ikaslek ez dute euskararen irakaskuntzarik segitzen, orohar %76 (Euskal Herriko kolegio publiko guzietako %85)

b/ Lizeo profesionala

- 225 ikasle eskolaratzen dituen lizeo profesional publiko bat aurkitzen da (Hendaia lizeo profesionala)
- Bertan ez da euskararen irakaskuntza proposatzen, ez "parekotasun elebidun" ereduaren arabera, ez eta "opzio" ereduaren arabera ere

II. 2. Epe luzeko programaziorako azterketa

Ama eskola eta lehen mailako eskola publikoetan ematen den euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren antolakuntzari dagokionez, Hendaia ezaugarriak ondoko hauek ditugu :

- Beste sektoreekin konparatuz, eskola publikoetan "parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza segitzen duten ikasleen proportzioa, Euskal Herriko gorenatarikoa dugu (%46, Euskal Herriko eskola publiko guzietakoa %18,5 delarik) ; Baigorriko eskualdeko tasa Hendaia baino handiagoa den bakarra da %63koarekin, Donibane Garazikoarena parekoa delarik %47rekin
- Lurralde mailako hedapenaren ikuspegitik, 2005eko sartzean Biriatur ideki izan denetik, "parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza 6 guneetatik 5etan ematen da
- Ez da "lehen irakaskuntza" ereduaren arabera irakaskuntzarik eskualdeko eskola publikoetan
- Ez da euskara irakasten Hendaia *Hondartza* gunean
- "Parekotasun elebidun" ereduaren arrakasta ikusirik, proposatua delarik, eta gehien bat ama eskolan (Hendaia *Hiriko* ama eskolan diren ikasleen %69, %73 geltoki auzotegiko eskolan, %76 *Joncauxenean* eta %85 *Lissardyko* ama eskolan), dudarik gabe erran dezakegu eskaintza Hendaia *Hondartza* guneera hedatuz, familia andana baten eskakizunari erantzun dezakegula, eskakizun hau ikerketa baten bidez neurtu ondoren
- 2004-2005ean 84 ikasle eskolatuak dira Hendaia *Hondartzako* ama eskolan
- Bestalde, biztanlegoa emendatu da azken urteetan herri honetan
- Eskualdeko kolegioetan, "parekotasun elebidun" arabera ereduaren irakaskuntzaren segida segurtatua da : ikasleen %18ak segitu du 2004-2005ean, eta %46ak lehen mailan
- « Parekotasun elebidun » arabera eredu hautatu dutenen kopurua murrizten da kolegioetan, lehen mailako bukaeran daudenekin konparatuz : 2004-2005ean 6.ean ziren 106 ikasleetatik 19, orohar ikasleen %18, CM2an 119tik 37 zirelarik, erran nahi baita, %31

III. IRAKASKUNTZA GIRIXTINOA

III. 1. Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren azterketa eskualdeko ikastetxe girixtinoetan

III.1.1. Lehen maila

- 2004-2005ean, 308 ikasle eskolatuak ziren eskualdeko lehen mailako 2 eskola girixtinoetan, orohar eskualdean lehen mailan eskolatuak diren ikasle kopuruaren %20 (%25 Euskal Herri osorako) :
 - ↳ Hendaiaiko *Sacré-Cœur* eskolan : 118 ikasle
 - ↳ Hendaiaiko *Ste-Germaine* eskolan : 190 ikasle
- 2 eskola hauetan :
 - ↳ *Ste-Germaine* eskolak "parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza proposatzen du
 - ↳ *Sacré-Cœur* eskolak ez du euskararen irakaskuntzarik proposatzen, ez eta "lehen irakaskuntza" ereduaren ere
- Eskualdeko eskola Girixtinoetan eskolatuak diren 308 ikasleetatik :
 - ↳ 80 ikaslek "parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza segitzen dute irakaskuntza modu hau proposatua den Hendaiaiko eskolan, orohar eskola honetako ikasle kopuru orokorraren %42 eta Irakaskuntza Girixtinoan eskolaturiko 1.mailako ikasle kopuru orokorraren %26 (Euskal Herriko Irakaskuntza Girixtinoko ikastetxe guzietako %24,5)
 - ↳ Ez du ikasle batek ere "lehen irakaskuntza" ereduaren arabera irakaskuntzarik segitzen
 - ↳ 228 ikaslek ez dute euskara ikasten, orohar %74 (%73 Euskal Herri osorako)
 - *Sacré-Cœur* eskolako ikasle kopuru orokorra (118 ikasle)
 - *Ste-Germaine* eskolako 190 ikasleetatik 110, orohar ikastetxeko ikasle kopuruaren %58

III.1.2. Bigarren maila

- Eskualdean, Irakaskuntza Girixtinoko bigarren mailako ikastetxe bat bada ere, Hendaiaiko *Sacré-Cœur* kolegioa, eta bertan 214 ikasle eskolatuak dira
- "Parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza ez da proposatua
- Euskararen irakaskuntza "opziorik" ereduaren arabera proposatua da
- Eskualdeko Irakaskuntza Girixtinoko kolegioetan eskolatuak diren 214 ikasleetatik :
 - ↳ Ez du ikasle batek ere "parekotasun elebidun" ereduaren arabera irakaskuntzarik segitzen (%7 Euskal Herri osorako)
 - ↳ 59 ikaslek "opziorik" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza segitzen dute, orohar kolegio eta eskualdeko kolegioko ikasle kopuruaren %28 (%10 Euskal Herri osorako)

- ↪ 155 ikaslek ez dute euskararen irakaskuntzarik segitzen, orohar kolegioko eta beraz eskualdeko Irakaskuntza Girixtinoko kolegioen ikasle kopuru orokorraren %76 (%83 Euskal Herri osorako)

III. 2. Epe luzeko programaziorako azterketa

Eskola Girixtinoetako euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren antolakuntzari dagokionez, Hendaiaiko ezaugarriak ondoko hauek ditugu :

- "Parekotasun elebidun" ereduaren arabeko euskararen irakaskuntza segitzen duten 1. mailako ikasleen proportzioa, Euskal Herriko beste eskualdekoen parekoa da gutigorabera (%26, eta besteak %24,5), proportzio honek behatu balio mediana osatzen duelarik (6 eskualdek dituzte tasa apalagoak eta beste 6k goragoak)
- Ikastetxeei dagokienez, eskualdean dauden 2 eskoletatik, batek du "parekotasun elebidun" ereduaren arabeko euskararen irakaskuntza proposatzen, haur gehien eskolaratzen dituenak (190, besteak 118) eta gehien bat ama eskolan (94 haur, bestean 5 bakarrik)
- "lehen irakaskuntza" ereduaren arabeko euskararen irakaskuntzak ez du segidarik "parekotasun elebidun" ereduaren arabeko euskararen irakaskuntza proposatzen ez duen eskolan.
- "Parekotasun elebidun" ereduaren arabeko euskararen irakaskuntzak ez du segidarik kolegioan, jakinez :
 - ↪ gaur egun CM2an diren 42 ikasleetatik 22k irakaskuntza hau segitzen dutela, eta honi esker kolegioko 6. baten idekitzeko aukera eskaintzen duela
 - ↪ gaur egungo 6.eko ikasle kopurua (63) konparatzen bazaio eskualdeko 2 eskoletako CM2ko ikasle kopuruari (42), iduri luke beste toki batzuetatik etorritako ikasleak eskolatuak direla kolegio honetan

IV. SEASKA FEDERAZIOA

IV. 1. Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren azterketa eskualdeko Seaskako ikastetxeetan

IV.1.1. Lehen maila

- 2004-2005ean, 164 ikasle eskolatuak ziren eskualdean dagoen ikastola bakarrean, Hendaian, orohar eskualdean lehen mailan eskolatuak diren ikasle kopuruaren %11 (%5,7 Euskal Herri osorako)

IV.1.2. Bigarren maila

- Eskualdean, ez da Seaska Federazioko 2. mailako ikastetxerik

IV. 2. Epe luzeko programaziorako azterketa

Seaska Federazioko ikastetxeei dagokienez, Hendaiaiko ezaugarriak ondoko hauek ditugu :

- Eskualdeko ikastoletan eskolatuak diren 1. mailako ikasleen proportzioa ("murgiltze" ereduaren arabera euskararen eta euskarazko irakaskuntza) gora da Euskal Herri osoan behatu batezbestekotik abiatzen bada (%11, %5,7ren aurka, 2 eskualdek bakarrik, Baigorri eta Donibane-Garazik goragoko tasak dituztelarik), eta hau, ikastola bat bakarrik izanki eskualdea osatzen duten bi herrietan (Hendaia eta Biriatu)
- Ez da « murgiltze » ereduaren arabera euskararen irakaskuntzarik eskualdeko kolegioetan; ondoko eskualdean, Donibane Lohizunekoan baitago

2. Donibane-Lohizuneko eskualdea

I. TESTUINGURUA

I. 1. Antolakuntza administratiboa



- 9 herri
- Eskualdea ondoko herrietaz osatua da :
 - ↳ Donibane-Lohizuneko eskualdeko herrietaz (Donibane-Lohizune, Azkaine, Getari eta Bidarte)
 - ↳ Hendaia eskualdeko Ziburu eta Urruña herrietaz
 - ↳ Uztaritzeko eskualdeko Ahetze eta Senpere herrietaz
 - ↳ Ezpeletako eskualdeko Sara herriaz
- Eskualde hau osatzen duten herri guztiak, Bidartez aparte, Ainhoa, Arbona, Hendaia eta Biriaturekin egituratzen ari den Hego Euskal Kosta Herri Elkargorako finkatua den eremuaren partaide dira.
- Eskualdeko herri guztiak Donibane-Lohizuneko bigarren mailako irakaskuntzako kolegioen Herrien arteko Sindikata osatzen dute

I. 2. Egoera demografikoa

		1982	1990	1999
Biztanlegoa herrika	Senpere	3056	3463	4331
	Ziburu	6205	5849	6283
	Urruña	4894	6098	7043
	Ahetze	869	1069	1318
	Sara	1930	2054	2184
	Azkaine	2159	2653	3097
	Bidarte	3044	4123	4670
	Getari	1042	1105	1284
	Donibane Lohitzune	12769	13031	13247
	Orotarat	35968	39445	43457

Donibane Lohitzune eskualdeko biztanlegoaren bilakaera

Iturria : INSEE ; 1982, 1990 eta 1999 urteetako biztanle-zentsuetako datuak; biztanlegoa kondaketa bikoiztua kontutan hartu gabe



- Eskualde honetan, 35 968 biztanle baziren 1982an, 43 457 1999an, erran nahi baita 7 489 biztanle gehiago eta %20,8ko garapen tasa bat.

- Eskualdea osatzen duten 9 herrien biztanlegoa emendatu da azken bi zentsuen tartean ; emendaketa ezagutu duten hauetariko zortzi herrientzat 1982az geroztik agertzen da

I. 3. Lehen mailako ikasle kopurua

- 4 046 ikasle eskualdeko lehen mailako eskoletan eskolatuak
 - ↳ orohar Euskal Herriko ama eskola eta lehen mailan eskolatuak diren 24 226 ikasleatariko %17
- 4 046 ikasleetatik :
 - ↳ 2 568 eskola publikoetan, orohar %63 %69 Euskal Herri osorako
 - ↳ 1 204 Irakaskuntza Girixtinoan, orohar %30 %25 Euskal Herri osorako
 - ↳ 274 ikastoletan, orohar %7 %6 Euskal Herri osorako

I. 4. Kolegioetako ikasle kopurua

- 2 197 ikasle eskualdeko kolegioetan eskolatuak
 - ↳ orohar Euskal Herriko kolegioetan eskolatu 12 836 ikasleen %17
- 2 197 ikasleetatik :
 - ↳ 922 kolegio publikoetan, orohar %42
 - ↳ 1 088 irakaskuntza girixtinoan, orohar %49,5
 - ↳ 187 ikastoletan, orohar %8,5


I. 5. Lizeo orokor eta teknologikoetako ikasle kopurua

- 1 013 ikasle eskualdeko 2 lizeo orokor eta teknologikoetan (*Ravel* lizeo publikoa eta Irakaskuntza Girixtinoko *St Thomas d'Aquin* lizeo pribatuan), Donibane-Lohizuneko eskualdetik kanpotik etorritako ikasleak ere eskolaratuz
 - ↳ orohar Euskal Herriko Lizeo Orokor eta Teknologikoetan eskolatu 7 243 ikasleen %14
- 1 013 ikasleetatik :
 - ↳ 590 lizeo publikoan, orohar %58
 - ↳ 423 Irakaskuntza Girixtinoan, orohar %42


I.6. Lizeo profesionaletako ikasle kopurua

- 306 ikasle eskualdeko lizeo bakarrean eskolatuak, Donibane-Lohizuneko *Ramiro Arrue* lizeo profesional publikoa, bertan, eskualdetik kanpoko ikasleak sartuz
 - ↳ orohar Euskal Herriko Lizeo Profesionaletan eskolatu 3 274 ikasleen %9

DONIBANE LOHIZUNEKO ESQUALDEA



- Eskola Publiko elebakarra
- Eskola Publiko elebiduna
- Irakaskuntza Girixtinoko eskola elebakarra
- Irakaskuntza Girixtinoko eskola elebiduna
- Ikastola
- ▲ Kolegio Publiko elebiduna
- ▲ Irakaskuntza Girixtinoko kolegio elebakarra
- ▲ Irakaskuntza Girixtinoko kolegio elebiduna
- ▲ Seaskako kolegioa
- Lizeo Publiko elebiduna
- Irakaskuntza Girixtinoko lizeo elebiduna
- ★ Lizeo profesional Publiko elebakarra



II. IRAKASKUNTZA PUBLIKOA

II. 1. Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren azterketa eskualdeko ikastetxe publikoetan

II.1.1. Lehen maila

- 9 herrietan :
 - ↳ 3 herrietako eskolek, haurrak ama eskolako lehen urtetik lehen mailako 5. urtera (CM2 maila) eskolaratzen dituzte :
 - Ahetze
 - Azkaine
 - Sara
 - ↳ 2 herri auzoka antolatuak dira, zombait eskolek haurrak ama eskolako lehen urtetik lehen mailako 5. urtera eskolaratuz :
 - Senpere : *Hiri* eta *Amotzeko* eskolak, orohar 2 eskola
 - Urruña : *Hiri*, *Oleta* eta *Sokoako* eskolak , orohar 3 eskola
 - ↳ 2 herrik 2 eskola dituzte, ama eskola bat eta lehen maila bat :
 - Bidarte
 - Getaria
 - ↳ Herri batek, Ziburuk, irakaskuntza 3 mailatan antolatu 3 eskola ditu :
 - haurrak ama eskolako Lehen Urtetik Hirugarren Urtera eskolaratzen dituen *Marinella* ama eskola
 - haurrak lehen mailako 1. urtetik 2. urtera eskolaratzen dituen *A. Briand* eskola elementarioa
 - haurrak lehen mailako 3. urtetik 5. urtera eskolaratzen dituen *Croix Rouge* eskola
 - ↳ Donibane-Lohizunen, ondoko hauek aurkitzen ditugu :
 - ama eskola eta lehen maila batez osaturiko 3 eskola : *Hiri Erdi*, *Urdazuri*, *Aize-Errota*
 - ama eskola bat : *Ichaca*
- ↳ orohar 9 udal-eskola eta 6 eskola-multzo
- ↳ orohar 22 eskolatan 1. mailako irakaskuntza ematen duten 15 gune
- 15 gune hauetatik :
 - ↳ "parekotasun elebidun" ereduaren araberako euskararen irakaskuntza 7 gunatan proposatua da :
 - Ahetze, Azkaine eta Sarako 3 udal-eskoletan

- Senpereko 2 eskoletako batetan : *Hiri*
 - Urruñako 3 eskoletako batetan : *Hiri*
 - Ziburuko eskola-multzoan (3 eskola)
 - Donibane-Lohizuneko 3 eskola-multzoetako batetan: *Urdazuri* ama-eskola eta lehen maila
- ↳ "lehen irakaskuntza" ereduaren araberako euskararen irakaskuntza ondoko guneeetan proposatua da :
- Bidarteko eskola-multzoa osatzen duen 2 eskoletako batetan : ama estola
 - Getariako eskola-multzoa (ama eskola eta lehen maila)
- ↳ euskararen ikaskuntza ez da batere proposatua :
- Bidarteko lehen mailan (1. urtetik 5. urtera)
 - Senpereko 2 eskoletako batetan : Amotz
 - Urruñako 3 eskoletatik 2tan: Oleta eta Sokoa
 - Donibane-Lohizuneko 3 eskola-multzoetatik 2tan :
 - *Hiri Erdi*
 - *Aize-Errota*
 - Donibane-Lohizuneko *Ichaca* ama eskolan
- Eskualdeko eskola publikoetan eskolatu 2 568 ikasleetatik :
 - ↳ 831 ikaslek "parekotasun elebidun" ereduaren araberako euskararen irakaskuntza segitzen dute, orohar %32 (Euskal Herriko eskola publiko guzietako %18,5)
 - ↳ 80 ikaslek "lehen irakaskuntza" ereduaren araberako euskararen irakaskuntza segitzen dute, orohar %3 (Euskal Herriko eskola publiko guzietako %7)
 - ↳ 1 657 ikaslek ez dute euskara ikasten, orohar %65 Euskal Herriko eskola publiko guzietako %74)

II.1.2. Bigarren maila

a/ Kolegioa

- Eskualdean, 2 kolegio publiko daude :
 - ↳ 453 ikasle eskolaratzen dituen *Chantaco* kolegioa, hauetarik 395 irakaskuntza orokorrean eta 58 SEGPA
 - ↳ 469 ikasle eskolaratzen dituen *Ravel* kolegioa, denak irakaskuntza orokorrean
- ↳ orohar kolegioan eskolaratu 922 ikasle, hauetarik 864 irakaskuntza orokorrean eta 58 SEGPA

- 2 kolegioetan, euskararen irakaskuntza "parekotasun elebidun" eta "opzione" ereduaren arabera proposatua da
- 2 kolegioetan irakaskuntza orokorrean eskolatu 864 ikasleetatik :
 - ↳ 131 ikaslek "parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza segitzen dute, orohar %15eko proportzio orokorra
 - 6.ean: 219 ikasleetatik 30k , orohar kopuru orokorraren %14
 - 5.ean: 222 ikasleetatik 45k, orohar kopuru orokorraren %20
 - 4.ean: 227 ikasleetatik 24k , orohar kopuru orokorraren %11
 - 3.ean: 196 ikasleetatik 32k , orohar kopuru orokorraren %16
 - ↳ 104 ikaslek "opzione" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza segitzen dute, orohar kolegioko ikasle kopuruaren %12
 - 6.ean: 219 ikasleetatik 43k, orohar %20
 - 5.ean: 222 ikasleetatik 32k, orohar %14
 - 4.ean: 227 ikasleetatik 15k, orohar %7
 - 3.ean: 196 ikasleetatik 14k, orohar %7
 - ↳ 629 ikaslek ez dute euskararen irakaskuntzarik segitzen, orohar %73
- *Chantaco* Kolegioan irakaskuntza orokorrean eskolatu 395 ikasleetatik :
 - ↳ 75 ikaslek "parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza segitzen dute, orohar %19eko proportzio orokorra
 - 6.ean: 93 ikasleetatik 14k, orohar %15
 - 5.ean: 112 ikasleetatik 30k, orohar %27
 - 4.ean: 102 ikasleetatik 12k, orohar %12
 - 3.ean: 88 ikasleetatik 19k, orohar %22
 - 47 ikaslek "opzione" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza segitzen dute, orohar kolegioko ikasle kopuruaren %12
 - 6.ean: 93 ikasleetatik 19k, orohar %20
 - 5.ean: 112 ikasleetatik 17k, orohar %15
 - 4.ean: 102 ikasleetatik 6k, orohar %6
 - 3.ean: 88 ikasleetatik 5k, orohar % 6
 - ↳ 273 ikaslek ez dute euskararen irakaskuntzarik segitzen, orohar %69
- *Ravel* Kolegioan irakaskuntza orokorrean eskolatu 469 ikasleetatik :
 - ↳ 56 ikaslek "parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza segitzen dute, orohar %12ko proportzio orokorra

- 6.ean: 126 ikasleetatik 16k, orohar kopuru orokorraren %13
 - 5.ean: 110 ikasleetatik 15k, orohar kopuru orokorraren %14
 - 4.ean: 125 ikasleetatik 12k, orohar kopuru orokorraren %10
 - 3.ean: 108 ikasleetatik 13k, orohar kopuru orokorraren %12
- ↪ 57 ikaslek "opzione" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza segitzen dute, orohar kolegioko ikasle kopuruaren %12
- 6.ean: 126 ikasleetatik 24k, orohar %19
 - 5.ean: 110 ikasleetatik 15k, orohar %14
 - 4.ean: 125 ikasleetatik 9k, orohar %7
 - 3.ean: 108 ikasleetatik 9k, orohar %8
- ↪ 356 ikaslek ez dute euskararen irakaskuntzarik segitzen, orohar %76

b/ Lizeo orokor eta teknologikoa

- 590 ikasle eskolaratzen dituen irakaskuntza orokorreko lizeo bat aurkitzen da (Donibane-Lohizuneko *Ravel* lizeoa) 215 bigarrenean, 164 lehenean eta 211 Terminalean
 - Bertan, euskararen irakaskuntza "parekotasun elebidun" eta "opzione" ereduaren arabera proposatua da
 - Lizeoan eskolatu 590 ikasleetatik :
- ↪ 72 ikaslek "parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza segitzen dute, orohar %12
- 2.ean: 215 ikasleetatik 29k, orohar kopuru orokorraren %13,5
 - 1.ean: 164 ikasleetatik 22k, orohar %13
 - Terminalean: 211 ikasleetatik 21k, orohar %10
 - literatura sailean: 92 ikasleetatik 9k, orohar %10 (L saila)
 - zientzia sailean: 165 ikasleetatik 21k, orohar %13 (S saila)
 - sail ekonomiko eta sozialan, 118 ikasleetatik 13k, orohar %11 (ES saila)
- ↪ 45 ikaslek "opzione" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza segitzen dute, orohar %8
- 2.ean: 215 ikasleetatik 24k, orohar kopuru orokorraren %11
 - 1.ean: 164 ikasleetatik 8k, orohar %5
 - Terminalean: 211 ikasleetatik 13k, orohar %6
 - literatura sailean: 92 ikasleetatik 9k, orohar %10 (L saila)
 - zientzia sailean: 165 ikasleetatik 8k, orohar %5 (S saila)
 - sail ekonomiko eta sozialan: 118 ikasleetatik 4k, orohar %3 (ES saila)

- ↪ 473 ikasle ez dute euskararen irakaskuntzarik segitzen, orohar %80

c/ Lizeo profesionala

- 306 ikasle eskolaratzen dituen lizeo profesional publiko bat aurkitzen da (*Ramiro Arrue* lizeo profesionala)
- Bertan ez da euskararen irakaskuntza proposatzen, ez "parekotasun elebidun" ereduaren arabera, ez eta "opzio" ereduaren arabera ere

II. 2. Epe luzeko programaziorako azterketa

Ama-eskola eta lehen mailako eskola publikoetan ematen den euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren antolakuntzari dagokionez, Donibane-Lohizuneko eskualdearen ezaugarriak ondoko hauek ditugu :

- Beste sektoreekin konparatuz, eskola publikoetan "parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza segitzen duten ikasleen proportzioa, aski gora da : %32, Euskal Herriko eskola publiko guzietakoa %18,5 delarik, gelditzen diren 12 eskualdeetatik 4ek bakarrik dutelarik tasa handiagoa (Baigorri, Donibane Garazi, Hendaia eta Kanbo)
- Lurralde mailako hedapenaren ikuspegitik :
 - ↪ Lehen mailako irakaskuntza 15 guneetatik 7k, denak eskualdeko hego eta ekialdean kokatuak, irakaskuntza eredu hau proposatzen dute :
 - Ahetze, Azkaine eta Sarako 3 udal-eskoletan
 - Senpereko 2 eskoletako batetan : *Hiri*
 - Urruñako 3 eskoletako batetan : *Hiri*
 - Ziburuko eskola-multzoan (3 eskola)
 - Donibane-Lohizuneko 3 eskola-multzoetako batetan : *Urdazuri* ama-eskola eta lehen maila
 - ↪ Eskualdeko ipar itsas-bazterreko partean ez dago eskaintzarik :
 - Bidarte
 - Getaria
 - Donibane-Lohizuneko parte nagusia, hego parte bakarrik estalia izanki, *Urdazuri* eskolarekin
- "Lehen irakaskuntza" ereduaren arabera irakaskuntza proposatua da :
 - Bidarteko 2 eskoletako batetan : ama-eskola (161 ikasle)
 - Getariako 2 eskoletan : ama-ikastola eta lehen maila (41 eta 73 ikasle)
- 4 eskolek ez dute euskararik irakasten :
 - Bidarteko lehen maila (1. urtetik 5. urtera, 198 ikasle)

- Senpereko 2 eskoletako 1 : *Amotz* (35 ikasle)
 - Urruñako 3 eskoletatik 2: *Oleta* eta *Sokoa* (28 eta 123 ikasle)
 - Donibane-Lohizuneko 3 eskola-multzotatik 2 :
 - *Hiri Erdiko* ama-eskola eta lehen maila (60 eta 126 ikasle)
 - *Aize-Errota*
 - Donibane-Lohizuneko *Ichaca* ama-eskolan (54 ikasle)
- "Parekotasun elebidun" ereduaren arrakasta ikusirik, proposatua delarik, eta gehien bat ama-eskolan (ikasleen %100 saran, %64 Senperen eta %74 ama-eskolan, %55 Donibane-Lohizuneko *Urdazurin* eta %84 ama-eskolan, %57 Urruñan eta %76 ama-eskolan, %50 Ziburun eta %56 ama-eskolan), dudarik gabe erran dezakegu eskaintza beste eskoletara hedatuz, familia andana baten eskakizunari erantzun dezakegula, eskakizun hau ikerketa baten bidez neurtu ondoren
 - 2004-2005ean estaliak ez diren eskoletako ama-eskoletako ikasle kopuruen behaketak ondoko agerrarazten du :
 - ↳ 40 ikasle baino gehiagoko kopuruak :
 - Bidarte : 161 ikasle
 - Donibane-Lohizune *Aize-Errota* : 65
 - Donibane-Lohizune *Hiri Erdi* : 60
 - Donibane-Lohizune *Ichaca* : 54
 - Urruña *Sokoa* : 44
 - Getaria : 41
 - ↳ 10 eta 12 ikasle arteko kopuruak :
 - Urruña *Sokoa* : 10 ikasle
 - Senpere *Amotz* : 12
 - Bestalde, biztanlegoa emendatu da azken urteetan herri guzietan
 - Eskualdeko 2 kolegio publikoetan, "parekotasun elebidun" araberako ereduaren irakaskuntzaren segida segurtatua da
 - Kolegioan irakaskuntza eredu hau segitzen duten ikasleen proportzioa, Euskal Herriaren gaineratikoarena handiagoa bada ere (%15, %6aren kontra), 1. mailan agertzen dena (%32) baino apalagoa da, eta hunkituak diren kopuruak aski ahulak dira balio absolutuetan : 16 ikasle 6.ean Chantaco kolegioan eta 16 Ravel kolegioan, orohar "parekotasun elebidun" ereduaren araberako irakaskuntza segitzen duten 30 ikasleko kopuru orokorra 2004-2005ean, 69 direlarik urte berdinean CM2an
 - Eskualdeko lizeo orokor eta teknologikoan, "parekotasun elebidun" araberako ereduaren irakaskuntzaren segida segurtatua da
 - Irakaskuntza eredu hau segitzen duten ikasleen proportzioa murrizten da lizeoan (%12), Euskal Herrikoarenaren batez bestekoa baino gorago izanikan ere

III. IRAKASKUNTZA GIRIXTINOA

III. 1. Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren azterketa eskualdeko ikastetxe girixtinoetan

III.1.1. Lehen maila

- 2004-2005ean, 1 204 ikasle eskolatuak ziren eskualdeko 9 eskola girixtinoetan, orohar eskualdean lehen mailan eskolatuak diren ikasle kopuruaren %30 (%25 Euskal Herri osorako) :
 - ↳ Azkaineko 2 eskolak (ama eskola eta lehen maila) : 57 eta 97 ikasle
 - ↳ Urruñako lehen mailako 2 eskolak :
 - *Immaculée-Conception* (150 ikasle ama eskolako 1.urtetik lehen mailako 2. urtera)
 - *St-François-Xavier* (89 ikasle lehen mailako 3. urtetik 5. urtera)
 - ↳ Donibane-Lohizuneko lehen mailako 2 eskolak (ama eskolako 1.urtetik lehen mailako 5. urtera) :
 - *St-Joseph* (386 ikasle)
 - *Ste-Marie-d'Urquijo* (86 ikasle)
 - ↳ Herri hauetako lehen mailako eskolak (ama eskolako 1.urtetik lehen mailako 5. urtera) :
 - Ziburu (90 ikasle)
 - Senpere (166 ikasle)
 - Sara (83 ikasle)
- 9 eskola hauetatik :
 - ↳ *Ste-Marie-d'Urquijo* eskolaz aparte, beste 8 eskolek "parekotasun elebidun" ereduaren arabeko euskararen irakaskuntza proposatzen dute
 - ↳ *Ste-Marie-d'Urquijo* eskolak ez du euskararen irakaskuntzarik proposatzen, ez eta "lehen irakaskuntza" ereduaren ere
- Eskualdeko 9 eskola Girixtinoetan eskolatuak diren 1 204 ikasleetatik :
 - ↳ 555 ikaslek "parekotasun elebidun" ereduaren arabeko euskararen irakaskuntza segitzen dute, orohar Irakaskuntza Girixtinoan eskolaturiko 1.mailako ikasle kopuru orokorraren %46 (Euskal Herriko Irakaskuntza Girixtinoko ikastetxe guzietako %24,5)
 - ↳ Ez du ikasle batek ere "lehen irakaskuntza" ereduaren arabeko irakaskuntzarik segitzen

649 ikaslek ez dute euskara ikasten, orohar %54 (%73 Euskal Herri osorako)

III.1.2. Bigarren maila

- Eskualdean, badira ere Irakaskuntza Girixtinoko bigarren mailako 4 ikastetxe :
 - ↳ 1 086 ikasle eskolatzen dituzten 3 kolegio :
 - Donibane-Lohizuneko *St-Thomas-d'Aquin* kolegioa (511 ikasle)
 - Donibane-Lohizuneko *Ste-Marie* kolegioa (357 ikasle)
 - Senpereko *Arretxea* kolegioa (218 ikasle)
 - ↳ 423 ikasle eskolatzen dituen lizeo orokor eta teknologikoa, Donibane-Lohizuneko *St-Thomas-d'Aquin* lizeoa
- "Parekotasun elebidun" ereduaren arabeko euskararen irakaskuntza proposatua da :

eskualdeko 3 kolegioetatik 2tan:

 - Donibane-Lohizuneko *Ste-Marie* kolegioa
 - Senpereko *Arretxea* kolegioa

↳ Donibane-Lohizuneko *St-Thomas-d'Aquin* lizeo orokor eta teknologikoan
- "opzione" ereduaren arabeko irakaskuntza eskualdeko 4 ikastetxeetan proposatua da :
- Eskualdeko 3 kolegioetan eskolatuak diren 1 086 ikasleetatik :
 - ↳ 129 ikaslek "parekotasun elebidun" ereduaren arabeko euskararen irakaskuntza segitzen dute, orohar %12ko proportzio orokorra, proportzio hau murriztuz kolegioko karrera aitzinatzen den ahala :
 - 6.ean: 285 ikasleetatik 43k, orohar kopuru orokorraren %15
 - 5.ean: 264 ikasleetatik 39k, orohar %15
 - 4.ean: 278 ikasleetatik 31k, orohar %11
 - 3.ean: 259 ikasleetatik 16k, orohar %6
 - ↳ 208 ikaslek "opzione" ereduaren arabeko euskararen irakaskuntza segitzen dute, orohar kolegioko ikasle kopuruaren %19
 - ↳ 749 ikaslek ez dute euskara ikasten, orohar %69
- Donibane-Lohizuneko *St-Thomas-d'Aquin* lizeoan eskolatuak diren 511 ikasleetatik :
 - ↳ ez du batek ere "parekotasun elebidun" ereduaren arabeko euskararen irakaskuntza segitzen
 - ↳ 95 ikaslek "opzione" ereduaren arabeko euskararen irakaskuntza segitzen dute, orohar kolegioko ikasle kopuruaren %19
 - ↳ 416 ikaslek ez dute euskara ikasten, orohar %81
- Donibane-Lohizuneko *Ste-Marie* lizeoan eskolatuak diren 357 ikasleetatik :
 - ↳ 76 ikaslek "parekotasun elebidun" ereduaren arabeko euskararen irakaskuntza segitzen dute, orohar %21ko proportzio orokorra
 - 6.ean: 87 ikasleetatik 25k, orohar %29

- 5.ean: 96 ikasleetatik 26k, orohar %27
- 4.ean: 85 ikasleetatik 17k, orohar %20
- 3.ean: 89 ikasleetatik 8k, orohar %9
- ↳ 78 ikaslek "opzione" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza segitzen dute, orohar kolegioko ikasle kopuruaren %22
- ↳ 203 ikaslek ez dute euskararen irakaskuntzarik segitzen, orohar %57
- Senpereko *Arretxea* Kolegioan eskolatu 218 ikasleetatik :
 - ↳ 53 ikaslek "parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza segitzen dute, orohar %24ko proportzio orokorra, proportzio hau murriztuz kolegioko karrera aitzinatzen den ahala :
 - 6.ean: 67 ikasleetatik 18k, orohar %27
 - 5.ean: 51 ikasleetatik 13k, orohar %25,5
 - 4.ean: 54 ikasleetatik 14k, orohar %26
 - 3.ean: 46 ikasleetatik 8k, orohar %17
 - ↳ 35 ikaslek "opzione" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza segitzen dute, orohar kolegioko ikasle kopuruaren %16
 - ↳ 130 ikaslek ez dute euskararen irakaskuntzarik segitzen, orohar %60
- Eskualdeko lizeo orokor eta teknologikoan eskolatuak diren 423 ikasleetatik :
 - ↳ 29 ikaslek "parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza segitzen dute, orohar %7ko proportzio orokorra, proportzio hau murriztuz kolegioko karrera aitzinatzen den ahala :
 - 2.ean: 183 ikasleetatik 18k, orohar kopuru orokorraren %10
 - 1.ean: 93 ikasleetatik 6k, orohar %6
 - Azken urte orokorretan: 88 ikasleetatik 5k, orohar %6
 - Literatur sailean: 41 ikasleetatik 4k, orohar %10 (L saila)
 - Zientzi sailean: 96 ikasleetatik 4k, orohar %4 (S saila)
 - Sail ekonomiko eta sozialean: 45 ikasleetatik 3k, orohar %7 (ES saila)
 - ↳ 56 ikaslek "opzione" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza segitzen dute, orohar kolegioko ikasle kopuruaren %13
 - ↳ 338 ikaslek ez dute euskara ikasten, orohar %80

III. 2. Epe luzeko programaziorako azterketa

Eskola Girixinoetako euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren antolakuntzari dagokionez, Donibane-Lohizuneko ezaugarriak ondoko hauek ditugu :

- "Parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza segitzen duten 1. mailako ikasleen proportzioa, Euskal Herriko gorenarikoa da : %46, eta besteak %24,5 batez besteko, 2 eskualdek bakarrik dituzte tasa goragokoak (Baigorri eta Kanbo)
- Ikastetxeei dagokienez, hedapen kasik orokorra da : eskualdean dauden 9 eskoletatik 8k proposatzen dute irakaskuntza eredu hau eta eskaintzen ez duen eskola bakarra (Donibane-Lohizuneko *Ste-Marie-d'Urquijo*) da ikasle kopuru ttipiena duen 2 eskolen artekoa (86, *St-Joseph*-ek 386 dituelarik) eta gehien bat ama eskolan (21 haur, bestean 127)
- "Lehen irakaskuntza" ereduaren arabera euskararen irakaskuntzak ez du segidarik "parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza proposatzen ez duen eskola bakarrean
- "Parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntzak segida bat du bai kolegioan eta bai ere lizeo orokor eta teknologikoan, irakaskuntza mailak igan ahal irakaskuntza eredu hau hautatzen duten ikasle proportzioa murriztuz haatik :
 - ↳ %46 1. mailan
 - ↳ %12 kolegioan
 - ↳ %7 lizeo orokor eta teknologikoan

IV. SEASKA FEDERAZIOA

IV. 1. Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren azterketa eskualdeko Seaskako ikastetxeetan

IV.1.1. Lehen maila

- 2004-2005ean, 274 ikasle eskolatuak ziren eskualdeko 5 ikastoletan, orohar eskualdean lehen mailan eskolatuak diren ikasle kopuruaren %7 (%5,7 Euskal Herri osorako) :
 - ↳ Azkaineko ikastola : 20 ikasle ama eskolako lehen urtetik hirugarrenera
 - ↳ Sarakoa : 25 ikasle ama eskolako lehen urtetik lehen mailako 2. urtera
 - ↳ Urruñakoa : 51 ikasle ama eskolako lehen urtetik lehen mailako 4. urtera
 - ↳ Senperakoa : 62 ikasle lehen maila osoan
 - ↳ Donibane-Lohizuneko : 116 ikasle lehen maila osoan

IV.1.2. Bigarren maila

- Eskualdean, Seaska Federazioko 2. mailako ikastetxe bat dago, Ziburuko *Larzabal* kolegioa, Seaskako 3 kolegioetatik 1
- Kolegio honetan, 187 ikasle eskolatuak dira, orohar, eskualdeko kolegioetan dauden 2 197 ikasleentzat %8,5 eta Seaskako kolegioetan eskolatuak diren 477 ikasleentzat %39

IV. 2. Epe luzeko programaziorako azterketa

Seaska Federazioko ikastetxeei dagokienez, Donibane-Lohizuneko ezaugarriak ondoko hauek ditugu :

- Eskualdeko ikastoletan eskolaratuak diren 1. mailako ikasleen proportzioa ("murgiltze" ereduaren arabeko euskararen eta euskarazko irakaskuntza) zertxobait goragoa da Euskal Herri osoan behatu batezbestekotik abiatzen bada (%7, %6 ingururen aurka), 5 eskualdek tasa apalagoak izanki eta 6ek goragokoak
- Lurralde mailako hedapenaren mailan, eskualdea osatzen duten 9 eskoletatik 5etan badago ikastola bat, beste 4etan ez da (Bidarte, Getaria, Ahetze eta Ziburu)
- « Murgiltze » ereduaren arabeko euskararen irakaskuntzaren segida kolegioan badago eskualdean

3. Biarritzeko eskualdea

I. TESTUINGURUA

I. 1. Antolakuntza administratiboa



- 2 herri
- Eskualdea ondoko herriez osatua da :
 - ↳ Biarritze (2 eskualdetan zatiturik, Biarritz *Ekialde* eta Biarritz *Mendebalde*)
 - ↳ Uztaritzeko eskualdeko Arbona
- Biarritzeko herriak, Angelu eta Baiona herrieekin betan, Baiona-Angelu-Biarritze Hiri Elkargoa osatzen du
- Biarritzeko herrian, 2 kolegio eskualde daude :
 - ↳ Biarritze *Fa* kolegiokoa
 - ↳ Biarritze *Rostand* kolegiokoa

I. 2. Egoera demografikoa

		1982	1990	1999	2004
Biztanlehoia herrika	Biarritze	26598	28742	30055	
	Arbona	1196	1366	1375	1460
	Orotarat	27794	30108	31430	

Biarritze eskualdeko biztanlegoaren bilakaera

Iturria : INSEE ; 1982, 1990 eta 1999 urteetako biztanle-zentsuetako datuak; biztanlegoa kondaketa bikoiztua kontutan hartu gabe



- Eskualde honetan, 27 794 biztanle baziren 1982an, 31430 1999an, erran nahi baita 3 636 biztanle gehiago eta %13,1ko garapen tasa bat.
- Eskualdea osatzen duten 2 herrien biztanlegoa emendatu da 1982ko zentsuaz geroz.

I. 3. Lehen mailako ikasle kopurua

- 2 251 ikasle eskualdeko lehen mailako eskoletan eskolatuak
 - ↳ erran nahi baita Euskal Herriko ama eskola eta lehen mailan eskolatuak diren 24 226 ikasleatariko %9
- 2 251 ikasleetatik :
 - ↳ 1 654 eskola publikoetan, orohar %73 %69 Euskal Herri osorako
 - ↳ 503 Irakaskuntza Girixtinoan, orohar %22 %25 Euskal Herri osorako
 - ↳ 94 ikastoletan, orohar %4 %6 Euskal Herri osorako

I. 4. Kolegioetako ikasle kopurua

- 1 410 ikasle eskualdeko kolegioetan eskolatuak
 - ↳ orohar Euskal Herriko kolegioetan eskolatu 12 836 ikasleen %11
- 1 410 ikasleetatik :
 - ↳ 1 217 kolegio publikoetan, orohar %86
 - ↳ 193 Irakaskuntza Girixtinoan, orohar %14


I. 5. Lizeo orokor eta teknologikoetako ikasle kopurua

- 821 ikasle (batxilergoaren ondoko formakuntzetatik at) eskualdeko lizeo orokor eta teknologikoetan (2 lizeo orokor eta teknologiko publiko *Malraux* lizeoa eta *Ostalaritza* lizeoko irakaskuntza teknologikoaren parte), Biarritzeko eskualdekoak ez diren ikasleak eskolatu
 - ↳ Euskal herriko Lizeo Orokor eta Teknologikoetan eskolatu 7 243 ikasleetatik, orohar %11

I. 6. Lizeo profesionaletako ikasle kopurua

- 266 ikasle eskualdeko lizeo profesionalean eskolatuak, Biarritzeko lizeo profesional publikoa (*Ostalaritza* lizeoko irakaskuntza profesionaleko parte) bertan, eskualdetik kanpoko ikasleak sartzen dira
 - ↳ orohar Euskal Herriko Lizeo Profesionaletan eskolatu 3 274 ikasleen %8

MIARRITZEKO ESQUALDEA



II. IRAKASKUNTZA PUBLIKOA

II. 1. Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren azterketa eskualdeko ikastetxe publikoetan

II.1.1. Lehen maila

- 2 herrietan :
 - ↳ Arbonan, ama eskolako lehen urtetik lehen mailako 5. urtera haurrak hartzen dituen eskola aurkitzen dugu
 - ↳ Biarritzeko lurraldean ondoko hauek aurkitzen ditugu :
 - Ama eskolako lehen urtetik lehen mailako 5. urtera haurrak hartzen dituzten 2 eskola : *Braou, Paul Bert*
 - 3 ama eskola : *Alsace, La Rochefoucauld, Sévigné*
 - lehen mailako 1. urtetik 5. urtera haurrak hartzen dituzten 2 lehen maila : *Thermes Salins, Ferry*
 - Ama eskola bat eta lehen maila bat osatzen dituzten 2 eskola-multzo : *Reptou, Duruy*
 - ↳ orohar 8 eskola eta 2 eskola-multzo
 - ↳ orohar 12 eskolatan lehen mailako irakaskuntza ematen duten 10 gune
- 10 eskola hauetan :
 - ↳ "parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza Biarritzen kokaturiko 2 gunetan proposatua da :
 - 3 ama eskoletako batean : *Alsace*
 - 2 eskola-multzoetako batean : *Reptou*
- ↳ 7 herrik haurrak ama eskolako lehen urtetik Lehen mailako 5. urtera hartzen dituzten eskola bat dute (Bithiriña, Domintxine, Iholdi, Jutsi, Landibarre, Larzabale, Ozaraine)
- ↳ Azkenik, Donapaleuko herrian, 2 ikastetxez osaturiko eskola-multzo bat badago, ama eskola eta lehen maila
 - ↳ orohar 7 udal-eskola, eskola-multzo bat eta 6 Herrien Arteko Eskola Elkargo (HAEE)
 - ↳ orohar 26 eskolatan 1. mailako irakaskuntza eskaintzen duten 14 gune
- 1. mailako irakaskuntza 14 gune hauetatik :
 - ↳ "Parekotasun elebidun" ereduaren araberako euskararen irakaskuntza eskaintzen da :
 - Donapaleuko eskola-multzoan (ama eskola eta lehen maila)
 - Larribarre - Uharte-hiri - Lohitzuneko HAEEan 2005eko sartze honetatik goiti ama eskolan
 - ↳ "Lehen irakaskuntza" ereduaren araberako euskararen irakaskuntza beste eskola edo HAEE guzietan eskaintzen da Ozaraine kenduta

- Eskualdeko eskola publikoetan eskolatu 638 ikasleetatik :
 - ↳ 68k segitzen dute "parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza, orohar %11 (Euskal Herriko eskola publiko guzietako %18,5)
 - ↳ 453k "lehen irakaskuntza" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza segitzen dute, orohar %71 (Euskal Herriko eskola publiko guzietako %7)
 - ↳ 117k ez dute euskara ikasten, orohar %18 (Euskal Herriko eskola publiko guzietako %74)
- 2004ko urte bukaeran, Amikuzeren ibilmolderako Amikuzeko Sindikatak inkesta bat burutu du eskualdeko 4 HAEEn gurasoen iritzia jakiteko klase elebidunen sortzeaz :

	Galdezkatuak	Alde	Kontra	erantzunik ez
Arruta - Martxuta - Oragarre - Behauze - Amotze herriarteko eskola elkargoa	35	19	9	7
Arberatzte - Arbotu - Etxarri - Arue herriarteko eskola elkargoa	19	2	13	4
Amenduze - Gabadi - Labetze herriarteko eskola elkargoa	20	9	5	6
Larribarre - Lohitzune - Uharte Hiri herriarteko eskola elkargoa	17	13	2	2

II.1.2. Bigarren maila

a/ Kolegioa

- Eskualdeko kolegio publikoak (Donapaleuko *Léon Bérard* kolegioa) 274 ikasle eskolatu ditu, denak irakaskuntza orokorrean
- "Parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntzarik ez da proposatua
- "Opzione" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza proposatua da
- Kolegioan irakaskuntza orokorrean eskolatu 274 ikasleetatik :
 - ↳ ez du batek ere "parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntzarik segitzen (Euskal Herriko kolegio publiko guzientzat, %6)
 - ↳ 76k segitzen dute "opzione" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza, orohar %28 (Euskal Herriko kolegio publiko guzientzat, %8)
 - 6.ean: 75 ikasleetatik 21, orohar %28
 - 5.ean: 62 ikasleetatik 17, orohar %27
 - 4.ean: 70 ikasleetatik 21, orohar %30
 - 3.ean: 67 ikasleetatik 17, orohar %25
 - ↳ 198k ikasle ez dute euskararen irakaskuntzarik segitzen, orohar %72 (Euskal Herriko kolegio publiko guzietako %85)

b/ Lizeo orokor eta teknologikoa

- Eskualdean, ez da lizeo orokor eta teknologiko publikorik

c/ Lizeo profesionala

- Eskualdean, ez da lizeo profesional publikorik

II. 2. Epe luzeko programaziorako azterketa

Ama eskola eta lehen mailako eskola publikoetan ematen den euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren antolakuntzari dagokionez, Donapaleuko ezaugarriak ondoko hauek ditugu :

- Beste sektoreekin konparatuz, eskola publikoetan "parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza segitzen duten ikasleen proportzioa, Euskal Herriko ahulenatarikoa da : %10,7, Euskal Herriko eskola publiko guzietakoa %18,5 delarik, (BAB eta Bidaxuneko eskualdeek bakarrik dituzte tasa apalagoak)
- Lurralde mailako hedapenaren ikuspegitik, 14 gunetatik 8k (7 udal-eskola, eskola-multzo bat eta 6 Herrien Arteko Eskola Elkargo (HAEE)), bakarrik Donapaleuko ikastetxea eta, 2005eko sartzetik goiti Larribarre - Uharte-Hiri - Lohitzuneko HAEEak proposatzen dute irakaskuntza eredu hau. Eskuladeko hegoaldean (Iholdi-Oztibarre), irakaskuntza eredu hau ez da eskola publiko batean ere eskaintzen. Gauza bera da eskualdeko iparraldean.
- Lurralde mailako hedapen eskas hau "opziorik" ereduaren arabera euskararen irakaskuntzaren zabaltzeak orekatzen du, eskualdeko eskola publiko gehienetan eskaintzen baita (Euskal Herri osoan irakaskuntza hau segitzen duten ikasleen %38 eskualde honetan eskolatuak dira)
- "Parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza eskainia edo aurrikusia delarik, familien eskakizun esanguratsu bati erantzuten dio :
 - ↳ Irakaskuntza hau eskaintzen duten eskualdeko ikastetxe publiko bakarrean (Donapaleuko ama eskola eta lehen maila) segitzen duten ikasleen proportzioa sendotzen da iduriz, eskolako ikasle kopuru orokorrari konparatuz : 3 ikasleetatik 1 lehen mailan, 3tatik 2 ama eskolan
 - ↳ 2004ean, 4 HAEEetan eramandako inkestak erakusten zituen iritzi baikorrak 4 HAEEetatik 3tan sail elebidun bat idekitzeko (galdezkatutako 91 familietatik : 43 alde, 29 aurka, 19k ez dute erantzun)
- "Parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntzaren segida lehen eta bigarren mailaren artean ez da segurtatua eskualdeko kolegio publikoan
- 2004-2005ean, estaliak ez diren ama eskola eta lehen mailatan eskolatu ikasle kopuruaren behaketak ondoko hau agerrarazten du :
 - ↳ 10 baino haur gutiago :
 - Landibarren : 9
 - Bunuze – Donaixti – Hosta – Ibarlako HAEEan : 8
 - Amenduze – Gabadi – Labetzeko HAEEan : 8
 - Larzabalen : 4
 - ↳ 10 eta 15 arteko kopuruak :
 - Iholdin : 13

- Ozarainen : 12
- Arberatze – Arboti – Etxarri - Arüeko HAEEan : 11
- Jutsin : 10
- ↳ 15 eta 20 arteko kopuruak :
 - Bithiriñan : 17
 - Domintxinen : 17
- ↳ 20 baino gehiagoko kopuruak :
 - Arruta – Martxuta – Oragarre – Behauze - Amorotzeko HAEEan : 39
 - Armendaritze – Mehaineko HAEEan : 28
- Bestalde, azken ebaluaketa demografikoek agerrarazten dute eskualdeko biztanlegoa ez dela gehiago murrizten : 45 biztanle gehiago 1999 eta 2004en artean, 2004ean zentsua gertatu den eskualdeko 6 herrietan

III. IRAKASKUNTZA GIRIXTINOA

III. 1. Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren azterketa eskualdeko ikastetxe girixtinoetan

III.1.1. Lehen maila

- 2004-2005ean, 209 ikasle eskolatuak ziren eskualdeko lehen mailako 3 eskoletan, orohar eskualdean lehen mailan eskolatuak diren ikasle kopuruaren %22 (%25 Euskal Herri osorako) :
 - ↳ hegoaldean Donaixtiko herrian : 18 ikasle
 - ↳ Erdian, ondoan dauden bi herrietan Donapaleu (161 ikasle) eta Behaskane (30 ikasle)
- Eskualdean kokaturiko 3 eskoletatik :
 - ↳ eskola batek, Donapaleuko *Etchecoparrek*, "parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza proposatzen du
 - ↳ beste 2ek ez dute euskararen irakaskuntzarik proposatzen, ez eta "lehen irakaskuntza" ereduaren arabera ere
- Eskualdeko 3 eskola Girixtinoetan eskolatuak diren 209 ikasleetatik :
 - ↳ 68 ikaslek "parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza segitzen dute, irakaskuntza eredu hau proposatua den eskualdeko eskola bakarrean (Donapaleuko *Etchecoparren*) orohar Irakaskuntza Girixtinoan eskolaturiko 1.mailako ikasle kopuru orokorraren %32,5 (Euskal Herriko Irakaskuntza Girixtinoko ikastetxe guzietako %24,5)

- ↳ ez du ikasle batek ere "lehen irakaskuntza" ereduaren araberako euskararen irakaskuntzarik segitzen (Euskal Herriko Irakaskuntza Girixtinoko ikastetxe guzietako %2) :
- ↳ 141 ikaslek ez dute euskara ikasten, orohar %67,5 (%73 Euskal Herri osorako)

III.1.2. Bigarren maila

- Eskualdean, badira ere Irakaskuntza Girixtinoko bigarren mailako 2 ikastetxe, bertan 258 ikasle eskolatuak dira :
 - ↳ Donapaleuko *Etchecopar* kolegioa : 193 ikasle
 - ↳ Donaixtikoko *St-Michel* kolegioa : 65 ikasle (hauetariko kopuru handi bat barnetegian egoten da)
- Euskararen irakaskuntza "parekotasun elebidun" ereduaren arabera proposatua da eskualdeko 2 kolegioetatik 1ean : Donapaleuko *Etchecopar* kolegioan
- Euskararen irakaskuntza "opziorik" ereduaren arabera proposatua da eskualdeko 2 kolegioetatik 1ean : Donapaleuko *Etchecopar* kolegioan
- Euskararen irakaskuntzarik ez da proposatua Donaixtikoko *St-Michel* kolegioan
- Eskualdeko 2 kolegioetan eskolatu 258 ikasleetatik :
 - ↳ 31k segitzen dute "parekotasun elebidun" ereduaren araberako euskararen irakaskuntza, orohar ikasle kopuru orokorraren %12 (Euskal Herriko Irakaskuntza Girixtinoko kolegio guzietako %7) :
 - 6.ean: 69 ikasleetatik 8k, orohar %11,6
 - 5.ean: 65 ikasleetatik 8k, orohar %12
 - 4.ean: 48 ikasleetatik 7k, orohar %14,6
 - 3.ean: 76 ikasleetatik 8k, orohar %10,5
 - ↳ 40k segitzen dute "opziorik" ereduaren araberako euskararen irakaskuntza, orohar ikasle kopuru orokorraren %15,5 (Euskal Herriko Irakaskuntza Girixtinoko kolegio guzietako %10)
 - ↳ 187 ikaslek ez dute euskararen irakaskuntzarik segitzen, orohar eskualdeko kolegioaren ikasle kopuru orokorraren %72,5 (Euskal Herriko Irakaskuntza Girixtinoko kolegio guzietako %83)
- Donapaleuko *Etchecopar* kolegioan eskolatu 193 ikasleetatik :
 - ↳ 31k "parekotasun elebidun" ereduaren araberako euskararen irakaskuntza segitzen dute, orohar kopuruaren %16 (Euskal Herriko Irakaskuntza Girixtinoko kolegio guzietako %7) :
 - 6.ean: 57 ikasleetatik 8k, orohar %14
 - 5.ean: 46 ikasleetatik 8k, orohar %17
 - 4.ean: 34 ikasleetatik 7k, orohar %20,6
 - 3.ean: 56 ikasleetatik 8k, orohar %14

- ↪ 40k "opziora" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza segitzen dute, orohar kolegioko ikasleetatik %21 (Euskal Herriko Irakaskuntza Girixtinoko kolegio guzietako %10)
- ↪ 122k ez dute euskararen irakaskuntzarik segitzen, orohar %63 (Euskal Herriko Irakaskuntza Girixtinoko kolegio guzietako %83)

III. 2. Epe luzeko programaziorako azterketa

Eskola Girixtinoetako euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren antolakuntzari dagokionez, Donapaleuko ezaugarriak ondoko hauek ditugu :

- Beste eskualdeekin konparatuz, "parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza segitzen duten 1. mailako ikasleen proportzioa, aski gora da : %32,5, %24,5eko Euskal Herri osorako (gaineratik 12 eskualdeetatik 4k dute tasa goragoak eta 8k apalagoak)
- Lurralde mailako hedapenari dagokionez, "parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza proposatua da ere eskualdeko 209 ikasleetatik 161 eskolatzen dituen eskualdeko hiri nagusiko eskolan proposatua da (Donapaleuko *Etchecopar*), baina, berrogi ta hamar bat ikasle dituzten 3 eskoletatik 2k ez dute irakaskuntza hau eskaintzen, hauetariko bat Donaixtikoa, eskualdeko hegoaldean izanki, eredu hau eskainia den eskolatik urrun
- "Lehen irakaskuntza" ereduaren arabera euskararen irakaskuntzarik ez da proposatzen, "parekotasun elebidun" ereduaren arabera irakaskuntza proposatzen ez dute bi eskoletan.
- "Parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza eskainia delarik, familien eskakizun esanguratsu bati erantzuten dio (Donapaleuko *Etchecopar* eskolako ikasleen %42, kopuru handiagoarekin ama eskolan, horrek erakusten du irakaskuntza eredu hau sendotzen ari dela : %52, %37ren aurka lehen mailan)
- "Parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntzaren segida segurtatua da Irakaskuntza Girixtinoko kolegioan :
 - ↪ "Parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza segitzen duten ikasleen %16ko proportzioa, %7koa delarik Euskal Herri osorako eta %32,5ekoa 1. mailan Donapaleuko eskualdean
 - ↪ 8 ikasle irakaskuntza maila bakoitzean 6.etik 3.era irakaskuntza hau hautatu dutenentzat 2004-2005ean, orohar %14 eta 20ren arteko proportzio bat

IV. SEASKA FEDERAZIOA

IV. 1. Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren azterketa eskualdeko Seaskako ikastetxeetan

IV.1.1. Lehen maila

- 2004-2005ean, 104 ikasle eskolatuak ziren eskualdeko 2 ikastoletan, orohar eskualdean lehen mailan eskolatuak diren ikasle kopuruaren %11 (%5,7 Euskal Herri osorako)
- ↪ Donapaleuko ikastola : 69 ikasle 1. mailako klase guzietan

↳ Izurako ikastola : 35 ikasle 1. mailako klase guzietan

IV.1.2. Bigarren maila

- Eskualdean, bada Seaska Federazioko 2. mailako ikastetxe bat, Donaixtiko *M. Erdozaintzi-Etxart* kolegioa, Seaskako 3 kolegioetatik 1
- 104 ikasle eskolatuak dira kolegioan, orohar eskualdeko 637 ikasleen %16 eta Seaskako kolegioetan eskolatu 477 ikasleetatik %22

IV. 2. Epe luzeko programaziorako azterketa

Seaska Federazioko ikastetxeei dagokienez, Donapaleuko ezaugarriak ondoko hauek ditugu :

- Eskualdeko ikastoletan eskolatuak diren 1. mailako ikasleen proportzioa ("murgiltze" ereduaren arabeko euskararen eta euskarazko irakaskuntza) aski gora da Euskal Herri osoko batezbestekoan oinarritzen bagara (%11, %5,7ren aurka, 2 sektorek bakarrik, Baigorri eta Donibane-Garazik, tasa azkarragoak aurkezten dituztelarik) eta hau, 2 ikastola (Donapaleu eta Izura) baizik ez izanik eskualdea osatzen duten 39 herri guzietarako
- Kokapenari dagokionez, eskualdea osatzen duten 39 herrietatik bik dute ikastola bat (Donapaleu eta Izura), beste 37ek ez dute
- « Murgiltze » ereduaren arabeko euskararen irakaskuntzaren segida bada eskualdeko kolegioetan

10. Donibane-Garaziko eskualdea

I. TESTUINGURUA

I. 1. Antolakuntza administratiboa



- 21 herri
- Eskualdea Donibane-Garaziko eskualdeko herri guzietan eta eskola antolakuntzarako eta orokorki bizi-gunerako Donibane-Garazira buruz itzuliak diren Iholdiko eskualdeko Suhuskune eta Irisarriko herrietan osatua da
- Donibane-Garaziko eskualdeak, Baigorrikoarekin betan Garazi-Baigorri Herrien Elkargoa osatzen du, Suhuskune eta Irisarri herriekin, beraien eskualdeko beste herriekin Iholdi-Oztibarreko Herrien Elkargoa osatzen dutelarik

I. 2. Egoera demografikoa

		1982	1990	1999	2004
Biztanlegoa herriak	Ahatsa Altieta Bazkazane	265	263	320	
	Aintzile	113	110	103	118
	Ainhize Monjelose	179	173	175	
	Arnegi	337	314	286	
	Behorlegi	91	72	72	
	Duzunaritze	189	182	179	
	Buztintze	112	111	94	
	Zaro	134	145	147	
	Ezterenzubi	457	427	382	382
	Gamarte	113	105	105	
	Izpura	671	674	618	
	Jatsu	181	179	166	142
	Lakarra	107	118	129	127
	Lekunberri	215	208	182	
	Mendibe	226	183	182	
	Donazaharre	904	910	880	
	Donibane Garazi	1563	1432	1417	
	Eiheralarre	299	276	254	
	Uharteko Garazi	563	658	599	613
	Suhuskune	194	198	205	
	Irisarri	756	751	728	
Orotarat	7669	7489	7223		

Donibane Garazi eskualdeko biztanlegoaren bilakaera

Iturria : INSEE ; 1982, 1990 eta 1999 urteetako biztanle-zentsuetako datuak; biztanlegoaren kondaketa bikoiztua kontutan hartu gabe



- Eskualde honetan, 7 669 biztanle baziren 1982an, 7 223 1999an, erran nahi baita 446 biztanle gutiago direla eta %5,8ko murrizketa tasa bat

- 21 herrietatik 5en biztanlegoa emendatu da 1990 eta 1999ko zentsuen artean, hauetariko 3rena 1982tik goiti.
- Eskualdeko 21 herrietatik 14ei biztanlegoa gutitu zaie 1990 eta 1999ko zentsuen artean, hauetarik 11ena 1982tik goiti.
- 21 herrietatik 2ren biztanlegoa mantendu da 1990 eta 1999 artean
- 2004an, eskuragarriak diren zenbakiak erakusten dute 2 herritako biztanlegoaren kopurua ez dela gehiago apaltzen eta beste 2rena berriz emendatzen hasi dela

I. 3. Lehen mailako ikasle kopurua

- 653 ikasle eskualdeko lehen mailako eskoletan eskolatuak
 - ↳ erran nahi baita Euskal Herriko ama eskola eta lehen mailan eskolatuak diren 24 226 ikasleatariko %2,7
- 653 ikasleetatik :
 - ↳ 395 eskola publikoetan, orohar %60 %69 Euskal Herri osorako
 - ↳ 171 Irakaskuntza Girixtinoan, orohar %26 %25 Euskal Herri osorako
 - ↳ 87 ikastoletan, orohar %13 %6 Euskal Herri osorako

I. 4. Kolegioetako ikasle kopurua

- 380 ikasle eskualdeko kolegioetan eskolatuak
 - ↳ orohar Euskal Herriko kolegioetan eskolatu 12 836 ikasleen %3
- 380 ikasleetatik :
 - ↳ 256 kolegio publikoetan, orohar %67
 - ↳ 124 Irakaskuntza Girixtinoan, orohar %33


I. 5. Lizeo orokor eta teknologikoetako (LOT) ikasle kopurua

- 347 ikasle eskualdeko irakaskuntza orokor eta teknologikoko lizeo bakarrean, Donibane-Garaziko Navarre lizeo publikoan, irakaskuntza orokor sailean, eskualdetik kanpoko ikasleak eskolatuz
 - ↳ orohar Euskal herriko LOTetan eskolatu 7 243 ikasleetatik %5

I.6. Lizeo profesionaletako ikasle kopurua

- 118 ikasle eskualdeko irakaskuntza orokor eta teknologikoko lizeo bakarrean, Donibane-Garaziko Navarre lizeo publikoan, irakaskuntza profesional sailean, eskualdetik kanpoko ikasleak eskolatuz
- ↳ orohar Euskal herriko LPetan eskolatu 3 274 ikasleetatik %4

DONIBANE GARAZIKO ESKUALDEA



II. IRAKASKUNTZA PUBLIKOA

II. 1. Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren azterketa eskualdeko ikastetxe publikoetan

II.1.1. Lehen maila

- 21 herrietatik :
 - ↳ 7k ez dute eskolarik eta ez dira Herrien Arteko Eskola Elkargo (HAEE) bati lotuak (Suhuskune, Jatsu, Bustintze, Gamarte, Zaro, Aintzile, Uharte Garazi)
 - ↳ 2k ez dute eskolarik eta Ahatsa – Duzunaritze – Mendibeko HAEEari lotuak dira (Behorlegi eta Lekunberri)
 - ↳ 7k badute herrien arteko bilketa pedagogiko baten mailan ibiltzen den eskola bat :
 - Ainhize – Lakarrako HAEEa
 - Ezterenzubi – Eiheralarreko HAEEa
 - Ahatsa – Duzunaritze – Mendibeko HAEEa (eskolarik ez duten Behorlegi eta Lekunberri herriak lotzen zaizkio)

orohar, 7 eskolatan osaturiko 3 HAEEren baitan bildutako 9 herri

 - ↳ 4 herrik haurrak ama eskolako LUTik Lehen mailako 5. urtera hartzen dituen eskola bat badaukate (Irisarri, Donazarre, Izpura, Arnegi)
 - ↳ Azkenik eskualdeko hiriburua den Donibane-garazin 2 ikastexetan (ama eskola eta lehen maila) osatua den eskola-multzo bat dago

↳ orohar 4 udal-eskola, 3 HAEE eta eskola-multzo 1

↳ orohar 13 eskolatan 1. mailako irakaskuntza eskaintzen duten 8 gune
- 8 gune hauetatik (udal eskola, HAEE edo eskola-multzo) :
 - ↳ “parekotasun elebidun” ereduaren araberako euskararen irakaskuntza eskaintzen da :
 - Ahatsa – Duzunaritze - Mendibeko HAEEan
 - Irisarriko udal eskolan eta Donibane-Garaziko eskola-multzoa osatzen duten 2 eskoletan (ama eskola eta lehen maila)
 - ↳ “lehen irakaskuntza” ereduaren araberako euskararen irakaskuntza eskualdeko beste eskoletan guzietan eskaintzen da Arnegi kenduta (Ainhize – Lakarrako HAEEan, Ezterenzubi – Eiheralarreko HAEEan, izpura eta Donazarreko eskoletan) eta proposatua den leku guzietan, eskolan diren haur guzietan segitzen dute irakaskuntza hau
 - ↳ Arnegiko eskola da euskararen irakaskuntzarik batere eskaintzen ez duen eskualdeko eskola publiko bakarra

- Eskualdeko eskola publikoetan eskolatu 395 ikasleetatik :
 - ↳ 186k segitzen dute "parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza, orohar %47 (Euskal Herriko eskola publiko guzietako %18,5)
 - ↳ 115ek "lehen irakaskuntza" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza segitzen dute, orohar %29 (Euskal Herriko eskola publiko guzietako %7)
 - ↳ 94ek ez dute euskara ikasten, orohar %24 (Euskal Herriko eskola publiko guzietako %74)

II.1.2. Bigarren maila

a/ Kolegioa

- Eskualdeko kolegio publikoak (Donibane-Garaziko *Citadelle* kolegioa) 256 ikasle eskolatzen ditu, denak 208 irakaskuntza orokorrean, eta 48 SEGPA eta insertzio sailetan
- Euskararen irakaskuntza, aldi berean "Parekotasun elebidun" eta "opziorik" ereduaren arabera proposatua da
- Kolegioan irakaskuntza orokorrean eskolatu 208 ikasleetatik :
 - ↳ 30ek "Parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza segitzen dute, orohar %14ko proportzio orokorra :
 - 6.ean: 60 ikasleetatik 12k, orohar %20 (SEGPAtik kanpo)
 - 5.ean: 38 ikasleetatik 5k, orohar %13 (SEGPAtik kanpo)
 - 4.ean: 62 ikasleetatik 6k, orohar %10 (SEGPAtik kanpo)
 - 3.ean: 48 ikasleetatik 7k, orohar %15 (SEGPAtik kanpo)
 - ↳ 54ek "opziorik" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza segitzen dute, orohar %26
 - 6.ean: 60 ikasleetatik 19k, orohar %32 (SEGPAtik kanpo)
 - 5.ean: 38 ikasleetatik 13k, orohar %34 (SEGPAtik kanpo)
 - 4.ean: 62 ikasleetatik 14k, orohar %23 (SEGPAtik kanpo)
 - 3.ean: 48 ikasleetatik 8k, orohar %17 (SEGPA eta insertio sailetatik kanpo)
 - ↳ 172 ikasleek ez dute euskararen irakaskuntzarik segitzen, orohar %67

b/ Lizeo orokor eta teknologikoa

- Eskualdean, 347 ikasle eskolatzen dituen irakaskuntza orokorreko lizeo bat dago (Donibane-Garaziko *navarre* lizeo publikoko irakaskuntza orokorreko saila), hauetarik 127 bigarrenean, 115 1.ean, eta 105 Terminalean
- Euskararen irakaskuntza, aldi berean "Parekotasun elebidun" eta "opziorik" ereduaren arabera proposatua da

- Lizeoan, irakaskuntza orokorrean eskolatu 347 ikasleetatik :
 - ↳ 65ek "Parekotasun elebidun" ereduaren araberrako euskararen irakaskuntza segitzen dute, orohar %19 :
 - 2.ean: 127 ikasleetatik 25k, orohar %20
 - 1.ean: 115 ikasleetatik 24k, orohar %21
 - Terminalean: 105 ikasleetatik 16k, orohar %15
 - %24 literatura sailean (L saileko 1. eta Terminalean)
 - %20 zientzia sailean (SVT saileko 1. eta Terminalean)
 - %13 sail ekonomiko eta sozialean (ES saileko 1. eta Terminalean)
 - ↳ 83k "opziora" ereduaren araberrako euskararen irakaskuntza segitzen dute, orohar %24 :
 - 2.ean: 127 ikasleetatik 23k, orohar %18
 - 1.ean: 115 ikasleetatik 38k, orohar %33
 - Terminalean: 105 ikasleetatik 22k, orohar %21
 - %18 literatura sailean (L saileko 1. eta Terminalean)
 - %31 zientzia sailean (SVT saileko 1. eta Terminalean)
 - %26 sail ekonomiko eta sozialean (ES saileko 1. eta Terminalean)
 - ↳ 199 ikaslek ez dute euskararen irakaskuntzarik segitzen, orohar %57

II. 2. Epe luzeko programaziorako azterketa

Ama eskola eta lehen mailako eskola publikoetan ematen den euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren antolakuntzari dagokionez, Donibane-Garaziko ezaugarriak ondoko hauek ditugu :

- Beste sektoreekin konparatuz, eskola publikoetan "parekotasun elebidun" ereduaren araberrako euskararen irakaskuntza segitzen duten ikasleen proportzioa, Euskal Herriko gorenatarikoa da : %47 Euskal Herriko eskola publiko guzietakoa %18,5 delarik ; ondoan den Baigorrikoak du tasa azkarrago bat %63rekin
- Halere, irakaskuntza eredu honek ez du lurralde osoa estaltzen : 8 gunetatik (udal eskola, Herrien Arteko Eskola Elkargo (HAEE) edo eskola-multzo), 3k irakaskuntza eredu hau proposatzen dute : Ahatsa – Duzunaritze – Mendibeko HAEEak, Irisarriko udal eskolak eta Donibane-Garaziko eskola-multzoak (ama eskola eta lehen maila)
- "Lehen irakaskuntza" ereduaren araberrako irakaskuntzaren hedatzeak segida badu gaineratiko eskola publikoetan, Arnegikoa kenduta, (Ainhize – Lakarrako HAEEan, Ezterenzubi – Eiheralarreko HAEEan, izpura eta Donazarharreko eskoletan) eta proposatua den leku guzietan, eskolan diren haur guzietan segitzen dute irakaskuntza hau
- "Parekotasun elebidun" ereduaren arrakasta ikusirik, proposatua delarik (%93 Ahatsa – Duzunaritze - Mendibeko HAEEan, %69 Irisarrin, %62 Donibane-Garaziko ikastetxean, ama-eskolan, tasa anitzez

azkarragoa delarik % 89rekin), dudarik gabe erran dezakegu eskaintza hedatuz, familia andana baten eskakizunari erantzun dezakegula, eskakizun hau ikerketa baten bidez neurtu ondoren

- "Parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntzaren segida segurtatua da eskualdeko kolegioetan : 6.ean, 60 ikasleetatik 12ek hautatu dute irakaskuntza hau 2004-2005ean (orohar 5etatik 1), CM2n 30 ikasleetatik 5k hautu hau egin dutelarik (orohar 6etatik 1)
- "Parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntzaren segida segurtatua da eskualdeko irakaskuntza orokorreko lizeoan ere : 2.ean, 127 ikasleetatik 25ek hautatu dute irakaskuntza hau 2004-2005ean (orohar 5etatik 1)
- 2004-2005ean euskararen irakaskuntzarik proposatu ez duten ama eskoletako ikasle kopuruak ondoko hauek dira :
 - Izpuran : 6 ikasle
 - Ezterenzubi – Eiheralarreko HAEEan : 7
 - Arnegin : 9
 - Ainhiza – Lakarrako HAEEan : 11
 - Donazarren : 13
- Bestalde, azken aldaketa demografikoen arabera, biztanlegoa ez da gehiago ttipitzen eskualde horretan

III. IRAKASKUNTZA GIRIXTINOA

III. 1. Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren azterketa eskualdeko ikastetxe girixtinoetan

III.1.1. Lehen maila

- 2004-2005ean, Irakaskuntza Girixtinoak 171 ikasle eskolatzen zituen eskualdeko lehen mailako 3 eskoletan, orohar eskualdean lehen mailan eskolatuak diren ikasle kopuruaren %26 (%25 Euskal Herri osorako) :
 - ↳ iparraldean Irisarri herrian : 24 ikasle
 - ↳ eskualdeko hiriburua den Donibane-Garazi herrian : 120 ikasle
 - ↳ mugan den Donazarreko herrian : 27 ikasle
- Eskualdean kokaturiko 3 eskoletatik :
 - ↳ 1ek, Donibane-Garazikoak, "parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza proposatzen du
 - ↳ beste 2ek, Irisarri eta Donazarrekoak, "lehen irakaskuntza" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza eskaintzen dute, 2 kasuetan ikasle guzietan segitzen dutelarik

- Eskualdeko 3 eskola Girixtinoetan eskolatuak diren 171 ikasleetatik :
 - ↳ 41 ikaslek "parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza segitzen dute, irakaskuntza hau eskainia den Donibane-Garaziko eskola bakarrean, orohar irakaskuntza Girixtinoan eskolaturiko 1.mailako ikasle kopuru orokorraren %24 eta eskola honetako ikasle kopuru orokorraren %34 (Euskal Herriko irakaskuntza Girixtinoko ikastetxe guzietako %24,5)
 - ↳ 48 ikaslek "lehen irakaskuntza" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza segitzen dute, orohar irakaskuntza Girixtinoan eskolaturiko 1.mailako ikasle kopuru orokorraren %28 (Euskal Herriko irakaskuntza Girixtinoko ikastetxe guzietako %2)
 - ↳ 82 ikaslek ez dute euskara ikasten, orohar %48 (%73 Euskal Herri osorako)

III.1.2. Bigarren maila

- Eskualdean, bada ere irakaskuntza Girixtinoko bigarren mailako ikastetxe bat, *St Jean de Mayorga* kolegioa, bertan 93 ikasle eskolatuak dira
- Bertan, euskararen irakaskuntza proposatua da :
 - ↳ "Parekotasun elebidun" ereduaren arabera, bainan bakarrik 6.ean
 - ↳ "Opzione" ereduaren arabera
- Eskualdeko irakaskuntza Girixtinoko kolegioan eskolatu 127 ikasleetatik :
 - ↳ 9 ikaslek segitzen dute "parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza 6.ean, irakaskuntza hau proposatua den maila bakarrean, orohar maila honetako ikasle kopuruaren %27, (%7 Euskal Herri osorako) proportzioa %24koa delarik lehen mailan eta %25ekoa CM2an
 - ↳ 32 ikaslek segitzen dute "opzione" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza, orohar kolegioko ikasle kopuru orokorraren %25
 - ↳ 86k ez dute euskararen irakaskuntzarik segitzen, orohar kolegioko ikasleen %68

III. 2. Epe luzeko programaziorako azterketa

Eskola Girixtinoetako euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren antolakuntzari dagokionez, Donibane-Garaziko ezaugarriak ondoko hauek ditugu :

- "Parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza segitzen duten 1. mailako ikasleen proportzioa %24koa da, Euskal Herriko orokortasunean bezala. Proportzio hau BAB, Bidaxune edo Maulekoena baino azkarragoa bada ere, Baigorri, kanbo, Donibane Lohizune, Atarratzekoak baino anitzez ttipiagoa da eta eskualde berdinean irakaskuntza publikoan behaturiko proportzioarena ere (%47)
- irakaskuntza hau, eskualdean 171 ikasleetatik 120 eskolatzen dituen hiriburuko eskolan proposatua da, bainan 3 eskoletatik 2k ez dute proposatzen berrogoi ta hamar bateko ikasle kopuruetarako, hala nola Irisarrikoan, eskualdeko iparraldean, eredu hau proposatzen duen Donibane-Garaziko eskolatik aski urrun
- "Lehen irakaskuntza" ereduaren arabera euskararen irakaskuntzak segida hartzen du 2 eskola hauetan

- Irakaskuntza Girixtinoko eskualdeko kolegioko 6.ean proposatua bada ere, "Parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntzarik ez da 5.etik 3.era, euskararen irakaskuntzaren segida moztuz 2. mailan, familiek eredu honen aldeko hautua mantentzen delarik, iduriz, eskola eta kolegioaren artean (6.eko ikasleen %27, %25en aurka CM2an)

IV. SEASKA FEDERAZIOA

IV. 1 Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren azterketa eskualdeko Seaskako ikastetxeetan

IV.1.1. Lehen maila

- 2004-2005ean, 87 ikasle eskolatuak ziren Donibane-Garazin kokatu eskualdeko ikastola bakarrean, orohar eskualdean lehen mailan eskolatuak diren ikasle kopuruaren %13 (%5,7 Euskal Herri osorako)

IV.1.2. Bigarren maila

- Eskualdean, ez da Seaska Federazioko 2. mailako ikastetxerik

IV. 2. Epe luzeko programaziorako azterketa

Seaska Federazioko ikastetxeei dagokienez, Donibane-Garaziko ezaugarriak ondoko hauek ditugu :

- Eskualdeko ikastoletan eskolatuak diren 1. mailako ikasleen proportzioa ("murgiltze" ereduaren arabera euskararen eta euskarazko irakaskuntza) Euskal Herriko gorenatarikoa da (%13, %5,7ren aurka Euskal Herri osorako, sektore batek bakarrik, Baigorrikoak, tasa azkarragoa aurkezten duelarik) eta hau, ikastola bat baizik ez izanik eskualdea osatzen duten herri guzietarako
- « Murgiltze » ereduaren arabera euskararen irakaskuntzaren segidarik ez da eskualdeko kolegioetan, hau ondoan den Donapaleuko eskualdean eskainia baita

11. Baigorriko eskualdea

I. TESTUINGURUA

I. 1. Antolakuntza administratiboa



- 11 herri
- Eskualdea Baigorriko eskualdeko herri guzietan osatua da
- Eskualdeko honek, ondoan den Donibane-Garazikoarekin betan Garazi-Baigorri Herrien Elkargoa osatzen du

I. 2. Egoera demografikoa

		1982	1990	1999
Biztanlegoa herrika	Aldude	483	433	395
	Anauze	274	310	247
	Azkarate	294	294	275
	Banka	450	426	373
	Bidarra	631	585	645
	Irulegi	233	240	290
	Lasa	296	286	261
	Ortzaitze	678	692	694
	Baigorri	1691	1565	1525
	Arrosa	479	415	442
	Urepele	459	400	365
	Orotarat	5968	5646	5512

Baigorri eskualdeko biztanlegoaren bilakaera

Iturria : INSEE ; 1982, 1990 eta 1999 urteetako biztanle-zentsuetako datuak; biztanlegoa kondaketa bikoiztua kontutan hartu gabe



- Eskualde honetan, 5 968 biztanle baziren 1982an, 5 512 1999an, erran nahi baita 456 biztanle gutiago direla eta %7,6ko murrizketa tasa bat
- Eskualdeko 4 herriren biztanlegoa emendatu da 1990 eta 1999ko zentsuen artean, hauetariko 2rena 1982tik goiti.
- Eskualdeko 11 herrietatik 6ei biztanlegoa gutitu zaie 1982tik goiti.

- Herri baten biztanlegoa emendatu da 1982 eta 1990 artean, eta ondotik murriztu bi zentsuen artean
- Sortzeen kopurua emendatuz doa eskualdean 2001etik goiti

I. 3. Lehen mailako ikasle kopurua

- 390 ikasle eskualdeko lehen mailako eskoletan eskolatuak
 - ↳ erran nahi baita Euskal Herriko ama eskola eta lehen mailan eskolatuak diren 24 226 ikasleatariko %1,6
- 390 ikasleetatik :
 - ↳ 187 eskola publikoetan, orohar %48 %69 Euskal Herri osorako
 - ↳ 118 Irakaskuntza Girixtinoan, orohar %30 %25 Euskal Herri osorako
 - ↳ 85 ikastoletan, orohar %22 %6 Euskal Herri osorako


I. 4. Kolegioetako ikasle kopurua

- 167 ikasle eskualdeko kolegioetan eskolatuak
 - ↳ orohar Euskal Herriko kolegioetan eskolatu 12 836 ikasleen %1,3
- 167 ikasleetatik :
 - ↳ 76 kolegio publikoetan, orohar %45,5
 - ↳ 91 Irakaskuntza Girixtinoan, orohar %54,5

I. 5. Effectifs lycées

- Ez da lizeorik eskualdean, ez irakaskuntza orokor eta teknologikoan ez eta profesionalean ere

BAIGORRIKO ESKUALDEA



II. IRAKASKUNTZA PUBLIKOA

II. 1. Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren azterketa eskualdeko ikastetxe publikoetan

II.1.1. Lehen maila

- 11 herrietatik
 - 5ek ez dute eskola publikorik eta ez dira Herrien Arteko Eskola Elkargo (HAEE) bati lotuak (Aldude, Anhauze, Azkarate, Irulegi, Lasa)
 - 2k badute herrien arteko bilketa pedagogiko gisan ibiltzen den eskola bat : Ortaize – Arrosako HAEEa

orohar, 2 eskolatan osaturiko HAEE baten baitan bildutako 2 herri (ama eskola Ortzaizen eta lehen maila Arrosan)

↳ 4k badute haurrak ama eskolako LUtik Lehen mailako 5. urtera hartzen dituen eskola bat (Baigorri, Bidarra, Banka, Urepele)

↳ orohar 4 udal-eskola eta HAEE 1

↳ orohar 6 eskolatan 1. mailako irakaskuntza eskaintzen duten 5 gune

• 5 gune hauetatik (udal eskola edo HAEE) :

↳ "parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza eskaintzen da :

- Ortzaize - Arrosako HAEEan
- Baigorri eta Bidarraiko udal-eskoletan

↳ "lehen irakaskuntza" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza beste eskoletan eskaintzen da (banka eta Urepele) eta proposatua den leku guzietan, eskolan eskolatu haur guziek segitzen dute

↳ euskararen irakaskuntzarik batere eskaintzen ez duen eskualdeko eskola publikorik ez da

• Eskualdeko eskola publikoetan eskolatu 187 ikasleetatik :

↳ 118k segitzen dute "parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza, orohar %63 (Euskal Herriko eskola publiko guzietako %18,5)

↳ 31k "lehen irakaskuntza" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza segitzen dute, orohar %17 (Euskal Herriko eskola publiko guzietako %7)

↳ 38k ez dute euskara ikasten, orohar %20 (Euskal Herriko eskola publiko guzietako %74)

II.1.2. Bigarren maila

a/ Kolegioa

• Eskualdeko kolegio publikoak (Baigorriko *Jean Pujó* kolegioa) 76 ikasle eskolatzen ditu, denak irakaskuntza orokorrean

• "Parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntzarik ez da bertan proposatua

• "Opzioe" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza proposatua da

• Kolegioan irakaskuntza orokorrean eskolatu 76 ikasleetatik :

↳ 54k "opzioe" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza segitzen dute, orohar %71 (Euskal Herriko kolegio guzietako %8) :

- 6.ean: 16 ikasleetatik 14k, orohar %87,5
- 5.ean: 23 ikasleetatik 16k, orohar %82
- 4.ean: 17 ikasleetatik 14k, orohar %82
- 3.ean: 20 ikasleetatik 10k, orohar %50

- ↪ 22 ikaslek ez dute euskararen irakaskuntzarik segitzen, orohar %29 (Euskal Herriko eskola publiko guzietako %85)

b/ Lizeoa

- Eskualdean, ez da lizeorik, ez irakaskuntza orokor eta teknologikorik, ez eta profesionalik ere

II. 2. Epe luzeko programaziorako azterketa

Ama eskola eta lehen mailako eskola publikoetan ematen den euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren antolakuntzari dagokionez, Baigorriko ezaugarriak ondoko hauek ditugu :

- Beste sektoreekin konparatuz, eskola publikoetan "parekotasun elebidun" ereduaren arabeko euskararen irakaskuntza segitzen duten ikasleen proportzioa, Euskal Herriko gorena da : %63 Euskal Herriko eskola publiko guzietakoa %18,5 delarik
- Lurralde mailako ikuspegitik, 5 gunetatik (udal eskola edo Herrien Arteko Eskola Elkargo (HAEE)), 3k irakaskuntza eredu hau proposatzen dute : Ortzaize – Arrosako HAEE, Baigorriko udal eskola, Bidarraiko udal eskola
- Halere, Banka eta Urepeleko eskolek ez dute irakaskuntza hau proposatzen, arrunt euskalduna den eskualde batean, hegoaldean kokatua, parte urrunenean
- "Lehen irakaskuntza" ereduaren arabeko irakaskuntzak segida bat badu 2 eskola publiko hauetan, eta eskola horretan eskolatu ikasle guziek segitzen dute
- "Parekotasun elebidun" ereduaren arrakasta ikusirik, proposatua delarik (%99 Ortzaize - Arrosako HAEEan, %93 Bidarrain, %26 Baigorriin) dudarik gabe erran dezakegu eskaintza hedatuz, familia andana baten eskakizunari erantzun dezakegula, eskakizun hau ikerketa baten bidez neurtu ondoren
- Estaliak ez diren ama eskoletan 2004-2005ean eskolatu haurren kopuruen behaketak, zenbaki apalak agerrarazten ditu : 4 Bankan eta 5 Urepelen
- Aldi berean, azken bilakaera demografikoek erakusten dute gero eta biztanle gutiago daudela herri horietan
- "Parekotasun elebidun" ereduaren arabeko euskararen irakaskuntzaren segida ez da segurtatua eskualdeko kolegioan, jakinez :
 - ↪ CM2ko ikasleen erdia baino gehiago irakaskuntza eredu horretan eskolatuak direla (21etatik 13 2004-2005ean) eta 16 direla 6.ean
 - ↪ eskualdeko hautetsiak kolegio horretan "parekotasun elebidun" ereduaren arabeko euskararen irakaskuntza eskainiko duen sail baten idekitzearen alde agertu dira

III. IRAKASKUNTZA GIRIXTINOA

III. 1. Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren azterketa eskualdeko ikastetxe girixtinoetan

III.1.1. Lehen maila

- 2004-2005ean, Irakaskuntza Girixtinoak 118 ikasle eskolaratzen zituen LUTik Lehen mailako 5. urtera eskualdeko lehen mailako 3 eskoletan, orohar eskualdean lehen mailan eskolatuak diren ikasle kopuruaren %30 (%25 Euskal Herri osorako) :
 - ↳ eskualdeko hiriburua den Baigorriko herrian : 59 ikasle
 - ↳ hegoaldean Aldudeko herrian : 36 ikasle
 - ↳ iparraldean Ortzaize herrian : 23 ikasle
- Eskualdean kokaturiko 3 eskoletatik :
 - ↳ 3ek "parekotasun elebidun" ereduaren arabeko euskararen irakaskuntza proposatzen dute
 - ↳ ez du batek ere "lehen irakaskuntza" ereduaren arabeko irakaskuntzarik eskaintzen
- Eskualdeko 3 eskola Girixtinoetan eskolatuak diren 118 ikasleetatik :
 - ↳ 85 ikaslek "parekotasun elebidun" ereduaren arabeko euskararen irakaskuntza segitzen dute, orohar Irakaskuntza Girixtinoan eskolaturiko 1.mailako ikasle kopuru orokorraren %72 (Euskal Herriko Irakaskuntza Girixtinoko ikastetxe guzietako %24,5)
 - 59 ikasleetatik 32k Baigorriin, orohar %54
 - 23 ikasleetatik 17k Ortzaizen, orohar %74
 - 36 ikasleetatik 36k Alduden, orohar ikasle guziak
 - ↳ ez du ikasle batek ere "lehen irakaskuntza" ereduaren arabeko euskararen irakaskuntzarik segitzen (Euskal Herriko Irakaskuntza Girixtinoko ikastetxe guzietako %2)
 - ↳ 33 ikaslek ez dute euskara ikasten, orohar %28 (%73 Euskal Herri osorako)

III.1.2. Bigarren maila

- Eskualdean, bada ere Irakaskuntza Girixtinoko bigarren mailako ikastetxe bat, *Bil Etxea* kolegioa, bertan 93 ikasle eskolatuak dira
- Bertan euskararen irakaskuntza proposatua da :
 - ↳ "Parekotasun elebidun" ereduaren arabera
 - ↳ "Opzione" ereduaren arabera

- Eskualdeko Irakaskuntza Girixtinoko kolegioan eskolatu 93 ikasleetatik :
 - ↳ 30ek segitzen dute "parekotasun elebidun" ereduaren araberrako euskararen irakaskuntza, orohar kolegioko ikasle kopuruaren %32, eta beraz, eskualdeko kolegioetako kopuruena ere (%7 Euskal Herri osorako) :
 - 6.ean: 24 ikasleetatik 10k, orohar %42
 - 5.ean: 23 ikasleetatik 7k, orohar %30
 - 4.ean: 25 ikasleetatik 6k, orohar %24
 - 3.ean: 21 ikasleetatik 7k, orohar %33
 - ↳ 63 ikaslek segitzen dute "opziora" ereduaren araberrako euskararen irakaskuntza, orohar kolegioko ikasle kopuru orokorraren %68, eta beraz eskualdeko kolegiokoarena ere (%10 Euskal Herri osorako)
 - ↳ ez da eskualdeko Irakaskuntza Girixtinoko kolegioko ikasle bat ere euskararen irakaskuntzarik segitzen ez duenik, (%83 Euskal Herri osorako)

III. 2. Epe luzeko programaziorako azterketa

Eskola Girixtinoetako euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren antolakuntzari dagokionez, Baigorriko ezaugarriak ondoko hauek ditugu :

- 1. mailan :
 - ↳ beste sektoreekin konparatuz, "Parekotasun elebidun" ereduaren araberrako euskararen irakaskuntza segitzen duten 1. mailako ikasleen proportzioa Euskal Herriko gorena da : %72koa (%24 Euskal Herri osorako)
 - ↳ lurraldea osoki estalia da irakaskuntza hau Irakaskuntza Girixtinoak eskualdean dituen 3 eskoletan eskaintzen baita
- 2. mailan :
 - ↳ "Parekotasun elebidun" ereduaren araberrako euskararen irakaskuntza, segurtatua da 6.etik 3.era, honela euskararen irakaskuntza eredu hau bermatuz 2. mailan
 - ↳ kolegioan irakaskuntza hau segitzen duten ikasleen proportzioa gora da Euskal Herriko batez bestekoari konparatuz (%72 %24ren aurka) bainan 1. mailan behatutakoa baino apalagoa (%32) : CM2ko 18 ikasleetatik 13k segitzen dute "Parekotasun elebidun" ereduaren araberrako euskararen irakaskuntza eta 6.eko 24 ikasleetatik 10ek
 - ↳ "Lehen irakaskuntza" ereduaren araberrako euskararen irakaskuntza ere proposatua da kolegioan, orohar ikasle kopuruaren %68
 - ↳ 2 ereduak gehituz, kolegioko ikasle guzietan, 2004-2005ean bederen, euskara ikasteko aukera dute, ez baita bat ere euskara ikasi gabe egoten denik
 - ↳ ez da irakaskuntzarik kolegioaren ondotik Baigorriko eskualdean

IV. SEASKA FEDERAZIOA

IV. 1. Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren azterketa eskualdeko Seaskako ikastetxeetan

IV.1.1. Lehen maila

- 2004-2005ean, 85 ikasle eskolatuak ziren Ortzainen kokatu eskualdeko ikastola bakarrean, orohar eskualdean lehen mailan eskolatuak diren ikasle kopuruaren %22 (%5,7 Euskal Herri osorako)

IV.1.2. Bigarren maila

- Eskualdean, ez da Seaska Federazioko 2. mailako ikastetxerik

IV. 2. Epe luzeko programaziorako azterketa

Seaska Federazioko ikastetxeei dagokienez, Donibane-Garaziko ezaugarriak ondoko hauek ditugu :

- Eskualdeko ikastoletan eskolatuak diren 1. mailako ikasleen proportzioa ("murgiltze" ereduaren arabeko euskararen eta euskarazko irakaskuntza) Euskal Herriko gorena (%22, %5,7ren aurka Euskal Herri osorako) eta hau, ikastola bat baizik ez izanik eskualdea osatzen duten herri guzietarako
- « Murgiltze » ereduaren arabeko euskararen irakaskuntzaren segidarik ez da eskualdeko kolegioetan, hau ondoan den Kanboko eskualdean eskainia baita

12. Mauleko eskualdea

I. TESTUINGURUA

I. 1. Antolakuntza administratiboa



- 21 herri
- Eskualdea Mauleko eskualdeko herri guzietz eta Idauze-Mendi – Mendikotako HAEEari lotuak diren Atharratzeko eskualdeko Ozaze-Zühara eta Zalgize herrietz osatua da
- Eskualdeko honek, Atharratzekoarekin betan Xiberoko Herrien Elkargoa osatzen du

I. 2. Egoera demografikoa

		1982	1990	1999	2004
biztanlegoa herririka	Ainharbe	181	161	142	
	Urrustoi Larrabile	131	123	105	103
	Altzurükü	293	274	254	
	Barkoxe	916	788	774	
	Berrogaine Larüntze	128	142	136	
	Sarrikotape	285	273	247	242
	Sohüta	1173	1193	1104	
	Ezpeize	502	522	474	
	Garindaine	648	598	525	
	Gotaine	444	453	467	
	Ospitale-pea	64	76	74	76
	Idauze Mendi	227	242	262	
	Maule	4099	3533	3347	3315
	Mendikota	203	214	187	
	Mitikile Larrori Mendibile	339	357	344	
	Muskildi	289	285	280	
	Urdinarbe	584	555	544	554
	Arrokiaga	150	130	127	
	Bildoze	911	831	743	
	Ozaze	71	100	83	
	Zalgize	190	200	201	181
Orotarat	11828	11050	10420		

Maule eskualdeko biztanlegoaren bilakaera


Iturria : INSEE ; 1982, 1990 eta 1999 urteetako biztanle-zentsuetako datuak; biztanlegoa kondaketa bikoiztua kontutan hartu gabe



I.6. Lizeo profesionaletako (LP) ikasle kopurua

- 258 ikasle eskualdeko lizeo profesional bakarrean, Mauleko *J.P. Champo* lizeo profesional publikoan, eskualdetik kanpoko ikasleak eskolatuz
- ↳ orohar Euskal herriko LPetan eskolatu 3 274 ikasleetatik %8

MAULEKO ESKUALDEA



II. IRAKASKUNTZA PUBLIKOA

II. 1. Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren azterketa eskualdeko ikastetxe publikoetan

II.1.1. Lehen maila

- 21 herrietatik
 - ↳ 4k ez dute eskolarik eta ez dira Herrien Arteko Eskola Elkargo (HAEE) bati lotuak (Ürrüxtoi-Larrabile, Berrogañe-Lahüntze, Ospitale-Pia, Arrokiaga)
 - ↳ 2k ez dute eskolarik eta Idauze-Mendi – Mendikota – Altzürüküko HAEEari lotuak dira (Ozaze-Zühara eta Zalgize)
 - ↳ 8k badute herrien arteko bilketa pedagogiko baten mailan ibiltzen den eskola bat :
 - Sarrikota-Pia – Ezpeize-Undüreiñeko HAEEa
 - Bildoze *Burgu* – Bildoze *Onizepiako* HAEEa
 - Muskildi – Urdiñarbeko HAEEa
 - Idauze-Mendi – Mendikota – Altzürüküko HAEEa (HAEE honi Atharratzeko eskualdeko Ozaze-Zühara eta Zalgize 2 herriak lotzen zaizkio, ez dute, ez batak eta ez bestak eskolarik)

orohar, 9 eskolatan osaturiko 4 HAEEen baitan bildutako 11 herri

 - ↳ 5 herrik badute haurrak ama eskolako LUtik Lehen mailako 5. urtera hartzen dituen eskola bat (Aiiñharbe, Mithikile, Barkoxe, Garindañe, Gotañe)
 - ↳ azkenik, Maule eta Sohütako herriek badituzte bakoitzak 2 auzotegi ezberdinetan kokatuak diren 2 ikastetxe (Hiribehera eta Hirigora Maulen, Burgu eta Hogi Sohütan), 4 ikastetxe hauek haurrak ama eskolako LUtik Lehen mailako 5. urtera hartzen dituzte

↳ orohar 9 udal-eskola eta 4 HAEE

↳ orohar 18 eskolatan 1. mailako irakaskuntza eskaintzen duten 13 gune

- 13 gune hauetatik (udal eskola edo HAEE) :
 - ↳ “parekotasun elebidun” ereduaren araberako euskararen irakaskuntza eskaintzen da :
 - Idauze-Mendi – Mendikota – Altzürüküko HAEEan
 - Muskildi – Urdiñarbeko HAEEa
 - Barkoxeko eskolan eta Mauleko bi eskolatan
 - Sohüta Burguko eskolan 2005eko sartzetik goiti
 - “lehen irakaskuntza” ereduaren araberako euskararen irakaskuntza eskualdeko beste eskola guzietan eskaintzen da, Muskildin salbu (Sarrikota-Pia – Ezpeize-Undüreiñeko HAEEa,

Bildoze *Burgu* – Bildoze *Onizepiako* HAEEan, Aifharbe, Mithikile, Gaindanne, Gotañe, Sohüta *Burgu* eta Sohüta *Hogin*) eta, 2 kasu kenduta, proposatua den leku guzietan, eskolan eskolatu haur guziek segitzen dute

- Eskualdeko eskola publikoetan eskolatu 627 ikasleetatik :
 - ↳ 138k segitzen dute "parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza, orohar %22 (Euskal Herriko eskola publiko guzietako %18,5)
 - ↳ 294k "lehen irakaskuntza" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza segitzen dute, orohar %47 (Euskal Herriko eskola publiko guzietako %7)
 - ↳ 195ek ez dute euskara ikasten, orohar %31 (Euskal Herriko eskola publiko guzietako %74)

II.1.2. Bigarren maila

a/ Kolegioa

- Eskualdeko kolegio publikoak (Mauleko *Argia* kolegioa) 266 ikasle eskolatu ditu, denak irakaskuntza orokorrean
- Euskararen irakaskuntza aldi berean "parekotasun elebidun" eta "opziorik" ereduaren arabera proposatua da
- Kolegioan irakaskuntza orokorrean eskolatu 266 ikasleetatik :
 - ↳ 30ek "parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza segitzen dute, orohar klaseen arabera aldatzen den %11ko proportzio orokor bat (%6 Euskal Herriko kolegio publiko guzietako) :
 - 6.ean: 77 ikasleetatik 10k, orohar %13
 - 5.ean: 80 ikasleetatik 8k, orohar %10
 - 4.ean: 66 ikasleetatik 12k, orohar %18
 - 3.ean: 43 ikasleetatik 2k, orohar %5
 - ↳ 53k "opziorik" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza segitzen dute, orohar %20 (%8 Euskal Herriko kolegio publiko guzietako) :
 - 6.ean: 60 ikasleetatik 19k, orohar %32
 - 5.ean: 38 ikasleetatik 13k, orohar %34
 - 4.ean: 62 ikasleetatik 14k, orohar %23
 - 3.ean: 48 ikasleetatik 8k, orohar %17
 - ↳ 183 ikasleek ez dute euskararen irakaskuntzarik segitzen, orohar %69 (Euskal Herriko eskola publiko guzietako %85)

b/ Lizeo orokor eta teknologikoa

- Eskualdean, lizeo orokor eta teknologiko (LOT) publiko bat bada (Sohütan kokatua den Pays de Soule LOTa, Mauleko eskualdeko hiriburuaren muga) bertan 331 ikasle dira, 294 2. zikloan eta 37 goi-mailako irakaskuntzan (BTS 1. eta 2. urtean)
- Sohütako LOTaren 2. zikloko 294 ikasleetatik :
 - ↳ 89 bigarreanean dira
 - ↳ 113 sail orokorretan dira : 61 1.ean eta 52 Terminalean
 - ↳ 92 sail teknologikoetan dira : 43 1.ean eta 49 Terminalean
- Euskararen irakaskuntza ez da « parekotasun elebidun » ereduaren arabera proposatua, baina bai « opzione » ereduaren
- Sohütako LOTaren 2. zikloko 294 ikasleetatik :
 - ↳ 16k euskararen irakaskuntza "opzione" ereduaren arabera segitzen dute, orohar %5,5 (Euskal Herriko LOT publiko guzietako %4,5)
 - 2.ean: 89 ikasleetatik 5k, orohar %6
 - 113 ikasleetatik 11k sail orokorretan, orohar %10 (61etatik 5k 1. orokorrean, orohar %8 ; 52tik 6k Terminal orokorreko klaseetan, orohar %11,5 ; 21etatik 2k literatura sailean, orohar %9,5 – 1.a eta terminala - ; 62 ikasleetatik 3k zientzia sailean %5 – SVT 1.a eta terminala - ; 30etatik 6k sail ekonomiko eta sozialean, orohar %20 – ES 1.a eta terminala -)
 - bat ere ez sail teknologikoetan
 - ↳ Sohütako LOTeko 2. zikloko 278 ikaslek ez dute euskara ikasten, orohar %94,5 (Euskal Herriko LOT publiko guzietako %93)

II. 2. Epe luzeko programaziorako azterketa

Ama eskola eta lehen mailako eskola publikoetan ematen den euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren antolakuntzari dagokionez, Mauleko ezaugarriak ondoko hauek ditugu :

- Beste sektoreekin konparatuz, eskola publikoetan "parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza segitzen duten ikasleen proportzioa, Euskal Herriko batez bestekoa baino apur bat goragoa da : (%22 Euskal Herriko eskola publiko guzietakoa %18,5 delarik), eskualde honetan behatutako balioa mediana delarik (hala nola 6 eskualdek proportzio apalago bat dute, eta beste hain bestek proportzio azkarrago bat, balio ttipiena %0koa izanik eta handiena %63koa)
- Lurralde mailako ikuspegitik :
 - 18 gunetatik 5ek proposatzen dute : Barkoxeko udal-eskolak eta mauleko 2ak, Idauze-Mendiko eskolak, Idauze-Mendi – Mendikota – Altzürüküko Herrien Arteko Eskola Elkargoak (HAEE), Muskildi – Urdiñarbeko HAEEko Urdiñarbeko eskola
 - batez ere, ez da euskararen irakaskuntzaren eskaintzarik "parekotasun elebiduna" ereduaren arabera, Mauleko eskualdearen inguruan eta iparraldean kokatuak diren herri guzietan

- HAAE berdinaren baitan, segida ez da gehiago segurtatua CE1etik goiti irakaskuntza hau dagoen 2 HAAEetan : ez da Idauze-Mendi – Mendikota – Altzürüküko HAAEko Mendikota eta Altzürüküko eskoletan, ez da ere Muskildi – Urdiñarbeko HAAEko Muskildiko eskolan
- “Lehen irakaskuntza” ereduaren araberrako irakaskuntzak segida hartzen du gaineratiko eskola publikoetan, Muskildin salbu (Sarrikota-Pia – Ezpeize-Undüreifneko HAAEa, Bildoze *Burgu* – Bildoze-*Onizepiako* HAAEan, Idauze-Mendi – Mendikota – Altzürüküko HAAEko Mendikota eta Altzürüküko eskoletan Aifñharbe, Mithikile, Gaindanne, Gotañe, Sohüta *Burgu* eta Sohüta *Hogireko* eskoletan) eta bitan salbu, eskaintzen den ikastetxe guzietan, eskolatu ikasle guziek segitzen dute.
- “Parekotasun elebidun” ereduaren arrakasta ikusirik, proposatua delarik (%29 Mauleko Hiribehera, %37 Maule Hirigora, %48 Barkoxen, %92 Urdiñarben, Idauze-Mendko ikasle guziak) dudarik gabe erran dezakegu eskaintza hedatuz, familia andana baten eskakizunari erantzun dezakegula, eskakizun hau ikerketa baten bidez neurtu ondoren
- “Parekotasun elebidun” ereduaren araberrako euskararen irakaskuntzaren segida segurtatua da eskualdeko kolegioan bainan ez lizeotan, ez irakaskuntza orokorrean, ez eta ere lizeo profesionalean
- Estaliak ez diren ama eskoletan 2004-2005ean eskolatu haurren kopuruen behaketak, zenbaki apalak agerrarazten ditu :
 - ↳ 5 ikasle baino gutiago :
 - Aifñharben : 4 2004-2005ean
 - ↳ 10 eta 13 arteko ikasle kopuruak :
 - Mitikilen : 10
 - Gotañen : 11
 - Sohüta Hogin : 12
 - Garindañen : 13
 - ↳ 20 baino gehiagoko ikasle kopuruak :
 - Bildoze *Burgun* : 22
 - Sohüta *Burgun* : 23
 - Sarrikota-Pian (Sarrikota-Pia – Ezpeize-Undüreifneko HAAEa) : 23
- Aldi berean, azken bilakaera demografikoek erakusten dute gero eta biztanle gutiago daudela herri horietan, Mauletik hurbilenak direnetan salbu

III. IRAKASKUNTZA GIRIXTINOA

III. 1 Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren azterketa eskualdeko ikastetxe girixtinoetan

III.1.1. Lehen maila

- 2004-2005ean, Irakaskuntza Girixtinoak 60 ikasle eskolatzen zituen LUtik Lehen mailako 5. urtera eskualdeko lehen mailako 2 eskoletan, orohar eskualdean lehen mailan eskolatuak diren ikasle kopuruaren %8 (%25 Euskal Herri osorako) :

- ↳ Mauleko ama eskolan : 21 ikasle
- ↳ Mauleko lehen mailan : 39 ikasle
- Eskualdean kokaturiko 2 eskoletatik :
 - ↳ Ez du batek ere "parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntzarik proposatzen
 - ↳ 2ek "lehen irakaskuntza" ereduaren arabera irakaskuntza eskaintzen dute
- Eskualdeko 2 eskola Girixtinoetan eskolatuak diren 60 ikasleetatik :
 - ↳ Ez du batek ere "parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntzarik segitzen (Euskal Herriko Irakaskuntza Girixtinoko ikastetxe guzietako %24,5)
 - ↳ 2 eskoletako ikasle guzietatik "lehen irakaskuntza" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza segitzen dute (Euskal Herriko Irakaskuntza Girixtinoko ikastetxe guzietako %2)

III.1.2. Bigarren maila

- Eskualdean, badira Irakaskuntza Girixtinoko bigarren mailako 2 ikastetxe, 143 ikasle eskolatzen dituen *S^t François* kolegioa, eta 114 ikasle eskolatzen dituen izen bereko irakaskuntza orokorreko lizeoa, biak Maulen kokaturik
- 2 kasuetan, euskararen irakaskuntza:
 - ↳ "parekotasun elebidun" ereduaren arabera ez da proposatua
 - ↳ "opziorik" ereduaren arabera proposatua da
- Eskualdeko Irakaskuntza Girixtinoko kolegioan eskolatu 143 ikasleetatik :
 - ↳ ez du batek ere "parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntzarik segitzen
 - ↳ 22 ikaslek segitzen dute "opziorik" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza, orohar kolegioko eta eskualdeko kolegioko ikasle kopuru orokorraren %15
 - ↳ 121ek ez dute segitzen euskararen irakaskuntzarik, orohar kolegioko eta beraz eskualdeko Irakaskuntza Girixtinoko kolegioko ikasle kopuru orokorraren %85
- Eskualdeko Irakaskuntza Girixtinoko LOTan eskolatu 114 ikasleetatik :
 - ↳ ez du batek ere "parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntzarik segitzen
 - ↳ 2 ikaslek segitzen dute "opziorik" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza, orohar kolegioko eta eskualdeko kolegioko ikasle kopuru orokorraren %1,75
 - ↳ 112k ez dute segitzen euskararen irakaskuntzarik, orohar lizeoko ikasle kopuru orokorraren %98

III. 2. Epe luzeko programaziorako azterketa

Eskola Girixtinoetako euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren antolakuntzari dagokionez, Mauleko ezaugarriak ondoko hauek ditugu :

- Ez da "parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntzarik eskaintzen, izan dadin 1. mailan, kolegioan edo lizeoan
- Lehen mailan, Bidaxuneko eskualdea da bakarra kasu berdinean, beste eskualde guzietan, bada "parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntzaren eskaintza bat, eredu honetan eskolatuak diren ikasleen kopuruaren batz bestekoa %24,5 izanik Euskal Herri osorako
- "Lehen irakaskuntza" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza ikastetxe guzietan eskainia da, izan dadin 2. eskoletan, kolegioan edo irakaskuntza orokorreko lizeoan
- Irakaskuntza hau segitzen duen ikasle proportzioa behera doa ikasketa ibilbidean aitzinatzen garen ahala : eskoletako ikasle guziaz, kolegioko 24 ikasle orohar ikasle kopuruaren %17, lizeoko 2 ikasle

IV. SEASKA FEDERAZIOA

IV. 1 Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren azterketa eskualdeko Seaskako ikastetxeetan

IV.1.1. Lehen maila

- 2004-2005ean, 68 ikasle eskolatuak ziren Maulen kokatu eskualdeko ikastola bakarrean, orohar eskualdean lehen mailan eskolatuak diren ikasle kopuruaren %9 (%5,7 Euskal Herri osorako)

IV.1.2. Bigarren maila

- Eskualdean, ez da Seaska Federazioko 2. mailako ikastetxerik

IV. 2. Epe luzeko programaziorako azterketa

Seaska Federazioko ikastetxeei dagokienez, Mauleko ezaugarriak ondoko hauek ditugu :

- Eskualdeko ikastoletan eskolatuak diren 1. mailako ikasleen proportzioa ("murgiltze" ereduaren arabera euskararen eta euskarazko irakaskuntza) Euskal Herriko gorenetarikoa da (%9, %5,7ren aurka, 5 sektorek tasa azkarragoak izanik eta 7k apalagoak)
- « Murgiltze » ereduaren arabera euskararen irakaskuntzaren segidarik ez da eskualdeko kolegioetan, hau ondoan den Donapaleuko eskualdean eskainia baita

13. Atharratzeko eskualdea

I. TESTUINGURUA

I. 1. Antolakuntza administratiboa



- 14 herri
- Eskualdea Atharratzeko eskualdeko herri guzietan osatua da, Idauze-Mendi – Mendikotako Herrien Arteko Eskola Elkargoari (HAEE) eta Mauleko eskualdeari lotuak izan diren Ozaze-Zühara eta Zalgize herriak kenduta
- Eskualdeko honek, Maulekoarekin betan Xiberoko Herrien Elkargoa osatzen du

I. 2. Egoera demografikoa

		1982	1990	1999	2004
Biztanlegoa herrika	Alzai Beheti Zunharreta	283	273	246	
	Aloze Ziboze Onizagaine	316	309	319	
	Gamerre zihiga	133	119	114	
	Etxebarre	93	85	63	62
	Hauze	119	99	96	103
	Lakarri Arane Sarrikotagaine	136	127	124	
	Laginaga Astüe	171	181	149	
	Larraine	298	241	214	
	Lexantzü	83	93	80	
	Ligi Aterei	250	237	243	
	Montori	371	379	349	
	Santa Grazi	391	319	250	
	Atharratze	787	704	656	
	Hiruri	145	151	148	
	Orotarat	3576	3317	3051	

Atharratze eskualdeko biztanlegoaren bilakaera

Iturria : INSEE ; 1982, 1990 eta 1999 urteetako biztanle-zentsuetako datuak; biztanlegoa kondaketa bikoiztua kontutan hartu gabe



- Eskualde honetan, 3 576 biztanle baziren 1982an, 3 051 1999an, erran nahi baita 525 biztanle gutiago eta %14,7ko murrizketa tasa bat
- Eskualdeko 14 herrietatik 2ren biztanlegoa emendatu da 1990 eta 1999 artean
- Eskualdeko 14 herrietatik 12ei biztanlegoa gutitu zaie 1990tik goiti (hauetariko 9ei 1982tik goiti)
- 2004ko zentsuan, eskuragarriak diren zenbakiak erakusten dute 2 herrietako biztanlegoaren kopurua ez dela gehiago apaltzen

I. 3. Lehen mailako ikasle kopurua

- 180 ikasle eskualdeko lehen mailako eskoletan eskolatuak
 - ↳ erran nahi baita Euskal Herriko ama eskola eta lehen mailan eskolatuak diren 24 226 ikasleatariko %0,75
- 180 ikasleetatik :
 - ↳ 154 eskola publikoetan, orohar %86 %69 Euskal Herri osorako
 - ↳ 18 Irakaskuntza Girixtinoan, orohar %10 %25 Euskal Herri osorako
 - ↳ 8 ikastoletan, orohar %4 %6 Euskal Herri osorako


I. 4. Kolegioetako ikasle kopurua

- 108 ikasle eskualdeko kolegio bakarrean, Atharratzeko *P. Jauregui* kolegio publikoan eskolatuak
 - ↳ orohar Euskal Herriko kolegioetan eskolatu 12 836 ikasleen %1

I. 5. Lizeoetako ikasle kopuruak

- Ez da lizeorik eskualdean, ez irakaskuntza orokor eta teknologikoan, ez eta profesionalean ere

ATHARRATZEKO ESKUALDEA



●	Eskola Publiko elebakarra
● 	Eskola Publiko elebiduna
●	Irakaskuntza Giritinoko eskola elebiduna
●	Ikastola
▲	Kolegio Publiko elebakarra
	Herrienarteko eskola elkargoak (RPI)

II. IRAKASKUNTZA PUBLIKOA

II. 1. Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren azterketa eskualdeko ikastetxe publikoetan

II.1.1. Lehen maila

- 14 herrietatik
 - ↳ 3k ez dute eskolarik eta ez dira Herrien Arteko Eskola Elkargo (HAEE) bati lotuak (Aloze, Hauze, Lakarri)
 - ↳ 1ek ez du eskolarik eta Liginaga – Ligi-Athereiko HAEEri lotua da
 - ↳ 2 herrik badute Herrien Arteko Eskola Elkargo baten mailan ibiltzen den eskola bat : Liginaga – Ligi-Athereiko HAEEa (ama-eskola eta CPa Ligi-Atherein, CE1 eta CM2 Liginagan)
oro har, 2 eskolatan osaturiko HAEE baten baitan bildutako 3 herri
 - ↳ 5 herrik badute haurrak ama eskolako LUtik Lehen mailako 5. urtera hartzen dituen eskola bat (Gamere-Zihiga, Larraine, Muntori, Santa-Grazi, Atharratze)
↳ oro har 5 udal-eskola eta HAEE 1
↳ oro har 7 eskolatan 1. mailako irakaskuntza eskaintzen duten 6 gune
- 6 gune hauetatik (udal-eskola edo HAEE) :
 - ↳ "parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza Atharratze, eskualdeko hiriburuan eskaintzen da
 - ↳ "lehen irakaskuntza" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza eskualdeko beste eskola guzietan eskaintzen da (Liginaga – Ligi-Athereiko HAEEa, Gamere-Zihiga, Larraine, Muntori eta Santa-Grazi) eta proposatua den leku guzietan, eskolatu haur guziek segitzen dute
- Eskualdeko eskola publikoetan eskolatu 154 ikasleetatik :
 - ↳ 28k segitzen dute "parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza, oro har %18,2 (Euskal Herriko eskola publiko guzietako %18,5)
 - ↳ 92k "lehen irakaskuntza" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza segitzen dute, oro har %60 (Euskal Herriko eskola publiko guzietako %7)
 - ↳ 34k ez dute euskara ikasten, oro har %22 (Euskal Herriko eskola publiko guzietako %74)

II.1.2. Bigarren maila

a/ Kolegioa

- Eskualdeko kolegio publikoak (Atharratzeko *Jaureguy* kolegioa) 108 ikasle eskolatzen ditu, denak irakaskuntza orokorrean
- Ez da kolegio horretan "parekotasun elebidun" ereduaren arabeko euskararen irakaskuntzarik, baina "opziorik" ereduaren arabera proposatua da
- Kolegioan irakaskuntza orokorrean eskolatu 108 ikasleetatik :
 - ↳ Ez du batek ere "parekotasun elebidun" ereduaren arabeko euskararen irakaskuntzarik segitzen
 - ↳ 56k "opziorik" ereduaren arabeko euskararen irakaskuntza segitzen dute, orohar %52 :
 - 6.ean: 22 ikasleetatik 18k, orohar %82
 - 5.ean: 32 ikasleetatik 14k, orohar %44
 - 4.ean: 30 ikasleetatik 17k, orohar %57
 - 3.ean: 24 ikasleetatik 7k, orohar %29
 - ↳ 52 ikaslek ez dute euskararen irakaskuntzarik segitzen, orohar %48

b/ Lizeo orokor eta teknologikoa

- Eskualdean, ez da irakaskuntza orokor eta teknologikoko lizeorik

c/ Lizeo profesionala

- Eskualdean, ez da lizeo profesionalik

II. 2. Epe luzeko programaziorako azterketa

Ama eskola eta lehen mailako eskola publikoetan ematen den euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren antolakuntzari dagokionez, Atharratzeko ezaugarriak ondoko hauek ditugu :

- Eskola publikoetan "parekotasun elebidun" ereduaren arabeko euskararen irakaskuntza segitzen duten ikasleen proportzioa, Euskal Herriko batez bestekoaren heinekoa da (%18,2, Euskal Herriko eskola publiko guzietakoa %18,5 delarik)
- 5 eskualdek proportzio apalago bat dute, 7k proportzio azkarrago bat, balio ttipiena %0koa izanik, eta handiena %63koa
- Lurrean mailako ikuspegitik :
 - Irakaskuntza 6 gunetatik 1ek bakarrik du "parekotasun elebiduna" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza proposatzen : eskualdeko ipar-iparraldean kokatua den Atharratzeko eskola publikoa
 - eskaintza hau ez da beste nehun aurkitzen eskualde horretan

- “Lehen irakaskuntza” ereduaren arabera irakaskuntzaren hedapenak segida hartzen du gaineratiko eskola publikoetan, (Liginaga – Ligi-Athereiko HAEEa, Gamere-Zihiga, Larraine, Muntori eta Santa-Grazi) eta proposatua den leku guzietan, eskolatu ikasle guzietan segitzen dute
- “Parekotasun elebidun” ereduaren arrakasta ikusirik, proposatua delarik (%45k Atharratzen) dudarik gabe erran dezakegu eskaintza hedatuz, familia andana baten eskakizunari erantzun dezakegula, eskakizun hau ikerketa baten bidez neurtu ondoren
- “Parekotasun elebidun” ereduaren arabera euskararen irakaskuntzaren segida ez da segurtatua eskualdeko kolegioan
- Estaliak ez diren ama eskoletan 2004-2005ean eskolatu haurren kopuruaren behaketak, zenbaki apalak agerrarazten ditu :
 - ↳ 5 ikasle edo gutiago :
 - Larrainen : 1 (2004-2005ean)
 - Santa-Grazin : 5
 - Gamere-Zihigan : 5
 - ↳ 10 eta 12 arteko ikasle kopuruak :
 - Liginaga – Ligi-Athereiko HAEEan: 10
 - Muntorin : 12
- Azken bilakaera demografikoek erakusten dute gero eta biztanle gutiago daudela herri horietan

III. IRAKASKUNTZA GIRIXTINOA

III. 1. Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren azterketa eskualdeko ikastetxe girixtinoetan

III.1.1. Lehen maila

- 2004-2005ean, Irakaskuntza Girixtinoak 18 ikasle eskolatzen zituen eskualdean duen eskola bakarrean (Altaiko eskola), orohar eskualdean lehen mailan eskolatuak diren ikasle kopuruaren %10 (%25 Euskal Herri osorako) :
- Eskualdean kokaturiko Irakaskuntza Girixtinoko eskolak :
 - ↳ “parekotasun elebidun” ereduaren arabera euskararen irakaskuntza proposatzen du
 - ↳ ez du “lehen irakaskuntza” ereduaren arabera irakaskuntzarik eskaintzen
- Eskualdeko eskola Girixtinoan eskolatuak diren 18 ikasleetatik :

- ↳ 7k segitzen dute "parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza, orohar %39 (Euskal Herriko Irakaskuntza Girixtinoko ikastetxe guzietako %24,5)
- ↳ ez du batek ere "lehen irakaskuntza" ereduaren arabera euskararen irakaskuntzarik segitzen (Euskal Herriko Irakaskuntza Girixtinoko ikastetxe guzietako %2)
- ↳ 11k ez dute euskararen irakaskuntzarik segitzen, orohar %61 (Euskal Herriko osorako %73)

III.1.2. Bigarren maila

- Ez da Irakaskuntza Girixtinoko bigarren mailako ikastetxerik Atharratzeko eskualdean

III. 2. Epe luzeko programaziorako azterketa

Eskola Girixtinoetako euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren antolakuntzari dagokionez, Atharratzeko ezaugarriak ondoko hauek ditugu :

- "Parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza eskaintzen da eskualdeko eskola bakarrean
- Ez da 2. mailako ikastetxe girixtinorik Atharratzeko eskualdean
- "Parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntzak ez du segidarik Irakaskuntza Girixtinoko bigarren mailan eskualde horretan, ikastetxerik ez baita : Irakaskuntza Girixtinoko kolegio hurbilenak (Mauleko St François kolegioak) ez du irakaskuntza eredu hau eskaintzen

IV. SEASKA FEDERAZIOA

IV. 1 Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren azterketa eskualdeko Seaskako ikastetxeetan

IV.1.1. Lehen maila

- 2004-2005ean, 8 ikasle eskolatuak ziren Alozen kokatu eskualdeko ikastola bakarrean, orohar eskualdean lehen mailan eskolatuak diren ikasle kopuruaren %4,4 (%5,7 Euskal Herri osorako)

IV.1.2. Bigarren maila

- Eskualdean, ez da Seaska Federazioko 2. mailako ikastetxerik

IV. 2. Epe luzeko programaziorako azterketa

Seaska Federazioko ikastetxeei dagokienez, Atharratzeko ezaugarriak ondoko hauek ditugu :


- Eskualdeko ikastoletan eskolatuak diren 1. mailako ikasleen proportzioa ("murgiltze" ereduaren arabera euskararen eta euskarazko irakaskuntza) Euskal Herriko ahulenetarikoa da (%4,4, %5,7ren aurka, BAB eta Bidaxuneko eskualdeek bakarrik dituzte tasa apalagoak)
- « Murgiltze » ereduaren arabera euskararen irakaskuntzaren segidarik ez da eskualdeko kolegioetan

2. Partea


Epe luzeko programazioa - proposamena :

- orientabideak eta aurreikuspenak**
- erakunde publikoaren jarduera programa (2005 bukaera eta 2006)**


1. IRAKASKUNTZA PUBLIKOA



BAB-KO ESKOLA ETA KOLEGIO PUBLIKOAK



DONIBANE-LOHIZUNE ETA HENDAIKO ESKOLA ETA KOLEGIO PUBLIKOAK



I. IRAKASKUNTZA PUBLIKOA – LEHEN MAILA

1. mailako 145 irakaskuntza gune

Euskal herriko lehen mailako irakaskuntza gaur egun, 145 gunetan antolatua da zehazkiago:

- Ikastetxe berdinean haurrak hartzen dituzten 92 eskola :
 - Ama eskolako klaseetan bakarrik : 12 eskola
 - lehen mailako klaseetan bakarrik: 5 eskola
 - Ama eskolako lehen urtetik Lehen mailako 5. urtera : 75 eskola
- 2 edo 3 eskola ezberdinetan, kasuen arabera, ama eskolako Lehen Urtetik Lehen mailako 5. urtera ziklo osoa segitzen ahal duten ikasleei irakaskuntza proposatzen dieten 18 Herrien Arteko Eskola Elkargo (HAEE)
- Leku berean ama eskola eta lehen mailaz osaturiko 35 eskola-multzo

↳ orohar 1. mailako 145 irakaskuntza gune

Lurralde hedapen mailako euskara/frantsesa irakaskuntza elebidunaren egitura heinaren ideia zuzena izateko, komeni da aitzinago zehaztu dugun gisan, ikas gune kopuru orokorraren bidez, behatzea, ikastetxe kopuru orokorraren bidez baino, honek duen zentzu administratiboan

49 gunek “parekotasun elebidun” ereduaren araberako euskararen irakaskuntza eskaintzen dute, 96ek ez dute proposatzen

“Parekotasun elebidun” eredu pedagogikoaren arabera emana den euskara/frantsesa irakaskuntza, gaur egun dauden 145 guneetatik 49tan eskainia da 2005eko sartzeaz geroz, orohar :

- 92 eskoletatik 25etan :
 - 12 ama eskoletatik 1ean
 - 1. mailako irakaskuntza orokorra antolatzen duten 75 eskoletatik 24tan (ama eskolako 1. urtetik lehen mailako 5. urtera)
- Euskal Herriko 18 Herrien Arteko Eskola Elkargoetatik 7tan
- Leku berean ama eskola eta lehen maila bat biltzen dituzten 35 eskola-multzoetatik 17tan

Irakaskuntza hau **ez da proposatua 96 gunetan, orohar Euskal herriko irakaskuntza publikoko sareko 2/3etan.**

Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren egituraketa eta garapenerako ardatzak eskola publikoetan

Datozen 5 urteetan, euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren egituraketa eta garapena, eskola publikoen baitan, ondoko bi ardatzen inguruan antolatu beharko da :

1. ardatza : euskara/frantsesa irakaskuntza elebiduna jadanik proposatua den 49 guneak indartu

“Parekotasun elebidun” ereduaren arabera irakaskuntzan eskolatu ikasleen proportzioa eskualdeen artean azkarki aldatzen bada ere, euskara/frantsesa irakaskuntza elebiduna ezinbesteko errealitatea bilakatu da 49 gune hauetan, kasu gehientsuenetan, sail elebidun baten sortzeak gurasoengan izan duen arrakasta handia, iduriz, azkartzen baita denborarekin

Irakaskuntza publikoko lehen sail elebiduna sortu denetik duela 22 urte, ez da sekulan gertatu gurasoek ondotik irakaskuntza eredu hau bertan behera uztea nahi izatea, eta ondorioz klase bat hestea

Alderantziz, 49 sail elebidunen irekitzeak, kasu gehienetan, gurasoek, urteak pasa ahala, irakaskuntza honi emandako konfiantzari esker, ekarri du finkatu dela pixkanaka-pixkanaka eskainia zen ikastetxeen baitan

Irakaskuntza hau ama eskolako 1. urtetik lehen mailako 5. urtera proposatua den 42 guneetan (7 eskolatan, ziklo osoa ez da segurtatua), eskolako ikasleen erdia baino gehiago eskolatzen ditu (%20tik 100era tokien arabera)

Irakaskuntza hau ongi ibiltzen da jadanik dagoen 49 gune publikoen baitan, eta partaide guzien arreta atxiki behar du bere erakargarritasuna mantendu eta gune berean aurki daitezkeen kalitate berdineko bi eredu pedagogikoen arteko familien hautu librea bermatzeko

- ➔ Material pedagogiko ekoizpen, errienten formakuntza, ordezkatzeeen kudeaketa, ikastetxe mailan azken urteetan egindako indarrak beharko dira jarraitu, eskaini irakaskuntzaren kalitatea etengabe bermatzeko

EEPk hortara laguntza berezia ekarriko dio, gaur egun oraindik bukatuak ez diren diagnostiko lanetan oinarrituz, hauek euskarazko irakaskuntzaren antolakuntzaren ikuspegi kualitatiboaz gehiago ariko direlarik

Postu idekidurei dagokienez, euskara/frantsesa irakaskuntza elebidunaren ereduaren eskolatu kopuruen emendatze progresiboa ezagutzen duten 49 gune hauen talde pedagogikoak bortxaz handituko dira. Denbora berean, euskarazko irakaskuntzarako postuak eta frantsesezko irakaskuntzarako postuak, aldatuko dira bata besteen arabera, sistema batean edo bestean eskolatu ikasle kopuruen hainbatekoan

- ➔ Argi da zaila dela bilakaera honetaz aurreikuspen segururak jartzea postuei dagokionez. Halere, nahitaezkoa da, ez bada arrunt zuzena ere, kuantifikatzea, bereziki irakasleen formaziorako beharko diren baliabide mailan

Lan hau 2005eko urte bukaerako eramaten ahalko da, uztaian burutu diagnostiko kuantitatiboan, jadanik dauden 49 gune elebidunen baitan 2005/2006an eskolatu ikasle kopuruetan eta gune hauetarako emandako postuen mailan 2005eko sartzeari hartu erabakietan oinarrituz

2. ardatza : euskara/frantsesa irakaskuntza elebidunaren lurralde eskaintza azkartu

Parekotasun elebidun ereduaren araberrako euskarazko irakaskuntza bat eskaintzen duten 49 guneen kokapenak lurralde hedapen logika bati erantzuten dio jada: hiri eta herrien burguetan, eskolatu ikasle kopuru handienak dituzten guneetan plantatzea

Gaur egun euskararen irakaskuntzarik eskaintzen ez duten gune eta sektoreetara hedatzeak beharko du orain arte abiatutako desmarxa segitu, jadanik dagoen dispositiboa hobetu eta osatzeko asmoz, lurralde hedapenaren ikuspegitik

Halere, gune berrien irekitzearen programazioak ez luke bakarrik lurralde antolakuntza logika soil bati erantzun behar

Gune batean euskarazko irakaskuntzaren sortu eta finkatzeko, beharrezkoa da hezkuntza-sistemaren eragile ezberdinen kooperazioa edo partaidetza azkarra bilatzea: ikasleen guraso, irakasle, herrietako arduradunena...

Eremu honetan, euskararen aldeko hizkuntz politika baten definizioak hunkitzen dituen bizi sozialeko arlo guzietan bezala, azken funtsean, partaidetza librearen printzipioaren errespetua (erabaki bortxatua guziz baztertuz) eta egiazko hautuaren baldintzak sortuko dituen desmarxa boluntarista argi baten abian jartzea adostea beharrezkoa da

Irakaskuntza publikorako euskararen eta euskarazko irakaskuntza eskaintza mailako estrategia instituzional baten definizioa bortxaz bi printzipio hauetan oinarrituko da. Beraz, komeni da heldu diren 5 urteetarako euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren eskaintza hobezin baten baldintzak bilatzea, hobeki egituratu lurralde hedapen bat eta benetazko eskaera baten egiaztatzearen arteko elkargunean.

Gaur egun irakaskuntza hau eskaintzen ez duen gune batetan euskara/frantsesa sail elebidun bat ireki baino lehen, bi aurre-baldintza badira :

- Hunkitua den herriaren printzipiozko akordioa, sailaren irekitzeko beharrezkoak izan daitezkeen eraikuntza aldaketak berak bere gain hartuz
- Aipaturiko eskolan jadanik eskolatuak diren ama eskolako 1. urte edo 2. urteko ikasleen guraso kopuru nahiko baten engaiamendua edo urtean zehar edo ondokoan eskola horretan beraien haurra ezarriko duten gurasoena

Aipatu guraso eta herrien eskakizunak beharko du ikastetxe baten baitako irakaskuntza elebidunaren antolakuntza modalitateei buruzko informazio objektibo batetan oinarri daitezkeen partaidetza librearen printzipioa errespetatu.

Logika hori segitzean, euskara/frantsesa irakaskuntza elebidunaren eskaintzarik batere edo ahula duten gune eta eremuen azterketan, ezaugarri andana bat agerrarazten ahal dugu eta ondoko lan orientazio eta programa ondorioztatu :

- 1)** Gaur egun, euskara/frantsesa irakaskuntza elebiduna batere eskaintzen ez duten 96 guneetatik, 39k (hauetatik 4 Baionan) 20 ikasle baino gutiago eskolatzen dituzte ama eskolako hiru klaseetan (Ama eskolako 1. urtea, 2. urtea, 3. urtea)

Barreiatze hau trabagarria gertatzen da klase elebidun baten irekitzeko momentuan, honen lortzeko, denboraren erdian, talde-klase ezberdinak osatzeko kopuru mailetara heldu behar baita euskarazko irakaskuntza hautatu duten ikasleentzat eta hizkuntza bakarreko eredia hautatu dutenentzat

Haatik, gehienetan Euskal Herri barnealdean kokatuak diren gune hauetan, baita eremu euskaldunagoetan ere (Oztibarre, Baigorri...) ikasketa elebiduneari sar daitezkeen ikasle kopurua handia da, irakaskuntza hau eskainia den ondoko guneetan lortutako eskolatze tasak ikusita

Aterabidea, ikastetxe batzuk (irakasle, guraso..) eta herri edo Herrien Arteko Eskola Elkargo ezberdinen arteko adostearen bidez baizik ez da ateratzen ahal, aukera hauen aztertzeko :

- Edo hainbat eskolen artean, zehaztea zoinek izan dezakeen elkar gune baten funtzioa, herri eta ikastetxe multzo baterako euskara/frantsesa irakaskuntza elebidun eskaintza baten antolatzeak
- Edo euskararen irakaskuntzaren bitartez, irakaskuntza hau eskainia den ondoko gunetan sartzeko aukera eman interesatuak diren familia batzuei

Irekidura berriak programatu baino lehen, EEPek proposatzen du 2006 urtean zehar, gune ezberdin hauetan hunkituak diren partaide ezberdinekin elkartuz prestakuntza lan bat eramatea, Akademiako Ikuskariarekin, eta ondoko jardunbidearen arabera:

- EEP harremanetan sartzten da eskola edo Herrien Arteko Eskola Elkargo hauek kokatuak diren eremu geografiko berdineko hainbat herriekin, desmartxa honen aurkezteko;
- Adostasun batetara heltzen bada ekimena segitzeko, EEP eta herriek eremu horretan euskara/frantsesa irakaskuntza baten antolatzeak aukera ezberdinak aztertzen dituzte. Haien agintaritzaren baimena ukan ondoren, hunkituak diren eskualdeetako lehen mailako arduradunak gomiatuak dira desmartxa honetan parte hartzea;
- Atxikitako aukeren arabera, EEP eta herriek elkarrekin zehazten dituzte, irekitze proiektu baten kasuan haien haurrak sail elebidunean sartzeko gogoak duten familien zerrendatze modalitateak, edo jadanik dagoen ondoko gune batean sartzeko baldintzak
- EEPek burutu daitezkeen irekitze programaketa bat proposatzen du 2007ko sartzetik goiti, urte bat edo gehiagorik lortutako emaitzen arabera

Lan honek gehienez hunkituko ditu irakaskuntza elebidunik proposatzen ez duten irakaskuntza publikoko guneen erdia baino gehiagorik osatuak diren Euskal Herriko eskualdeak.

- Donapaleuko eskualdea (*14etatik 2 gune elebidun eskualdean irakaskuntza elebidunerako*) : 10 gune hunkituak dira : Amenduze/Gabadiko Herrien Arteko Eskola Elkargoa, Arberatze/Arboti/Etxarriko Herrien Arteko Eskola Elkargoa, Bunuze/Donaixtiko Herrien Arteko Eskola Elkargoa, Bithiña, Domintxine, Iholdi, Jutsi, Landibarre, Larzabale, Ozaraine
- Atharratzeko eskualdea (*6etatik gune elebidun 1 eskualdean irakaskuntza elebidunerako*) : 5 gune hunkituak dira : Liginaga/Ligi-Athereiko Herrien Arteko Eskola Elkargoa, Gamere-Zihiga, Larrañe, Muntori, Santa-Grazi
- Donibane-Garaziko eskualdea (*8etatik 3 gune elebidun eskualdean irakaskuntza elebidunerako*) : 5 gune hunkituak dira : Ainhize/Lakarrako Herrien Arteko Eskola Elkargoa, Ezterenzubi/Eiheralarreko Herrien Arteko Eskola Elkargoa, Arnegi, Izpura, Donazaharre
- Mauleko eskualdea (*13 guneetatik 6 elebidun eskualdean irakaskuntza elebidunerako*) : 5 gune hunkituak dira : Aiiñharbe, Mithikile, Gotañe, Sohüta Hoki, Garindañe

2) Euskara/frantsesa irakaskuntza elebiduna eskaintzen ez duten irakaskuntza publikoko 96 guneetatik, 57k izan dezakete ikasle kopuru garrantzitsu bat, bainan, lurralde hedapen mailan, ezaugarri ezberdinak dituzte, kudeaketa berezituak eskatuz

- a) hauetariko 2/3enetarako, komenigarria daiteke, aitzineko punduan aurkeztutako desmartxan bezala, elkar gune logika bat hobestea

behar daitezke hemen, gune guzietarako, agerrarazi, jadanik dauden ikastetxe elebidunekin osagarritasunez, hunkituak diren auzotegi eta herrien geografiaren ikuspegitik ongi doakion eskola sare baten lehen matrizea osa dezaketanak

Lana daiteke hautetsi eta hainbat ikastetxeetako heziketa-sistemaren partaideekin aztertzea gunerri berri batzuen idekitze bideragarritasuna

Jadanik atxiki daitezke ondoko herri hauei proposatu beharreko gogoeta pista batzuk :

- **Bokaleko herria :**
 - Identifikatu beharreko gunerri bat herrian jadanik dauden hiru ama eskolen artean (eta aurreikusteko segida bat epe luzera lehen mailako bi eskoletako batetan)
- **Baionako herria :**
 - Eskuin bazterrean kokatuak diren zazpi eskolen edo ikastetxeen artean (ama eskola/LM) gunerri bat ikusi, irakaskuntza hau jadanik eskaintzen duen San-Ezpiritun kokatu *Jules Ferry* eskolaren osagarri gisa
 - Ezker bazterrean kokatuak diren zazpi ama eskola eta lehen maila edo ikastetxeen artean (ama eskola/LM) gunerri bat ikusi, Elkar gunerri Beyris auzogunean kokatu *Jean Moulin* eskolaren osagarri gisa
- **Angeluko herria :**
 - Hiri-erdian kokatu lau ama eskolen artean hirugarren gunerri bat ikusi, herriaren ipar eta mendebaldeko eremuetan irakaskuntza hau jadanik eskaintzen duten *Herriot* eta *Jaurès* eskolen osagarri gisa
- **Miarritzeko herria :**
 - Gaur egun *Alsace* ama eskolan eskaintzen baina segurtatua ez den irakaskuntzaren segida bermatu (*Thermes Salins*-eko lehen maila)
 - Beste bost ama eskolen artean hirugarren bat ikusi *Alsace* eta *Reptou* eskoletan eskaintzen denaren osagarri gisa
- **Errobi Aturri Herrien Elkargoaren baitan bildutako herriak :**
 - Mugerreko hiru eskola publiko eta Lehuntza, Urketa eta Milafrangako eskolen artean gunerri bat edo bi ikusi Hiriburuko *Quieta* eskolaren osagarri gisa, hau baita kantonamenduko zortzi eskola publikoetatik euskara/frantsesa irakaskuntza elebiduna eskaintzen duen bakarra
- **Bidaxuneko Herrien Elkargoaren baitan bildutako herriak :**
 - Bidaxune, Gixune, Samatze eta Akamarreko lau eskola publikoen artean gunerri bat ikusi

↪ orohar gaur egun hornituak ez diren berrogoi bat gunerrietatik 7tik 9 elkar gunerri identifikatu behar

- b) Bestalde, haien kokagunearengatik, euskara/frantsesa irakaskuntza elebidunik eskaintzen ez duten beste ikastetxerik ez duten herri edo eskualdeen baitako elkar gunerriak osa dezakete ikuspegi berdinarekin herri edo herrien arteko hamar bat gunerri bil ditzakegu
- Miarritze, Baiona eta Bidaxune eskualdeen bazterrean diren Arbona, Basusarri eta Bardozeko eskolak
 - Mehaine/Armendaritze eta Behauze/Oragarre/Amorotze/Martxuta/Arrutako bi Herrien Arteko Eskola Elkargoak, Donapaleuko eskualdean
 - Sarrikota/Ezpeize eta Bildoze/Onizepiako bi Herrien Arteko Eskola Elkargoak Mauleko sektorean
 - Bidarte eta Getariako eskolak Donibane-Lohizuneko eskualdean
 - Ahurtiko eskola Hazparneko eskualdean

c) Azkenik, parekotasun elebidun ereduaren arabera euskararen irakaskuntzarik eskaintzen ez duten beste zazpi gune, eskaintza hau bestalde jadanik dagoen herrietan kokatuak dira :

- Hobe daiteken lurralde hedapen batekin, herriko eskaintzaren ikuspegitik :
 - Donibane-Lohizuneko hirirako, bertan, jadanik dauden lau ikastetxeetatik batean baizik ez baita proposatua
 - Uztaritzeko hirirako, bertan irakaskuntza elebidun publikoa *Arruntzeko* eskolan baizik ez baita proposatua, eta herriko beste eskolekin konparatuz (*Erdialdea eta Heraitze*) ikasle gutiago eskolatzen ditu
- Ikastetxe sare trinko hurbil batekin Hendaia *Hondartza* eta Urruña *Sokoarako*

EEPeke proposatzen du 2a, 2b eta 2c punduetan deskribatu eskualde ezberdinetan prestakuntza lana eramatea, Akademiako Ikuskariarekin adostuta.

Lehentasuna emanen zaie 2005eko Abendu bukaerako, 2a eta 2b punduetan aipatu guneei, eta 2006 urtean zehar besteei, ondoko jardunbidearen arabera.

- EEPak eskakizuna luzatzen die delako herriei haien desmartxa ezagutarazteko (Urriaren bukaeran)
- Desmartxari segida bat emateko akordioa lortzen bada, EEPak eta herriak elkarrekin zehazten dituzte sail elebidunean haien haurrak jartzeko gogoia duten gurasoen zerrendatzeko moldeak (lehen urte, bigarren urteetako haurren guraso edo etorkizunean haien haurrak sail elebidunean sartzeko gogoia duten guraso markatuak). Haien agintaritzaren baimena ukan ondoren, hunkituak diren eskualdeetako lehen mailako arduradunak gomiatuak dira desmartxa honetan parte hartzea; Familien kontsultatzeko moldeak alda daitezke herriak sail elebiduna berri baten irekitzeko hautatuko duen gune baten ala bestearen arabera (Azaroan abian jarri beharreko lana)
- Eraitzen bilduma eta irekitze baterako baldintzak betetzen dituzten guneen identifikazioa Abendu bukaera baino lehen
- Burutu daitezkeen irekitzeen programaketa proposamen bat aurkeztu :
 - 2006ko Urtarrilerako hastapenean, lana bukaera arte eraman ahal izan den gune guztiendako ➔ obratzea 2006ko sartzetik goiti eta ondokoetan lortutako emaitzen arabera
 - 2006ko urte bukaeran besteentzat ➔ obratzea 2007ko sartzetik goiti eta ondokoetan lortutako emaitzen arabera

II. IRAKASKUNTZA PUBLIKOA – BIGARREN MAILA : KOLEGIOAK

Euskal herriko kolegio publikoek 7 000 ikasle baino pixka bat gehiago eskolatzen dituzte, hauetatik %95ak irakaskuntza orokorreko klaseetan. Ikasle hauei harrera egiteko, irakaskuntza publikoko 17 ikastetxe daude, lurralde osoan hedatuak.

Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren ikuspegitik :

- "Parekotasun elebidun" ereduko klaseek 425 ikasle eskolatzen dituzte, orohar ehun bat inguru mailaka. Ikasleen %6 inguruk segitzen dute irakaskuntza hau
- "opziona" ereduaren arabeko euskararen irakaskuntzako klaseek 425 ikasle eskolatzen dituzte, orohar Euskal Herriko ikasleen %8 baino pixka bat gehiago

Denbora berean, lehen mailako eskola publikoetan, bi eredu pedagogiko hauetan eskolatuak dira :

- ikasleen %18a "parekotasun elebidun" eredurako
- ikasleen %7a "opziona" irakaskuntzarako

Ezberdintasun handi hau lehen maila eta kolegioen artean euskararen eta euskarazko irakaskuntza segitzen duten ikasleen proportzioan (%25 eta %15, bi eredu pedagogikoen osotasuna hartzen bada) 3 moldez azaltzen da :

- Euskara/frantsesa irakaskuntza elebidunaren indartze progresiboak, oinarritik abiatuz, bere ondorioak mekanikoki berantago ekartzen ditu bigarren mailan eskolatu ikasleengan
- Euskararen segida eskolatik kolegiara ez da oraindik segurtatua ikastetxe guzietan
- Lehen mailako euskararen irakaskuntza sareetan eskolatu ikasleek ez dute denek hautatzen irakaskuntza hau kolegioan segitzea, aukera eskaintzen bazaie ere

Euskararen eta euskarazko irakaskuntza segitzen duten ikasleen artean, bi eredu pedagogikoen arteko ikasleen banaketa aldatzen da hizkuntzaren erabilpen eta ikaspen oren kopurua ahulena duenaren alde :

- Lehen mailan, "parekotasun elebidun" ereduaren arabeko irakaskuntza segitzen duten ikasleen kopurua hiru aldiz handiagoa da "opziona" ereduaren direnean baino
- Kolegioan, "opziona" irakaskuntza segitzen duten ikasle kopurua %57koa da

Komenigarria da azpimarratzea, lehen mailan ez bezala, bertan sail elebidun baten idekitzeak irakaskuntza opzionala ordezkatzeko duela, azken hau proposatua zen kasuan, bigarren mailako irakaskuntzan, kolegioek kasu gehienetan bi ereduak eskaintzen segitzen dute gune berdinean

Euskararen ikaskuntzan kalitate handiena lortzeko gogoz, gaur egun beharrezkoa da lehentasuna euskara/frantsesa irakaskuntza elebidunaren indartzeko ahaleginetan jartzea.

Heldu diren asteetan EEParen diagnostikoko lanen kalitate sailak dudarik gabe argitzapen zehatzak ekarriko ditu irakaskuntza honen antolakuntzak izan ditzaken abantaila eta hobekuntzak hobeki preziatzeko

Komenigarri izanen da, adibidez, euskararen irakaskuntza gaur egun irakatsiak ez diren ikasgaia batzuekiko hedapen progresibo baten alde jotzea edo talde-klase zehatzak osatzea irakaskuntza elebidunerako (bi maila ezberdineko ikasleak bildu gabe, edo "opzio" ereduaren eskolatu ikasle batzuekin)

Euskara/frantsesa irakaskuntzaren irakurgarritasun on bat, bigarren mailan, biziki garrantzitsua da sail honen erakargarritasunerako eragina baitu aitzineko mailan, lehen mailan

Euskara/frantsesa irakaskuntza elebidunarekin betan, opzinezko irakaskuntza osagarri egokia izaten ahal da ikastetxe batek proposatzen duen irakaskuntza eskaintzarako, famili kopuru nahiko batek erakusten badu beraien haurrak formula horren arabera euskararen irakaskuntza hasi edo segitzeko xedea

Irakaskuntza hau, irakaskuntza elebidunetik bereziki antolatu behar da bi sistema hauek dauden ikastetxeetan eta lehentasuna eman behar zaio irakaskuntza elebiduna antolatzeko asmorik ez den kolegioetan

Bigarren mailako irakaskuntza publikoan euskara/frantsesa irakaskuntza elebiduna lehenik indartzeko asmoak ondotik deskribatu desmarta gidatu du, urte anitzeko programaketa mailan, heldu diren 5 urtetarako

1) Eskola eta kolegioaren arteko irakaskuntzaren segida bermatu eskualde geografiko guzietan

Euskal herriko 17 kolegio publikoetatik, 9k jadanik proposatzen dute euskara/frantsesa irakaskuntza elebiduna :

- Hazparneko *Elhuyar*, mauleko *Argia*, kanboko *Errobi*, Donibane-Garaziko *La Citadelle*, Hendaiaiko *Irindatz*, Donibane-Lohizuneko *Ravel* eta *Chantaco* kolegioek horrela, segida bat eskaintzen diote lehen mailako euskara/frantsesa irakaskuntza elebidunari beraien sektoreetan, bertan irakaskuntza publikoko ikasleen proportzio dezente bat eskolatua delarik
- BABko eskualdeetan, euskara/frantsesa irakaskuntza elebiduna Miarrizko *Fal* kolegioan eta Baionako *Marracq* kolegioan antolatua da

Horrelako irakaskuntzarik ez da gaur egun Baigorriko *J. Pujo*, Donapaleuko *Berard*, Atharratzeko *Jaureguy*, Bidaxuneko kolegioetan, baita ere Miarrizko *Rostand*, Baionako *Camus*, Angeluko *Endarra* eta Bokaleko *Barbusse* kolegioetan ⇒ orohar 8 ikastetxe

Bestalde, kolegio berri bat programatua da Hiriburun, eta 2008ko sartzean irekiko da

8 ikastetxeetako egoera propioa aztertuz, ondoko oharrak azpimarra ditzakegu :

- Baigorriko *J. Pujo* kolegioa betetzen duen eskola publiko sarearen erdiak, lehen mailan euskara/frantsesa irakaskuntza elebiduna segitzen du (portzentaia hau 63koa da ama eskoletan)
- Halere, segida ez da segurtatua kolegio honen mailan. Ikastetxe ttipi bat da eta klase bat du maila bakoitzeko. Izan ere, heldu diren 5 urteetan eskualdeko eskola elebidun publikoetatik aterako diren promozioetako ikasle kopuruek euskara/frantsesa irakaskuntza elebidun irakaskuntzaren antolakuntza justifikatzen dute
- Donapaleuko *Léon Bérard* eta Atharratzeko *Jaureguy* kolegioak, Baigorrikoa ez bezala, irakaskuntza publikoak beste eskualdeetako batez bestekoa baino lurralde hedapen apalagoa duten eskualdeetan kokatuak dira : 14 guneetatik 2 Donapaleuko eskualderako, 6 guneetatik 1 Atharratzeko eskualderako

Egoerak laster behar luke kopuru mailan molde baikor batez aldatu Donapaleuko eskualdean, eta Atharratzeko kolegioaren kopuruak emendatzen dira, eskola publikoetako sare bakarretatik at kokatua delako

Euskara/frantsesa irakaskuntza elebidun eskaintzarik ez izateak bi kolegio hauetan trabagarriak dira irakaskuntza elebidunaren indartzerako eskualdeko lehen mailako eskoletan

- BABko 3 eskualdeetan, lehen mailan gaur egun jadanik dauden 8 guneetako eskola publiko elebidunetatik aterako diren kopuruak azterketak agerrarazten du heldu diren 4 urteetan eskualdeko kolegioetako ikasle elebidun kopurua bikoiztuko daitekeela

Beraz, logikoa eta justifikatua dirudi irakaskuntza elebidunaren egitura BABko kolegioetan ondoko 4 ikastetxeen inguruan konfiguratzeko :

- Irakaskuntza hau jadanik eskaintzen duten 2 ikastetxe :
 - Klase bat maila bakoitzeko Miarritzeko *Fal* kolegioan (Miarritzeko eskola elebidun publikoetako segida hartuz)
 - Klase bat maila bakoitzeko Baionako *Marracq* kolegioan (Baionako eskola elebidun publikoetako segida hartuz)
- Eskaintzen ez duten 2 ikastetxe :
 - Klase bat maila bakoitzeko Angeluko *Endarra* kolegioan (Angeluko eskola elebidun publikoetako segida hartuz)
 - Klase bat maila bakoitzeko Hiriburun irekiko kolegioan (Hiriburuko kantonamenduko eskola elebidun publikoetako segida hartuz)

Ahal bezain laster pentsatu behar da *Endarran* irekitzea, ikasle kopuru nahiko batek izena ematen badu

Ikastetxea sortu orduko pentsatu behar da Hiriburun irekitzea, ikasle kopuru nahiko batek izena ematen badu

Heldu diren 5 urteetan, ez daiteke sail elebidun bat ere irekitzeko asmorik Baionako *Camus*, Miarritzeko *Rostand*, Bokaleko *Barbusse* eta Bidaxuneko kolegioetan. Aldiz, opzione sistemaren arabera euskararen irakaskuntzaren proposamena molde egokian bertan koka daiteke aski eskaera balitz

Elementu hauek kontutan hartuz, EEPak proposatzen du aztertzea ea egingarria den klase elebidun bat irekitzea Baigorri, Atharratze, Hiriburu (sortuko delarik) Donapaleu eta *Endarra* kolegioetan.

Egituratzeko gauzatuko da ondoko jardunbidearen arabera, eta Akademiako Errektoritzarekin adostuta :

- ➔ Haien agintaritzaren baimena ukan ondoren, hunkituak diren kolegioen zuzendariak gomiatuak dira desmarxta honetan parte hartzea;
- ➔ Finkatuak izanen diren modalitatetan oinarrituz, EEPak, hemendik 2005eko bukaerara (irekidura baino lehen, Hiriburuko kolegioari dagokionez) beraien haurra, irekitzen bada, 6. elebidunean sarrarazi nahi duten familiak zerrendatzen ditu, eskualdeko lehen mailako eskola publikoetako sarean oinarrituz
- ➔ Emaitzen arabera, eskaera kopurua nahikoa bada, irekitzeak 2006 edo 2007tik goiti proposatuak dira
- ➔ Ez bada aski ikaslerik, zerrendatze lan hau berrituko da urtero garai berdinean, ondoko sartzeari egin daitekeen programaziorako

2) Irakaskuntza elebidunaren garapen progresiboa segitu Euskal Herriko kolegio publikoetan

Kolegio publikoetako klase elebidunetako ikasleak beraien eskualdeko lehen mailako eskola publikoetatik etorririk, lehen mailako 2., 3., 4. eta 5. urteetako klaseetan eskolatu kopuruaren azterketak laguntzen du heldu diren 5 urteetan kolegioko 6.eko sartzeari bilakaera aurreikustea

Azterketa eramana izan da eskualde batetik bestera arrunt ezberdinak agertzen diren oraingo lehen mailako 5. urtea/kolegioko 6. ratioak oinarritzat hartuz :

- 1etik 4erako ratioa Hazparne eta Donibane-Lohizuneko kolegioetarako
- 1etik 3rako ratioa Donibane-Garaziko kolegioa eta BABko kolegioetarako
- 1etik 2rako ratioa Kanboko kolegiarako
- 2tik 3rako ratioa Hendaia eta Mauleko kolegioetarako

Halere, erran dezakegu ratio hau pixka bat hobetuko dela ahula den eskualdeetan kolegioko irakaskuntza elebidun publikoaren irakurgarritasuna hobetzearekin batera

Emitza ezberdinak irakurriz, ondoko aurreikuspenak aipa genitzake ondoko 5 urteetarako :

- Hazparneko kolegioa : klase elebidun baten mantentzea mailaka
- Mauleko kolegioa : sar daitekeen ikasle kopurua bikoiztuko da 2008ko sartzetik goiti, oraingo egiturak, klase bat mailaka, xurga dezake emendatze hau
- Kanboko kolegioa : sar daitekeen ikasle kopurua bikoiztuko da 2006 eta 2009 artean. 2 klasetako egitura batera heltzea aurreikusi behar daiteke 2009ko sartzera
- Donibane-Garaziko kolegioa : sar daitekeen ikasle kopurua bikoiztuko da 2006 eta 2009 artean, baina CM2tik 6.era pasatuko den kopuru berdinarekin, oraingo egiturak, klase bat mailaka, xurga dezake emendatze hau
- Hendaiaiko kolegioa : kolegioko eskolatze bikoizketak eragina izan dezake 2 klasera heltzeko maila bakoitzeko 2008ko sartzetik goiti
- *Ravel* eta *Chantaco* kolegioak : 40 ikaslez baino gehiagoz emendatuko da Donibandar bi kolegioen kopurua 2008ko sartzetik goiti, eta horrek bikoiztaraz dezake bi kolegioen harrera egitura

3) Postuen arloko aurreikuspenak

Aurreikus daitezkeen bilakaera hauetan oinarrituz, heldu diren urteetan Euskal Herriko kolegio publikoei ekarri behar liezazkieken baliabide berrien lehen estimazio bat egin genezake, irakaskuntza elebiduneko sailen indartze edo sorrerako

Irakaskuntza elebidunaren eskaintzaren hedapena Atharratze, Baigorri, Donapaleu, Angeluko *Endarra* eta sortu beharreko Hiriburuko kolegioari, eta jadanik dauden sail elebidun oso edo hauen parte baten bikoizketak *Chantaco*, *Ravel*, *Ilandatz* eta *Errobi* kolegioen baitan burutu aitzin, kopuruen neurtze zehatz bat beharko dute

Zaila da beraz aitzinetik aurreikustea zoin sartzera kolegioko eskolatze kopuruek beharko dituzten postu berriak

Halere pentsa daiteke azkartze eta irekitze berrien dispositiboa abian jarri beharko dela heldu diren 6 urteetan eta euskarazko irakaskuntza oren berriak (180 eta 230 oren artean) hornituak izanen direla baliabide berrien emakidaz eta parte baterako delako kolegioei jadanik emandako baliabideen hedapen berri baten bidez

Bortxaz arrunt zuzenak ez diren iragarpen hauek beharko dira urte guziz aktualizatu benetan buruturiko irekitzeak ikusiz, baina badute interes bat heldu diren urteetarako formatu beharreko kolegioetako irakasle kopuruen beharrak agerrarazten baitituzte : orohar 10 eta 13 postu artean

III. IRAKASKUNTZA PUBLIKOA – BIGARREN MAILA : LIZEOAK

Euskal herriko lizeo publikoek euskararen irakaskuntzaren arloan proposatzen duten bigarren mailako irakaskuntzaren ezaugarriak ondoko hauek ditugu :

- Irakaskuntza orokorreko sailetan eskolatuak diren ikasleei baizik ez zaie proposatzen euskararen eta euskarazko irakaskuntza baten segitzeko aukera
- Aukera hau ez zaie irakaskuntza teknologiko eta profesioaletako sailetan eskolatu 3 500 ikasleei eskaintzen



- Irakaskuntza orokorreko 6 lizeoetatik, guziki "opzio" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza bat proposatzen dute maila bakoitzeko (2., 1., Terminala) gehienez 15 ikaslek segitzen dute Miarritzeko *Malraux*, Xiberoko Sohütan eta Donibane-Lohizuneko *Ravel* lizeotan, Baionako *Cassin*en 18 ikaslek segitzen dutelarik maila bakoitzeko eta 27k Donibane-Garaziko *Navarre* lizeoan

Orotara, 200 ikasle baino pixka bat gehiagok segitzen dute irakaskuntza hau Euskal Herrian, orohar irakaskuntza orokorreko klaseetan eskolatu ikasleen %6ak

- Irakaskuntza orokorreko 5 lizeoetatik bik proposatzen dute, 137 ikaslek segitzen dutena, "parekotasun elebidun" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza bat :
- orohar 24 ikasle maila bakoitzeko Donibane-Lohizuneko *Ravel* lizeoan

- orohar 21 ikasle maila bakoitzeko Donibane-Garaziko *Navarre* lizeoan

“Parekotasun elebidun” ereduaren arabeko euskararen irakaskuntza segitzen duten ikasleen proportzioa %3ra heltzen da (ratio berdina irakaskuntza publikorako %6koa da kolegioetan eta %18koa lehen mailako eskoletan)

Elementu hauek kontutan hartuz eta arrazoi berdinentzat, kolegioetarako diseinaturiko orientazio nagusiak, lizeoetarako aplikatzen dira

Lehentasuna eman behar zaio, beraz, irakaskuntza segida segurtatzeari, 3.a arte irakaskuntza elebidun sarean sartu eta lizeoan segitu nahi duten ikasle guzientzat

Azken finean, euskara/frantsesa irakaskuntza elebidun egitura, molde orekatuan osatuko daiteke urte askotarako Euskal Herriko lizeo publikoetan, 3 elkar guneren inguruan antolatuz :

- 2008tik goiti, progresiboki maila bakoitzeko 2 klasetan osatuko daitekeen Donibane-Lohizuneko *Rave*/lizeoa (Hendaia eta Donibane-Lohizuneko kolegio elebidunetako ikasleak hartuz)
- Jadanik dauden edo sortuko diren Euskal Herri barnealdeko kolegio elebidun publikoetan oinarrituz bere harrera egitura azkar dezake Donibane-Garaziko *Navarre* lizeoak (ikus aitzineko pundua)
- Euskara/frantsesa irakaskuntza elebidun bat irekiz, BABko kolegioei eta Hazparne eta Kanboko ikasleei irakaskuntza segida bat berma liezaiekeen Baionako *Cassin* lizeoan, 3. elkar gunen bat irekiz irakaskuntza honen segitzeko aukera eskaintzeko

Euskal Herriko kolegio publiko elebidun guzietarako mailaka eskolatu batez besteko ikasle kopurua 106koa zen 2004/2005ean

Lor daitekeen ikasle kopuru honek egin dezake 2006ko sartzean berean, 3. irakaskuntza elkar gunen bat irekitzea Baionako *Cassin* lizeoan justifikatzen du

Kolegio mailan proposatu duen bezala, EEPak proposatzen du aztertzea ea egingarria den klase elebidun bat irekitzea Baionako *Cassin* lizeoan errektoretzaren kontzertazioarekin, ondoko prozeduraren arabera :

- Haien agintaritzaren baimena ukan ondoren, ikastetxeko zuzendariak desmartxan elkartzen dira.
- EEPak, hemendik 2005eko bukaerara beraien haurra, irekitzen bada, 2. elebidunean sarrarazi nahi duten familiak zerrendatzen ditu, eskualdeko kolegio publiko elebidunetako sarean oinarrituz
- Eraitzen arabera, eskaera kopurua nahikoa bada, eskakizun batek justifikatzen duen irekitzea 2006tik goiti proposatua da
- Ez bada aski ikaslerik, zerrendatze lan hau berrituko da urtero garai berdinean, ondoko sartzean egin daitekeen programaziorako

Bestalde, 2006 urtean zehar, EEPak proposatzen du, Errektoretzareki adostuz, opzione ereduaren arabeko euskararen irakaskuntza proposatzeko bideragarritasuna aztertzea eta “parekotasun elebidun” eredurik irekitzeko asmorik ez luketen irakaskuntza orokorreko lizeoetan (*Malraux*, Sohüta) iraunaraztea heldu diren urteetan.

Urte anitzeko baliabideen kudeaketaren ikuspegitik, *Cassin* lizeoan sail elebidun baten irekitzea eta gerta daitekeen *Rave*/lizeoaren bikoizketarako 18 eta 24 irakaskuntza oren artean gehitu behar daitezke bi lizeo hauetan

→Orohar 36 eta 48 oren artean (2 edo 3 postu) 2006eko sartzetik goiti hornitzeko daude (sailen irekitze egunen arabera alda daitezkeen urteko erritmoetan), baliabide berri emakida bidez, edo jadanik dauden baliabideen hedapen berrien bidez

2. IRAKASKUNTZA GIRIXTINOA

Euskal Herriko Irakaskuntza Girixtinoko sarea irakaskuntza 82 gunetan antolatua da :

- 55 gune lehen mailako irakaskuntzarako (ikasleak ama eskolako lehen urtetik Lehen mailako 5. urtera hartzen dituzten 51 eskola daude eta administratiboki bereziak eta toki berean ama eskola bat eta lehen maila bat biltzen dituzten 4 irakaskuntza gune daude)
- 19 kolegio (hauetariko 3k, toki berdinean kokaturiko lizeo batekin partekatzen dute zuzendaritza)
- 8 lizeo (lizeo profesionala, lizeo teknologiko eta profesionala, 2 lizeo orokor, teknologiko eta profesional 2 lizeo orokor eta teknologiko, irakaskuntza orokorreko 2 lizeo)

Irakaskuntza Girixtinoko klase guziak kontratu pean dira Estadoarekin, honek irakasle guziak ordaintzen ditu (kontratupeko irakasle pribatuen zuzenbide publikoko estatutua)

Horrela, ikastetxe bakoitzak podere publikoek emandako ibil molderako diru-laguntzak lortzen ditu (herriko etxetik, kanpotegiko diru-laguntza...), hauek irakaskuntza publikoan eskolatu ikasle baten kostuaren araberrako legearen bidez kalkulatu da (irakaskuntzen antolakuntzarako bakarrik)

Marko juridiko berdinak balio du Irakaskuntza Girixtinoko eskoletarako eta Seaskaren baitan federatuak direnentzat, baina sistema bakoitzak ditu bere antolakuntza molde berdinak

Irakaskuntza Girixtinoko eskolak juridikoki 1901 legearen araberrako "Irakaskuntza Girixtinoko Kudeaketa egitura, OGEC" deituriko elkarte gisa antolatuak dira, eta honek, kasuen araberrako, ikastetxe bat edo gehiago kudeatzen ahal dituzte. Egiturak departamendu, herrialde eta nazional mailan federatuak dira

Ikasleen gurasoen elkarteak (APEL) paraleloki egituratzen dira departamendu, herrialde eta nazional mailan (Euskal Herriko lurraldeak antolakuntza propioa izanik ikasleen gurasoei dagokienez), baina ez kudeaketa egituren gisan. Hau da ikastoletarako abian jarri sistemarekin duen ezberdintasun nabarietariko bat, bertan ikasleen gurasoak kudeatzaileak baitira

Bestalde, orientazio politikoak hezkuntza-sistemako partaide ezberdinen ordezkariak (guraso, irakasle, ikastetxeetako zuzendari, kudeaketa egiturak...) biltzen dituen Irakaskuntza Girixtinoko departamendu, herrialde eta nazional mailako batzordeetan eztabaidatzen dira, hauen batzorde eragilea elizako agintaritzak izendatu diozesiar zuzendariak kudeatzen dutelarik

Marko hau kontutan harturik, euskarazko eta euskararen irakaskuntzaren egituraketaren garapenaren problematika ondoko elementu hauen bidez agertzen dira :

- irakaskuntza publikoaren gisan, euskarazko eta euskararen irakaskuntzaren garapen, 1964tik goiti abian jarria da, urte horretan ireki baitzen lehen klase elebiduna, klase elebidunak jadanik dauden ikastetxeetan sail elebidunak progresiboki irekiz. Horrela, jadanik antolatua den ikastetxe sare batek du pixkanaka-pixkanaka bere baitan euskarazko irakaskuntza sail berri bat irekitzen
- euskarazko eta euskararen irakaskuntzarako baliabideak beraz sartzten dira, iturrian identifikatuak izan gabe, nazional mailan kontratupeko irakaskuntza pribatuaren alde finkatutako aurrekontuetan, ondotik herrialde eta departamendu mailan deklinatua izateko. Akademietako agintaritza eta Irakaskuntza Girixtinoko herrialde eta diozesiar zuzendaritzen arteko afektazioa, administrazio akademikoak notifikatu aitzin postuetarako eta prefektoralak klase berrien kontrataziorako

Beharrezkoa da beraz, Hezkunde Nazionala eta Irakaskuntza Girixtinoko arduradunekin adostuta herrialde mailan deklinatzen den egitura nazional hau eta Euskal Herriari dagokion lurralde problematikari dagokion Irakaskuntza Girixtinoaren baitako euskararen egituratze eta garapena perspektiben arteko artikulazio moldeak zehaztea

“Parekotasun elebidun” ereduko klase berriak ireki behar direnean, irakaskuntza publikoan bezala, Errektoretzari dagokio.

Aldiz, Irakaskuntza Girixtinoko zuzendaritzak lehenetsi nahi dituen orientabideak eta irekitze asmoak definitzen ditu ondotik akademiako arduradunei informazioa pasarazteko.

Horretarako EEPk, Seaska Federazioarekin bezala, euskararen irakaskuntzan elkarkidetzatza aktibo bat sortzea proposatzen du, bakoitzaren rolak eta eskubideak errespetatuz, ahal bezain ongi baliabide beharren erabakiak prestatzeko. Izpiritu honekin EEPak, 2005eko uztailan ateratako diagnostiko kuantitatiboaren elementuetan oinarrituz, ondoko azterketa eta hausnarketa pistak garatu ditu Irakaskuntza Girixtinoko diozesiar eta herrialdeko agintaritzek gogoeta ditzaten



I. LEHEN MAILAKO IRAKASKUNTZA GIRIXTINOA

Euskal herriko lehen mailako Irakaskuntza Girixtinoina 55 irakaskuntza gunez osatua da

Gune horien lurralde hedapenaren azterketak 2 ezaugarri nagusi agerrarazten ditu :

- ➔ hauetariko %80a Euskal Herriko kostaldea eta tarteko eremuan kokatuak dira. Xibero eta Baxe-Nafarrorako, lehen mailako Irakaskuntza Girixtinoina 11 gunetan proposatua da (Euskal herriko barnealdeko eskualde horretan badira irakaskuntza publikoko 1. mailako 46 gune)

- euskararen irakaskuntzaren ikuspegitik, BABko 3 eskualde eta lurraldearen gaineratekoaren arteko egoera aski ezberdina denez merezi du ikuspegi desberdin bat

1. Euskal Herria BAB kenduta

BAB kenduta, Euskal herri osoan, lehen mailako eskoletako 2/3ek (36 guneetatik 23k) euskara/frantsesa irakaskuntza elebidun bat proposatzen dute (eskualde berean, proportzioa 41ekoa 94erako irakaskuntza publikoan) :

- Baigorri eta Kanboko eskualdeetako gune guzietan gaur egun haurrak lehen urtetik Lehen mailako 5. urteko haurrak hartzen dituzte saila elebidunetan :
 - 7 Kanboko eskualdean
 - 3 Baigorriko eskualdean (Ortzaizeko handienak lehen mailako 5. urtean izanen dira 2008ko sartzean)
- "Donibane-Lohizuneko eskualdeko 7 eskoletatik 6k proposatzen dute 5. urte arteko irakaskuntza elebiduna
- Hendaia eta Maule-Atharratze sektoreetan jadanik dauden 2 eskoletatik batek proposatzen du irakaskuntza hau (lehen mailako 2. urtean Altzaiko eskolan)
- Hazparne-Bidaxune eremuan jadanik dauden 9 eskoletatik 3k (lehen mailako 2. urtean Aiherrako eskolan)

BAB kenduta, eskualde guzietan, euskara/frantsesa irakaskuntza elebidun hau proposatzen ez dutenetan 13 gune daude

Irakaskuntza publikorako irakurketa hobetsiaren arbela aplikatuz, ohartzen gira 13 guneetatik 3k badituztela 20 ikasle baino gehiago ama eskoletako klaseetan :

- Donibane-Lohizuneko *Ste-Marie-d'Urquijo* eskolak (herri honetan, beste eskola girixtino batek bestalde proposatzen du irakaskuntza elebiduna)
- Bardoze eta Mauleko eskolek

Ikastetxe hauetan eskolatu ikasle kopuruei esker saila elebidun baten irekitzea errazkiago egin daiteke, famili kopuru nahiko batek hala eskatuz gero

Gaur egun irakaskuntza hau proposatzen ez duten beste 9 eskoletan (Bastida, Akamarre, Heleta, Lekuine, Izturitze, Donazaharre, Behaskane, Donaixti) irakaskuntza honen jarraipenerako, hunkitzen dituen gurasoen gehiengo baten hautua beharrezkoa da.

2. BAB

BABko 3 eskualdeetatik, lehen mailako Irakaskuntza Girixtinoko eskaintza egituratzen dituzten irakaskuntza 19 guneak, horrela banatzen dira :

- 3 eskola Angelun
- eskola bat Arbonan eta 2 Miarritzen, Miarritzeko eskualdean
- 8 eskola Baionan (hauetariko 4 kolegioei lotuak izanki)
- eskola 1 Bokalen

- 4 eskola Hiriburuko kantonamenduan (2 Mugerren, 1 Milafrangan, 1 Hiriburun)

19 ikastetxe hauetatik, 4k badute gaur egun euskara/frantsesa irakaskuntza elebidun bat (eskualde berean, proportzioa 51 gunetako 8koa da irakaskuntza publikoan) :

- Mugerreko 2 eskoletatik 1
- Miarritzeko 2 eskoletatik 1
- Angeluko 3 eskoletatik 1
- Arbonako eskola

4 eskola hauen kokapena eta besteetan eskolatu ikasle kopuruak kontutan hartuz, logikoa dirudi gune berri batzuk bilatzea lehenbailehen ondoko eskolen artean :

- Baionako 8 eskolak (ez baitu batek ere euskararen irakaskuntzarik eskaintzen)
- Bokale, Milafranga eta Hiriburuko 3 eskolak, ama eskolan sar daitezkeen ikasle kopurua 20 baino gehiagokoa baita

3. Egin moldea

- **Euskara/frantsesa irakaskuntza elebidunaren garapena eta egituraketa abian jarriko da nagusiki jadanik dauden guneak azkartuz**

Euskararen irakaskuntzarako postu berrien irekitze bilakaera honen jarraipena (aldi berean frantseseko beste postu batzuk hetsiko direlarik) izanen da dudarik gabe erronka nagusia heldu diren sartzearako, Irakaskuntza Girixtinoko lehen mailako eskoletan den irakaskuntza elebiduneko eskaintzaren mailan

EEPa proposatzen du 2005 urtearen bukaerako, Irakaskuntza Girixtinoko ordezkariekin adostuta, gerta daitezkeen bilakaera hauen kopuru estimazio bat postu irekitze mailan (sortze eta arra-banaketa), gaur egun jadanik dauden 27 gune elebidun guzietan, orohar irakaskuntza girixtinoko lehen mailako guneen erdia

- Eskualde hauetan edo beste batzuetan Irakaskuntza Girixtinoko arduradunek eraman beharko lituzketen badaezpadako sail berri batzuen irekitzeen proiektuetan ekar lezakete EEParekin partaidetza bat prestakuntza faseetan, akademiako arduradunek irekitze ofiziala egin aitzin

Kasuz kasu identifikatu beharreko partaidetza honen modalitateek ondoko aktibitateak hunki ditzazke :

- Hauta daitezkeen gune berriak
- Ikastetxeek edo Diozesiar Zuzendaritzak antolaturiko sentsibilizazio edo informazio bilkuretan parte hartzea
- Laguntza tekniko ezberdinak zuzenbide eta diru arloetan
- ...

Prestakuntza faseetan adostu lan honek, honen obratzea Diozesiar Zuzendaritzaren arduraren pean daitekeelarik, sarea edo klase baten irekitze proiektuen artikulazio hobe bat ekarriko du dudarik gabe, Erakunde Publikoak urtero erreberrituko duen urte anitzeko programazio proposamenarekin, emana zaion misioaren marko juridikoa eta araudia errespetatuz

II. BIGARREN MAILAKO IRAKASKUNTZA GIRIXTINOAK : KOLEGIOAK

Lehen mailako eskoletan Euskal Herriko ikasleen %25a eskolaratzen ditu Irakaskuntza Girixtinoak, eta portzentaia hau %40ra heltzen da kolegioko klaseetarako

Lehen mailako lehen mailako 5. urtetik ateratzen diren ikasleen kopurua, 6.eko klaseetan izena ematen dutenena baino askoz azkarragoa da eta hau egiaztatzen da, kasu bat kenduta, irakaskuntza Girixtinoko 19 kolegioetako

Testuinguru elementu hau behar da kontutan hartu Irakaskuntza Girixtinoko kolegioen baitako euskararen irakaskuntzaren azterketa ziblatuagoan

Gaur egun, euskara/frantsesa irakaskuntza elebiduna, Euskal Herrian diren 19 kolegioetatik 9tan eskaintzen da

Ikastetxe hauek eta beste 5ek, "opziorik" ereduaren araberrako euskararen irakaskuntza ere eskaintzen dute

Azkenik, 6 ikastetxek (Baionako 5 kolegioek eta Donaitxikoak) ez dute euskararen irakaskuntzarik proposatzen, izan dadin "parekotasun elebidun" eredia edota "opziorik" eredia

Irakaskuntza Girixtinoko kolegioetan :

- "Parekotasun elebidun" ereduko klaseek 374 ikasle eskolatzen dituzte, orohar Irakaskuntza Girixtinoko kolegioetako ikasleen %7 inguru
- 516 ikaslek segitzen dute "opziorik" ereduaren araberrako euskararen irakaskuntza bat, orohar %10

Denbora berean, lehen mailako eskola girixtinoetan, bi eredu pedagogiko hauek ondoko ikasle kopurua eskolaratzen dituzte :

- Ikasleen %24,5a "parekotasun elebidun" eredurako
- Ikasleen %2a "opziorik" eredurako

Irakaskuntza publikorako agertu oharrak irakaskuntza girixtinoan ere egin daitezke :

- Euskararen eta euskarazko irakaskuntza segitzen duten ikasle proportzioaren murrizketa azkarra lehen maila eta kolegioaren artean (%26,5tik %17ra 2 eredu pedagogikoak osotasunean hartzen baditugu)
- Euskararen irakaskuntza ereduaren pisu erlatiboa aldatzen da opziorik ereduaren alde kolegioaren mailan

Irakaskuntza publiko eta Irakaskuntza Girixtinoko bi sareetarako egin azterketa berdintsuak ikusirik, EEPak lehen maila emanen dio, arrazoi berdinegatik, Irakaskuntza Girixtino eta irakaskuntza publikoetako kolegioen baitako euskara/frantsesa irakaskuntza elebidun ereduaren azkartzeari

Euskara/frantsesa irakaskuntza elebidunerako eskola eta kolegioaren arteko segida

Euskara/frantsesa irakaskuntza elebidunerako segida eskola eta kolegioaren arteko segida gaur egun segurtatua da Hazparne, Donibane-Garazi, Kanbo, Donibane-Lohizune eta Donapaleuko eskualdeetan

Hendaiako eskualdean, irakaskuntza Girixtinoko kolegio bat eta 2 eskola dira, hauetariko batek proposatzen duelarik euskara/frantsesa irakaskuntza elebiduna. Kopuruak, aldakorak badira ere urte batetik bestera iduriz, batz beste, hamar bat ikasleren inguruan mantentzen dira urte guziz

Maule/Atharratze eskualdean, Irakaskuntza Girixtinoko kolegio bat eta 2 eskola dira, bat Maulen kokatua eta bestea Alzain, Atharratzeko kantonamenduan. Hogei bat ikasle eskolatzen dituen azken honek euskara/frantsesa irakaskuntza elebiduna proposatzen du (segitzen duten ikasle zaharrenek CE1 maila arte heldu dira). Euskara/frantsesa sail elebidun baten irekitzea Mauleko kolegioan benetan justifikatuko da bakarrik hiri horretako lehen mailako eskolan irakaskuntza hau abian jartzen bada

BABan, euskara/frantsesa irakaskuntza elebiduna irakaskuntza elebiduneko kolegioetan azkartzeak, beharko du irakaskuntza honen sendotzean oinarritu eskualdeko lehen mailako eskolen baitan ere.

Epe laburrera, kontutan hartuz euskararen irakaskuntza proposatzen duten lehen mailako 4 eskoletatik 3 hiriaren mendebaldeko partean kokatuak dira (Arbona, Miarritze *Ste-Marie* eta Angelu *Stella-Maris*), komenigarria daiteke irakaskuntzaren segida bat bilatzea Miarritze edo Angeluko kolegioetan.

Baionako kolegioei dagokienez, Baiona, Bokale, Hiriburu eta Milafrangako hirietan irakaskuntza elebiduna proposatzen duten guneen emendatzea beharrezkoa den aurre-baldintza bat bezala agertzen da bigarren mailako irakaskuntza elebiduneko sail bat edo bi epe luzera aurre ikusteko.

Euskara/frantsesa irakaskuntzan "parekotasun elebidun" ereduko klaseen aurre ikuspena

Hazparneko *Ursuya*, Donibane-Garaziko *Mayorga*, Baigorriko *Bil-Etxea*, Donapaleuko *Etchecopar* kolegioen egoera konpara daiteke :

- ➔ 4 ikastetxeek euskara/frantsesa irakaskuntza elebidun bat proposatzen dute, jakinik gaur arte eskualde horietan jende kopuru guti zegoela
- ➔ haien eskualdeko erreklutamendua eskola elebidun girixtinoetako lehen mailako 5. urteko klaseetatik ateratzen diren ikasleen kopuruak heldu diren 4 edo 5 urteetan mantendu edo emendatzen direnez, 4 ikastetxe hauek beharko lukete haien irakaskuntza elebidun eskaintza iraunarazi eta epe luzera antolatu maila bakoitzeko klase batean (jadanik dagoen egitura)
- ➔ haatik, irakaskuntza eskaintza hau azkartuagoa baizik ez da izanen Hazparne, Donapaleu eta Donibane-Garaziko kolegioetan antolaturiko euskara/frantsesa irakaskuntza elebiduna ere irakaskuntza girixtinoaren baitan eskola elebidun sare hornituago baten gainean oinarritzen ahal bada (3 eskoletatik 1 Donapaleu eta Donibane-Garaziko eskualdeetarako, 8 eskoletatik 3 Hazparne/Bidaxune eskualderako)

Kanboko eskualdean (honen berezitasuna Irakaskuntza Girixtinoaren mailan da euskara/frantsesa irakaskuntza elebiduna eskualdeko eskola, kolegio eta lizeo guzietan eskaintzen) :

- ➔ Kanbo eta Uztaritzeko 2 kolegioek ere beraien irakaskuntza elebidunaren sendotze bat aurreikusten ahal dute, ikusiz heldu diren 4 urteetan eskualdeko klase elebidunen lehen mailako 5. urtea utziko duten ikasle kopuruen gorakada iragarria (+%60a)
- ➔ Kanboko *St-Michel* kolegioaren harrera egituraren bikoizketa (25 ikasle inguru klaseka gaur egun) beharko da aurreikusi 2008 edo 2009ko sartzetik goiti, klase batekin mailaka orekatu beharko lukeen Uztaritzekoa arriskuan jarri gabe

Donibane-Lohizuneko eskualdean, Senpereko *Arretxea* eta Donibane-Lohizuneko *Ste-marie* kolegioek beharko lukete ere haien euskara/frantsesa irakaskuntza elebidun eskaintza sendotu heldu diren urteetan : eskualdeko eskola elebidun girixtinoetako lehen mailako 5. urteko klasea uzten duten ikasle kopuruak %50az emendatuko dira 4 urtetan, 2007ko sartzetako 3. klase bat mailaka irekitzera behartuz (edo *Ste-marieko* egitura bikoiztuz edo *St-Thomasd'Aquin* kolegioan sarea abian jarritz)

2 sail elebidunen sortzeak (bat Hendaia kolegioan eta bat Miarritze edo Angelun) eta harrera egituren bikoizketak Kanbo eta Donibane-Lohizunen eragin dezakete, heldu diren 5 edo 6 urteetan, 72 edo 108 oren gehiago izatea euskararen irakaskuntzarako (orohar 4 edo 6 postu)

III. BIGARREN MAILAKO IRAKASKUNTZA GIRIXTINOA : LIZEOAK

Irakaskuntza girixtinoko 8 lizeoek 3 192 ikasle eskolatzen dituzte, orohar Euskal Herriko ikasle guzien %30

8 lizeoetatik :

- ➔ 3k euskara/frantsesa irakaskuntza elebidun bat proposatzen dute (Donibane-Lohizuneko *St-Thomas-d'Aquin*, Hazparneko *St-Joseph* eta Uztaritzeko *St-Joseph*)
- ➔ 3 ikastetxe hauek denbora berean ere "opziona" ereduaren arabera euskararen irakaskuntza proposatzen dute Baionako *Largenté* eta *Villa-Pia* eta Mauleko *St-François* lizeoekin betan
- ➔ Baionako *Le Guichot* eta Angeluko *Ste-Anne* lizeoek ez dute batere euskararen irakaskuntzarik proposatzen
- ➔ Hazparneko *St-Joseph* lizeoa, profesional sailetan irakaskuntza elebidun baten antolakuntza entseatu duen Euskal Herriko lizeo bakarra da

Irakaskuntza orokorrari dagokionez, irakaskuntza girixtinoak gaur egun proposatzen duen dispositiboa, iduriz momentuko beharrei erantzuten die :

- ➔ Euskara/frantsesa irakaskuntza elebidunaproposatzen duten 2 lizeoak, euskararen irakaskuntzan eskolatu ikasle kopuru azkarrena duten 2 eskualdeetan kokatuak dira : eskualdeko bi kolegio elebidunen (Uztaritze eta Kanbo) hurbiltasunarekin kontaktzen ahal duen Uztaritzeko *St-Joseph* lizeoa, eta bere eskualdean diren 2 kolegioen (*Ste-marie* eta *Arretxea* Senperen) laguntzaz baliatzen den Donibane-Lohizuneko *St-Thomas-d'Aquin* lizeoa
- ➔ 2 lizeo hauek beharko lukete gerorako erreklutamenduan iragarri irakaskuntza elebidunaren sendotzeaz baliatu Kanbo eta Donibane-Lohizuneko kolegioen mailan, eta segida bat segurtatu gaur egun irakaskuntza hau eskaintzen duten Euskal Herri barnealdeko beste kolegioei
- ➔ ezin da irakaskuntza elebidun sail baten irekitzea pentsatu BAB eskualdeko lizeoetatik batean ez bada lehenago irakaskuntza hau egituratzen kolegioan
- ➔ Anartean, "opziona" ereduaren sendotzea, irakaskuntza publikoan bezala, helburu nagusia izan daiteke heldu diren urteetan euskara/frantsesa irakaskuntza elebiduna antolatzeko asmorik ez duten ikastetxe guzietarako

3. SEASKA FEDERAZIOA

1969an, 1. ikastola sortu zenetik, Seaska Federazioaren baitan bilduak diren ikastolek, urteak pasa ahala, beraien irakaskuntza eskaintza hornitu dute gunee berriak progresiboki irekiz

Sarea gaur egun 24 ikastetxez osatua da :

- ikasleak ama eskolan hartzen dituzten 3 ikastola : Azkaine, Hiriburu eta Aloze
- ikasleak ama eskola eta ondoko klase batzutan hartzen dituzten 3 ikastola, lehen ziklo osoa segurtatu gabe gaur egun, duela guti sortu direlako (lehen mailako 1. urteraino Angelun, 2. urteraino Saran eta 4. urteraino Urruñan)
- ikasleak ama eskola eta lehen mailan, Lehen mailako 5. urteraino hartzen dituzten 14 ikastola : Hendaia, Senpere, Donibane-Lohizune, Miarritze, Baiona (2), Uztaritze, Kanbo, Hazparne, Donibane-Garazi, Donapaleu, Izura eta Maule
- Kanbo, Ziburun eta Donaixtin kokatuak diren 3 kolegio
- Baionan kokatua den lizeo bat

Seaska Federazioko klase guziak kontratu pean dira Estatuarekin, honek irakasle guziak ordaintzen ditu (kontratupeko irakasle pribatuen zuzenbide publikoko estatutua)

Horrela, ikastetxe bakoitzak, hauetan eskolatu ikasleen gurasoak kide diren 1901 legearen arabeko elkartetan juridikoki egituratua da eta podere publikoek emandako ibilmolderako diru-laguntzak lortzen ditu (herriko etxetik, kanpotegiko diru-laguntza...), hauek irakaskuntza publikoan eskolatu ikasle baten kostuaren arabeko legearen bidez kalkulatu da (irakaskuntzen antolakuntzarako bakarrik)

Bestalde, Estatuarekin izenpeturiko elkarte kontratua honen arabera, Seaskako irakasle guziak, Irakaskuntza Girixtinokoak bezala, hezkunde nazionalak ordaintzen ditu (kontratupeko irakaskuntza pribatuko errienteen zuzenbide publikoko Estatutua)

“Murgiltze” sarearen baitan eskainia den euskararen irakaskuntzaren garapena pasatuko da, parte baterako, irakaskuntza publikoan edo girixtinoan euskara/frantsesa irakaskuntza elebidun bat proposatzen duten eskola guzietan bezala, jadanik irekiak diren guneeetan eskolatu ikasle kopuruaren emendatzearen bidez. Alta, irakaskuntza publiko eta girixtinoko eskola elebidunak ez bezala, haien irakaskuntza karta aberasten ahal baita jadanik dauden ikastetxe batzuen baitan klase elebidun berri batzuk irekiz, Seaskaren eskaintza garatzeko lurralde mailan, ikasleen gurasoek beharko dituzte ikastetxe berriak ex nihilo sortu (juridikoki lehen urteetan, jadanik dagoen ikastetxe bati lotuz ibiltzeko aukerarekin)

Lurralde mailako hedapenaren ikuspegitik, azterketa honetan atxiki 13 eskualdeetatik 12tan badago ikastola bat bederen :

- 5 Donibane-Lohizuneko eskualdean
- 3 Baionako eskualdean
- 2 Kanbo eta Donapaleuko eskualdeetan
- 1 Hendaia, Angelu, Miarritze, Baigorri, Donibane-Garazi, Hazparne, Atharratze eta Mauleko eskualdeetan
- Ikastolarik ez Bidaxuneko eskualdean



Eskualde hauetan edo beste batzuetan Seaska Federazioko arduradunek eraman beharko lituzketen badaezpadako sail berri batzuen irekitzeen proiektuetan ekar lezakete EEParekin partaidetza bat prestakuntza faseetan, akademiako arduradunek irekitze ofiziala egin aitzin

Kasuz kasu identifikatu beharreko Partaidetza honen modalitateek ondoko aktibitateak hunki ditzazke :

- ➔ Hauta daitezkeen gune berriak
- ➔ Ikastetxeek edo Seaskako arduradunek antolaturiko sentsibilizazio edo informazio bilkuretan parte hartu
- ➔ Laguntza tekniko ezberdinak zuzenbide eta diru arloetan
- ➔ ...

Prestakuntza faseetan adostu lan honek, honen obratzea Seaskako ordezkarien arduraren pean daitekeelarik, sarea edo klase baten irekitze proiektuen artikulazio hobe bat ekarriko du dudarik gabe, Erakunde Publikoak urtero erreberituko duen urte anitzeko programazio proposamenarekin, emana zaion misioaren marko juridikoa eta araudia errespetatuz

I. LEHEN MAILAKO IRAKASKUNTZAN JADANIK DAUDEN IKASTETXEEN ESKAINTZARAKO PROIEKZIOAK

Gune berrien irekitzeari dagozkion eraman beharreko gogoekin betan, ikastolen sareak gaur egun proposatzen duen irakaskuntza egituraren bilakaera zorbait gidoi diseina daitezke

Gaur egun ikastoletan eskolatu klase bakoitzeko ikasle kopuruaren azterketak ezaugarri batzuk agerian uzten ditu :

- Zikloa lehen urtean hasten duten ikasleek kasu gehienetan CM2a arte segitzen dute (baita ere ama eskolako azken urtetik / lehen mailako 1. urterainoko pasaiaren mailan, bertan pasaia maila 2004 eta 2005 urteetarako kasik %100ekoa delarik guti gorabehera ikastola guzietarako) → %1eko galtzea kopuruetan urte batetik bestera
- Ama eskolako Lehen Urtean eskolatu kopuruak emendatuz doaz (aldaketa batzuekin urte batetik bestera eta ikastola batetik bestera) 6 ikasle gehiagorekin batez beste urte guziz ikastola guzietan azken 4 urteetan (egituraketa 20 gunetan)

Elementu hauek kontutan harturik, erran dezakegu 180 ikasle gehiago eskolatu beharko dituela gaur egun ibiltzen diren 20 ikastoletako sareak heldu diren 5 urteetan (2006ko sartzetik, 2010eko sartzera), iragarritako momentu azkarragoekin 2006 eta 2008an

Iragarri ikasle kopuruaren emendatze, hauen eskolatzeko beharko diren postu berritan itzultzen bada, beharko litzateke lehenago kalkulu eredu bat zehaztu postu hauen urteroko dotaziorako

Alabaina, bigarren mailako irakaskuntzarako, Errektoretzak dotazio teoriko baten kalkulu arbela bat zehaztu du ikastetxeen oren mailako beharren neurtzeko, euskararen eta euskarazko irakaskuntzari lotuak diren behar bereziak kontutan hartzen dituzten irizpide zehatz batzuen arabera

Ikusmolde berdintsu bat abian jarri behar daiteke Seaska Federazioak antolatu lehen mailako irakaskuntzarako

Sartze ezberdinetan prestakuntza eztabaidak lagunduko dituen lan tresna bat izateko eta lanpostu mailako beharrak ahalik eta molde onenean aurreikusteko asmoz, ezinbestekoa daiteke hunkituak diren partaideekin adostuz, kalkulu arbela erreferentzial bat burutzea, ikastola ezberdinen ibil molderako beharrezkoak diren lanpostu kopuruaren zehazteko

Tresna honen eginkizuna daiteke lan-postuen dotazio irizpideak finkatzea, ikastetxez ikastetxe, bestalde aplikatu marko tasa kontutan hartuz, baina ikastolen baitan praktikaturako sistema pedagogikoaren berezitasunei egokitua :

Zoin antolakuntza pedagogiko molde euskarazko murgiltze osoa praktikatzen duten ama eskoletako ? Zoin antolakuntza pedagogiko molde frantsesaren irakaskuntza progresiborako Lehen Mailako 1. urtetik goiti (3 orenetatik 8etara) ? Zoin traba ekartzen ditu irakaskuntza bikoitzak irakasleen zerbitzuen definizioan ? Zoin traba ekartzen ditu neurri ttipiko guneenganako lurralde mailak ?

Horrelako tresna baten burutzeak Hezkunde Nazionala eta Seaska federazioaren arteko akordio baten formalizaziora eraman dezake eta eskola sartze ezberdinetarako prestakuntza eztabaidak erraztuko lituzkeen irakurketa arbela bat sortuz. EEPak proposatzen du Seaskak eta akademiako inspektoreak izendaturiko partaideekin lehen elkarretaratze bat antolatzea eta animatzea, lehenbailehen tresna hau abian jartzeko desmarta eramaten entseatzeko, partaideen adostasuna lortzen bada 2006ko sartzera prestatu aitzin.

II. BIGARREN MAILAKO IRAKASKUNTZAN JADANIK DAUDENIKASTETXEEN ESKAINTZARAKO PROIEKZIOAK

Seaska Federazioko bigarren mailako lau ikastetxeak, gaur egun, 2005eko sartzetik goiti, 1 160 oreneko ODO batez (Ordu Dotazio Orokor) hornituak dira (hau lanpostuetan itzultzen balitz, hirurogei bat irakasle erran nahi luke) :

- 323 oren Kanboko *Xalbador* kolegiarako
- 325 oren Ziburuko *Larzabal* kolegiarako
- 192 oren Donaixtiko *Erdozaintzi* kolegiarako
- 320 oren Baionako *Etxepare* kolegiarako

Ordu dotazioei esker (60 orenez emendatu direnak 2005eko sartzean) lau ikastetxe hauek ondoko egituren arabera ibiltzen dira :

- 200 ikasle Kanboko *Xalbador* kolegioan banatuak : 3 klase 6. eta 4.ean, 2 klase 5. eta 3.ean
→ orohar 20 ikasle, batez beste, klaseka (19tik 23ra mailen arabera)
- 188 ikasle 9 klasetan banatuak Ziburuko *Larzabal* kolegioan : 3 klase 5.ean, 2 klase 6., 4. eta 3.ean
→ orohar 21 ikasle, batez beste, klaseka (16tik 26ra mailen arabera)
- 123 ikasle 6 klasetan Donaixtiko *Erdozaintzi* kolegioan : 2 klase 6. eta 4.ean, klase 1 5. eta 3.ean
→ orohar 20 ikasle, batez beste, klaseka (18tik 26ra mailen arabera)
- 172 ikasle 9 klasetan banatuak Baionako *Etxepare* kolegioan : 3 klase bigarreanean, klase 1 S, L, ES sail bakoitzeko 1.eko eta klase bat Azken urteko sail bakoitzeko
→ orohar 19 ikasle, batez beste, klaseka (12tik 26ra mailen arabera)

Lehen mailako 20 ikastetxeetarako diseinatutako proiektzioa zehazkiago buru daiteke bigarren mailarako.

Seaskako hiru kolegioetako ikasleak gehienik lehen mailako ikastoletatik datoz eta lizeokoak Federazioaren baitan jadanik bilduak diren kolegioetatik

Azken urte hauetan eskolatu ikasle kopuruen behaketei esker, hipotesi aski seguruak eraiki daitezke :

- n urteko 6.eko ratioa / n-1 urteko CM2a : %90 inguru
- n urteko 2.eko ratioa / n-1 urteko 3.a : %63a (azken 2 urteetako batez bestekoa)
- bigarreneko bukaeran S Baxora doazenen estimazioa %44koa da eta L eta ES Baxoetara doazenena %28koa

Bestalde, jatorrizko ikastolen arabera, 6.ean sartzan diren ikasleen banaketaz diren informazio ezagunak kontutan hartuz, heldu diren 5 urteetarako hona zer iragar genezakeen :

- ***Xalbador* kolegioko ikasle kopurua berrogei bat ikaslez emendatuko da hemendik 2010era**

Hemendik 2009ko bukaerara, urteko emendatzea erregularra izan daiteke baina zombait ikasleei mugatuko da. Gaur egun 10 klase duen egiturak emendatzea xurga dezake aipatu epe horretan

Errektoretzak 28 ikaslera finkatu dibisio-atalasearen aplikazio hertsia eragin dezake, proiektio honen arabera, 11. klase baten irekitzea eta beraz baliabide gehiagoren emakida 2010eko sartzean

➤ **Erdozaintzi kolegioko ikasle kopurua hogoi bat ikaslez emendatuko da hemendik 2010era**

Kasu honetan, kopuruaren emendatzeak justifikatu dezake, dibisio-atalasearen aplikazioa kontutan harturik, kolegioaren egitura progresiboki 8 klasetako antolakuntza batera joan dadila (2 klase mailaka) : 7. klase bat 2006ko sartzean eta 8. klase bat 2008ko sartzean

2008tik goiti, 8 klaseko egitura, zorbait urtez iragarritako kopuruak hartzeko gai daiteke

➤ **Larzabal kolegioko ikasle kopurua hamar bat ikaslez emendatuko da hemendik 2010era**

Kasu honetan, gaur egun dagoen 9 klaseko egitura nahikoa da kopuru somagarriak hartzeko hemendik 2010era. 2008tik goiti gerta daitekeen estutze batek klase baten hestea eragin dezake, gaur egun den dibisio-atalasea kontutan hartuta

➤ **Baionako Etxepare lizeoko ikasle kopurua laurogei ta hamar bat ikaslez emendatuko da hemendik 2010era**

9 klaseen inguruan antolatua den ikastetxearen gaur egungo egiturak xurga dezake, hemendik 2007ra, hogoi ta hamar bateko emendatzea iragarria da

Errektoretzak, lizeoetan 35 ikaslera finkatu dibisio-atalasearen aplikazioak eragin dezake 10. klase baten irekitzea 2008ko sartzean eta 11. klase batena 2009ko sartzean

Epe horretatik at, 11 klaseko egiturak iragarritako kopuruak hartzeko gaitasuna luke hainbat urteetarako

Proiektio hauek kontutan harturik, estima daiteke, heldu diren 5 edo 6 urteetarako, 120,160 oren gehiago sartu beharko direla, erran nahi baita 6, 9 lanpostu berri, Seaskako bigarren mailako 4 ikastetxeen sareak 160 ikasle inguru gehiago eskolatzeko ahalak izan ditzan hemendik 2010era

Erran gabe doa, bistan dena, iragarpen hauek urte guziz berriz aztertu behar direla, izena eman duten ikasle kopuru erreala, CM2tik 6. erako pasaia tasaren badaezpadako bilakaerak, bigarrenaren bukaerako orientazioak eta eskainitako irakaskuntzen kalitateari lotuak diren beste irizpide guzien arabera